

JAKIN

HIZKUNTZ NORMALIZAZIOA ELEBITASUNA

**Bi Kongresu: Iruñea-Fadura
Itzulpena Euskal Herrian
Atlas Etnolinguistikoaz
George Orwell
Diderot**

Uztaila
Iraila

32

1984

aurkibidea

<i>Zenbaki honetan.....</i>	3
<hr/>	
LARRAÑAGA, I. EGIA, G. AMONARRIZ, K.: Euskal Herriko Hizkuntz normalizazioaren zenbait alderdi.....	5
MÜLLER, I.: Elebitasuna Euskal Herrian: Teoria eta egoera.....	25
ETXEZARRETA, I. GARAGORRI, X. OSORO, I.: Elebitasuna ikastole- tan: egoera eta irtenbideak.....	37
SIERRA, J.: Haurren euskara-maila neurtzea.....	71
<hr/>	
Orain eta Hemen	
ZINEMALDIA: Jipoiak eta ajeak - Lekuko, Iratzeder - Aska- pen-teologia auzipean.....	79
<hr/>	
Gaiak	
AZURMENDI, J.: George Orwell.....	87
XARRITTON, P.: Kulturaren bilakaera Iparraldean.....	105
OTAEGI, J.A.: Diderot (1713-1784).....	111
STRUBELL i TRUETA, M.: Kataluniako Parlamentuaren 7%/1983 Legea, Hizkuntz Normalizazioaz.....	123
<hr/>	
...hainbat aburu	
AIZPURUA, M.: Euskaraz mundura?.....	133
<hr/>	
Liburuak	
TXILLARDEGI: Euskalerriko Atlas Etno-Linguistikoa.....	139
<hr/>	
Kultur bideetan	
MENDIGUREN, X.: Itzulpen-teoria eta praktikaren irakaskuntza Euskal Herrian.....	151
SALABURU, P.: Euskaltzaindiaren X. Biltzarra Iruñean.....	163
TORREALDAI, J.M.: Hizkuntza minorizatuen Soziologi Batzarrea	169

© **JAKIN**

JAKINeko idazlanez
inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria.

JAKIN

aldizkari irekia da eta
ez dator nahitaez
idazleen eritziekin bat.

Zuzendaritza:

joan mari torrealdei
l. a. bilbao (kazetaria)

Idazkaritza eta administrazioa:

Ategorrieta hiribidea, 23 1. esk.
Donostia – 13. Tel. (943) 27 17 13

1984erako prezioak :

	barruan	kanpoan
ale arrunta	500 pta.	600 pta. (25 FF)
ale bikoitza	700 pta.	800 pta (45 FF)
ale extra	1.000 pta.	1.200 pta. (70 FF)
harpidetza	1.500 pta.	1.700 pta. (95 FF)

ZENBAKI HONETAN

Eskutan duzun zenbaki hau aurtengo hirugarrena da, eta bigarren aldiko 32.a. Dakikezunez, urteko hirugarrenak ez du gai monografikorik; honek ere ez, beraz. Baina kasu honetan, zenbaki honetako artikulu askotan aurretiaz programatu gabeko batasun-hari bat bada. Batasun hori hizkuntzaren inguruko gaien kopuruak ematen dio zenbakiari. Bide batez esanik, beste hau ere erakusten du gertakari honek: euskararen bizitzak barru-barrutik kezkatzen duela, euskaldun jendea.

Jo dezagun orain lanak banan bana aipatzera.

Lehen idazlanaren ardatza, euskararen normalizazioa da. I. Larrañagak euskararen azterketa soziolinguistikoak zertan diren agertu ondoren, G. Egiak Gipuzkoako Diputazioaren ekinaldien filosofia agertzen du eta K. Amonarrizek kasu konkretu bat, Tolosakoa. Santander-en, irailean, ospatu zen Soziologiako II. Batzarrean eman zen hiru lan hauen berri.

Bigarren artikuluan I. Müller suitzarrak hizkuntz kontaktuei buruzko teorien kontzeptu nagusiak azaltzen ditu lehen partean, gero euskararen zapalkuntza aztertzeke, printzipio horien argitan.

Elebitasunaz, baita, baina konkretuan, oso konkretuan, ari dira GIEko hiru lankide. Gipuzkoako ikastoletako elebitasun-tipologiak aztertzen dituzte, esperientzia elebiduna jaso, epaitu, neurtu eta bideratzeko pauiak eskaintzeko asmoz.

J. Sierrak aurkezten duen lana ere ez dabil azken honetatik oso urruti. Psikologoaren lan-talde batek, bera tartean dela, haurren euskara-maila neurtu nahi izan du testen bidez.

Zenbaki honen lehen parteko artikulu-multzoaren ondoren, Orain eta Hemen saila jarri dugu arintasun aldera. Egia esan, gorputz gutxi hartu digu oraingoan sail honek, hiru artikuluskaz osatzen da eta.

Gaiak saila, aldiz, ongi hornitua dator. Lehen idazlana J. Azurmendi-rena da: euskal filosofo honek aurkezpenik behar ez duen Orwell-en bizi-tza eta obraren lerro nagusiak ditu aztergai.

P. Xarritonek Ipar Euskal Herrian irakaskuntza eta komunikabideak zertan diren azaltzen digu. Duela bost urte JAKIN honek agertu zuen egoerarekin konparatuz, gaurkoa argitzea du xede.

Diderot entziklopedista sonatua hil zela berrehun urte aurrean bete-tzen direnez, haren pentsaerarekin solasean aritu izan da J.A. Otaegi.

M. Strubell Generalitat-eko katalanaren Normalizazio-Buruaren la-narekin, atzera hizkuntzaren arlora gator. Kataluniako Hizkuntz Nor-malizaziorako Legearen edukina eman, balioztapena egin eta legearen helburu soziolinguistikoak argitzen ditu Strubell-ek artikulu honetan.

... hainbat aburu sailean, zein hizkuntzatan eman behar diren ikerla-nak galderari erantzunez, zenbait proposamen praktiko egiten du M. Aizpuruak.

Liburuak sailean Arantzadik atera berri duen «Euskalerriko Atlas Etno-Linguistikoa»ri jorratu on bat ematen dio Txillardegik: hutsuneak zehatz-mehatz agertuz, funtsezko kritikari lotu zaio gure idazlea.

Kultur bideetan deitu sailean, azkenik, hiru lan ditugu. Bata, luzea, X. Mendigurenek itzulpen-teoria eta praktikaren irakaskuntzaz, Euskal Herrikoaz, egina. Eta beste bi, laburragoak, azken bi hilabeteotan egin-dako bi batzarreari buruzkoak. Euskaltzaindiak gramatikaz Iruñean egin-dakoaz idazten du P. Salaburuk eta J.M. Torrealdaik Faduran ospatu zen hizkuntza minorizatuen soziologi batzarreaz.

Euskal Herriko hizkuntz normalizazioaren zenbait alderdi

**Iñaki Larrañaga
Gotzon Egia
Kike Amonarriz**

1. Azterketa Soziolinguistikoak Euskal Herrian

Sarrera

Azterketa soziolinguistikoak berri xamarrak dira gure artean, izen honen burupean behinik behin: oraino 10 urte ere ez dira iragan Euskal Herrian lehen aldiz azterketa soziolinguistiko bat, honela izenburuturik, argitara eman zenetik. Lehenagotik eginiko lanak, izan ere, linguistika edo dialektologiaren ikuspuntutik burutuak bait ziren. XIX. mendearen erdialdean Luis Luciano Bonaparte Printzeak eta Pedro de Yrizarrek ehun urte geroago egindakoak dira ezagunenak. Nolanahi ere, badira salbuespen gisa aipatu beharreko batzu, soziologiaren errotuloaren pean eginak ez izanagatik ere, beronen filosofiari darraizkionak. Hauen artean aipatuko ditugu A. Apat Etxebarnek eta Jose Angel Irigaraik euskarak Nafarroan jasaten duen atzerapenari buruz egin zutena eta Sánchez Carrión «Txepetx»ek era berean euskarak Nafarroan bizi duen egoeraren gainean 1970ean egindakoa. Beste hainbeste esan beharko litzateke euskarak Araban 1850etik 1950era bitartean izandako atzerapenaz Odon Apraizek burututako ikerketari dagokionez.

Azken urteotan berez azterketa soziolinguistiko gisa argitaratutako lehena, Euskaltzaindiak SIADECO taldeari agindu eta, laburturik, *Hizkuntz borroka Euskal Herrian* (1978) izeneko liburuan argitara zena da.

Bigarrena 1983an argitara zen, Eusko Jaurlaritzako Gizarte-Azterketarako Lantaldeak egina, hain zuzen.

Bion bitartean beste zenbait lan egin da, baina beti esparru murriztuago baten barnean, probintzia bakar bati edo eskualde nahiz udalerrri bati dagokiolarik. Hauetan, 1979an Tolosaldea Berreuskalduntzeko Elkartek SIADECO taldearen zuzendaritzapean Tolosaldeari buruz egindako azterketa soziolinguistikoa aipatu behar.

1982-83 urteetan, Gipuzkoako Lurraldearen azterketa soziolinguistikoaren lehen fasea gauzatuz, 1981eko Biztanleriaren Zentsuan euskararen ezagutzari buruz jasotako informazioaren azterketa egin zuen SIADECOK Gipuzkoako Foru Diputazioaren aginduz, Diputazio honetako Datu Prozesu Biltegian tratatu zelarik.

1983-84 urteetan zehar, dagoeneko Gipuzkoako lurraldearen azterketa soziolinguistikoaren 2. fasearen barnean, lurralde honetan euskarak zuen erabilera errearen analisia egin zuen SIADECO taldeak. Analisi honek bi kapitulu hartzen ditu: bata, jadanik bukatua dagoena, leku publikoetan, udal-bulego eta zerbitzuetan eta, oro har, zerbitzu sozial eta pertsonaletan euskarak duen erabilerari dagokio, eta bestea, bukatzeaz dagoena, euskarak foru-zerbitzuetan eta Administrazio Autonomoaren lurralde-ordezkaritzetan, industrian, kontsumorako gaien etiketaketan, duen erabilerari dagokio.

Berariaz udal-esparrutan egindako azterketei dagokienez, berriaz, aurtun Laudion, Irunen, Basaurin eta Galdakaon lan egiteari ekin zaiola esan behar da. Arrazoi ezberdinak direla bide, oraindik gauzatu ez diren beste hainbat proiektu ere badaude.

Bestalde, aipamen berezia merezi du Tolosako Udalak martxan jarritako Euskara Zerbitzua gaur egun garatzen ari den zenbait lanek: udal-zerbitzuetan euskarak bizi duen egoeraren azterketa eta dagokien birtziklaketa-plana, euskararen erabilera hedatzeko asmoz elkarte askorekin dituen harremanak, orain dela bost urte eskualde osoan (25 udalerrri) egindakoaren antzera azterketa soziolinguistiko berria burutzeko projektua.

Azkenik, xeheki aipatzeko gaitza den ekimen mugatu ugari dago. Aski bitez, beraz, aurrean emandako datuak.

Euskararen atzerapenaren zergatiak eta kondizioak

Nafarroa, Araba edo Euskal Herri osoari buruz gaur artean egindako lanek, bakoitzak bere metodologia eta helburu bereziaz, euskararen atzerapena eta, zenbaitetan, desagerpena egiaztatu digute. Aurrerago azalduko den moduan, prozesu horretan Erromaniizazioetik gaur egun arte eraginik izan duten faktoreetan xehekiago sakondu beharko lukete lanok.

Ondoren, goian aipatutako azterketa eta lanek erdietsitako emaitzarik nabarmenenak azaltzen saiatuko gara.

Abiapunturako hipotesi gisa, Euskal Herriko hizkuntz ordezkapenaren prozesuaren eragile nagusiak tradizionalki alderdi sozioekonomikoak zirela (nekazal gizarte batetik industri gizarte baterako trantsizioa, bizimodu tradizioaletatik modernoagoetara igarotzea, etab.) pentsatu ohi bada ere, euskararen atzerapen eta desagerpenaren zergatietan alderdi soziopolitikoek pisu askoz handiagoa dutela esan dezakegu. Lehendabizi, Administrazio publikoa, ia zazpi mendetako tradizio batez, latina erabiltzetik gaztelania edo frantsesa bere hizkuntza bakar eta eskusibo bihurtzera igaro zen zuzenean. Bigarren, Moyano Legeak gaztelania hizkuntza bakartzat ezarri zuenetik, hezkuntzak oso joku garrantzitsua izan zuen. Eta hirugarren, dagoeneko aro modernoago batean, gizarte-komunikabideek eta gaur egungo gizarte-zerbitzuek (telefono, posta, garraio, sanitate, etabarrek) antzina hasitako prozesua finkatzea ekarri dute.

Bestalde, faktore soziopolitikoaren artean, Euskal Herriko lurraldeak integraturik dauden bi Estatu-nazioetako konstituzio-ordenamenduak hizkuntz ordezkapenean paper erabakiorra izan duela esan behar dugu. Iraultzatik (1789) sortutako Konstituzio frantzesak eta beronen irudira Cádiz-ko Gorteetan (1812) erredaktatutakoak frantsesa eta gaztelania aldarrikatzen dituzte, hurrenez hurren, hizkuntza nazional bakar gisa. Nolanahi ere, baziren aurrekinak Espainiako Estatuari dagokionez, non Austriekin (1500 urtearen inguruan) eta batez ere Borboiekin (1700 urteaz geroztik), gaztelaniaz beste hizkuntza penintsularrak likidatzearen aldeko joerak indar handiz ageri bait ziren. Eraso gogorrenak, ordea, bigarren karlistaden ondorioz euskal probintzien foruak

kenduz gero izan ziren Euskal Herrian. Hizkuntz ordezkapeneko prozesu historiko hori, jakina denez, diktadura frankistaren urteetan heldu zen agian bere unerik tragikoenetara. Amaitzeko, azken urteotan Estatuaren joera 1978ko Konstituzioan gauzatu da, zeinag gaztelaniaz kanpoko beste hizkuntzei dagokienez diskriminazio-egoera garbi bat erabakitzen bait du, gutxiengotutako hizkuntzen desagertze-prozesua, oro har, aurrera doalarik «Autonomien Estatua» izenekoan.

Euskararen iraupenaren zergatiak eta kondizioak

Zenbait faktorek euskara Euskal Herriko zona haundi batzutan desagerrerazteko eragina izan duen legez, aurkako norabidea duen beste zenbait faktorek ordezkapen linguistikoa erabat eta behin-betirako burutzea frenatu du. Dena dela, faktore hauek hizkuntz higadura handi bati aurre egin behar izan diote.

Alde batetik, geografi edo lurralde-higadura bat dago. Era batera edo bestera euskarak iraun duen lurraldeetan, iraupen hau ezberdina izan da. Ibaizabaletik Aturrira eta Amurrio eta Laudiotik Maulera bitartean Sakana eta Aezkoan barrena, oso-osorik gazteleratu diren barrendegi txikiak daude. Honen ondorioz euskararen gaur arteko espazio edo lurralde berekiak zatiketa sakon bat jasan du, bere baitan hizkuntz kontinuitate edo dentsitate orekatu eta osoa ez dagoelarik. Egoera honen berehalako ondorioa, zenbait eskualde erabat gazteleratzeko arriskuan egotea da.

Lurralde-higadura honen arrazoiak guztiz ezagunak dira: bertakoen hizkuntz asimilaziorako faktoreak (hezkuntza, komunikabideak, administrazioa, etab.) eta etorkinen biztanleri kopuruaren eragina.

Bestaldetik, higadura handia dago euskararen ezagutzaren eta erabileraren artean ere. Oro har, zera esan behar da: egin diren inkestetan objektiboki ikusten denez, euskaraz dakitenetatik erdiek erabili ohi dutela. Baieztapen honetan badaude aipatu beharreko ezberdintasun geografiko eta demografikoak.

Geografi ezberdintasunei dagokienez, zera esan behar da: euskara-hiztunen kopuru handieneko zona edo eskualdeetan biztanleriaren gehiengoak euskara ezagutzen eta erabiltzen duela. Dena den, ezberdintasun nabariak daude udalerrien tamainaren arabera, eta herri txikietan euskara-hiztunek gehiengoa osatzen

dutela egia bada ere, ez da gauza bera gertatzen biztanleriaren gehiengo biltzen den hirigune handietan.

Demografiaren ikuspuntutik, euskararen erabilpenaren garapean eragin negatiboa duten faktore asko daude. Batetik, udalerri handienak dira aurrerabide demografiko azkarrena dutenak, hots, erdaldundenak hain zuzen ere. Bestalde, egitura demografikoa kontutan hartuz, euskara gutxienik erabiltzen dutenak gazteak dira (adinekoek eta zaharrek gehiago erabiltzen dute). Ondorioz, ezin esan genezake oraingoz dinamika demografikoak euskararen normalizazio-prozesuaren alde egin dezakeenik. Beste kontu bat izango da hezkuntz sistemaren bitartez populazio gazteena normalizazio-prozesu honetan txertatzea lortzen bada.

Aurreko guztiaren ondorioz, euskararen egoera geografikoki zatikatua eta demografikoki desegituratua dela esan genezake, hizkuntza minorizatu batetan ohizkoa den legez.

Arestian deskribatutako hizkuntz higaduraren ondorioz, bada alarma-seinale edo zeinu batzu, itzulbiderik gabeko puntu batetara iritsiak garela adieraziko luketenak, askoren ustetan behintzat. Den-denak azaltzeko asmorik gabe ere, aipa ditzagun nabarmenenak:

a) Gure hizkuntz komunitatean hiztun elebakarrak desagertu egin dira, salbuespen bakan batzuek beste. Honen aurrean, erdaldun elebakar andana dago, sekulan euskara ikasteko beharrik ere sentitu ez duena gainera. Era honetan, hizkuntz ordezkapenaren prozesuaren epeak burutzen ari dira: lehenik, euskaldun guztiak elebidun bihurtuak dira; ondoren, beharrezko ez den hizkuntza (euskara) alde batera utziz doa, azkenik elebakartasun perfektua erdiesten delarik.

b) Euskararen gizarte-erreproduzioaren baliabideak huts egin hasiak dira, hauen artean familiaren bidez ematen den transmisio-prozesua bereziki. Gertakari honen arrazoia familiaz kanpoko espazio guztiak erdararen menpean egotea izango litzateke behingoz, beste zenbait faktore psikosozialez gain. Zentzu honetan esan beharra dago euskararen erabilpenaren aukerak oso baldintza zorrotzetara daudela mugatuta: lehenik, hiztunak euskaldun izan behar du; bigarrenik, haren entzuleak ere bai; hirugarrenik, ez da erdaldunik tartean izan behar; laugarrenik, egokiera ez da oso formala izango, ezta gaia ere teknikoa edota espezializatua. Baldintza hauetakoren bat ematen ez den bakoitzean, erdararen erabilpena ezartzen da beste gabe.

c) Praktikan ezinezkoa gertatzen zaio inori Euskal Herrian bere bizitza osoa euskaraz egin ahal izatea. Honela, eta ez bestela, uler daiteke euskararen erabilpenaren beherakada izugarria, norberaren eritzi, jarrera edota jakintza-mailatik at.

Aipatutako sintoma hauek euskara irtenbiderik gabeko anean aurkitzen dela pentsarazi diezaiokeite zenbaiti, eta ondorioz hizkuntz ordezkapenaren prozesuak ez duela jada itzulbiderik gure Herrian. Baina ikusmolde honi aurre eginez, esan beharra dago soziologikoki hizkuntz komunitate baten egoera ez dela sekulan egonkorra, eta ondorioz ez dagoela itzulbiderik ezaz edota behin-betirako egoeraz mintzatzerik. Gure egoera, eta areago zailagorik ere, gainditu duten herriak badira munduan zehar, eta konparazioak guztiz zehatz egitekoak ez badira ere, Israel, Suomi, Belgika, Québec, eta abarren ereduak ditugu gogoan. Nafarroako Erriberan, Arabako Errioxan edota Bizkaiko Enkarterrietan euskara berreskuratzea, epe luzera, gertakizun izan daiteke, horretarako derigarrezko diren bitartekoak jartzen badira.

Euskararen normalizazioaren edo berreskurapenaren ezaugarriak

Orain arte emandako datuez, ezin uka daiteke euskararen egoera soziolinguistikokoaren larritasuna. Alabaina, azken 20-25 urteotan emandako aurrerapausoak ere ezin dira aipatu gabe laga.

Besteren artean, hezkuntzaren alorrean, adibidez, ikastoletako ikasleak 500 ziren 1960an eta 1982-83 ikasturtean, berriz, 65.000. Honez gain, hezkuntz sare publikoan euskararen eta euskarazko irakaskuntza sartzeko ahaleginak aipagarriak dira, definituta dauden hizkuntz ereduaren ezarpena eta lortutako ondorioak eztabaidagarriak izan badaitezke ere. Guzti honek euskararen alorrean lanean ari den giza talde handi bat sor eraztea ekarri du berarekin, gerora orain emandako aurrerapausoak atzeraezinak izan daitezen garantizatzen duena nolabait.

Helduen berreuskalduntze-alfabetatzean beste honenbeste esan beharko genuke: gure Herriaren historian ez da inoiz orain beste pertsona-kopururik euskara ikasten ihardun, ez eta hainbestek ikasi ere. Ikuspegi soziologikotik ikusita, bada garrantzizko puntu bat euskalduntze-mugimendu honen barnean: euskara arazoizko epe batetan ikas daitekeela erakusten duela egunero. Arazo honetaz kezkatuak eta aspaldi batean lanean ari diren erakundeei

instantzia ofizialetatik oztopoak jarri eta, ondorioz, arazoak sortzea, tamalgarria izango litzateke.

Literaturgintza, eta orobat, euskal liburugintza gorantz joan da etengabe azken hiru urteotan, aurreko hamarkadan pentsaezinezko ziren mailalara ere.

Komunikabideen alorrean egoera ez da, agian, bestetan bezain baikorra: Euskal Irrati-Telebista martxan jartzeak ekarri duen aurrerapauso garrantzitsuaz at, gainerako komunikabide idatzi eta ikusentzunezkoek orain dela bospasei urtetako egoera berdinari baitarraikiote orobat.

Administrazio publikoaren esparruan, hartutako erabaki eta bultzatutako ekintza puntual batzuren garrantzia ukatu gabe, esan beharra dago ez dagoela oraindik politika bateratu, koordinatu eta eraginkorrik.

Hauek dira, gure ustetan, euskararen egoerari buruzko daturik oinarritzkoenak. Argi dago, beraz, egiten diren ahaleginak —txalogarriak izanik ere askotan— ez direla aski hizkuntz ordezkapenaren aldeko indar-oreka gainditzeko, eta euskararen normalizazio osoak neurri eta erabaki zorrotzak eskatzen dituela, orain artekoak baino zorrotzagoak bederen. Neurrioren eta erabakion eraginkortasuna ez da, ordea, sakonean lortuko, hizkuntz normalizaziorako plangintza orokor baten barnean definitu, zehaztu eta koordinatzen ez badira.

2. Zenbait plangintza-entsegu Gipuzkoan

Plangintzaren beharra eta eredia

Azken lau urteetan zehar Gipuzkoan burutu diren hizkuntz plangintzarako programen balantze laburra egin aurretik, komenigarria da eite horretako zereginak bere gain hartzeko, nahiz eta partzialki bakarrik izan, Administrazioa bultzatu duten faktoreak aipatzea.

Lehenik, gogorarazi behar da euskara-hiztun den biztanleriari dagokionez, indizerik handiena ematen duena dela Gipuzkoa (1981eko Zentsu-azterketaren datuen arabera) eta hori nahiz eta alde izugarriak ematen diren eskualde ezberdinetan. Hizkuntz komunitatearekiko kontzientzia handiagoaren oinarria da datu hori,

eta ondorioz presio eta herri-ekimen handiagoaren existentzia hizkuntz normalizazioaren alde.

Bigarrenik, kontutan hartu behar da biztanleria gipuzkoarraren demografi banaketa berezia, nahiko txiki diren udalerrri ugaritan sakabanatua (50.000 biztanle baino gehiagoko bi udalerrri bakarrik, Bizkaian sei dauden bitartean eta lurralde horretako biztanleria osoaren ia % 57 osatzen duena), honek hein batetan plangintza-programa helkor eta eremu murrizturakoa aplikatzeko ahalbidea faboratuko bait du.

Eta azkenik, Administraritzza autonomoaren hizkuntz politikaren atzerapenak, definizio ezak eta mugapenak, lurraldeko egoera soziolinguistikoak argi eta garbi eskatzen zituen ekimen batzu hartzera bultzatu zuten Gipuzkoako Diputazioa, kasu honetan.

Egia esan, orain arte hartutako ekimena ez dela izan propioki normalizaziorako plana aipatu behar da, argitasun osoz definitutako helburu, ekintza, bitarteko eta abarrekin. Horrelakoetan behar den zuhurtasunez, eremu murriztuetan egindako plangintza-entsegu puntualtzat hartu behar dira, eta berorien garrantzia izatera propioaz mugatuta egongo da; funtsezko interesa, gure eritziz, *a posteriori* eskaintzen duten analisia egiteko posibilitatean datza, bestalde.

Hizkuntz plangintzarako jadanik klasikoa den ereduak, zeinari parlamentu autonomoek —eta bereziki euskaldunak— onartutako normalizaziorako lege guztiak atxeki bait zaizkio, administraritzza, komunikabide eta irakaskuntza alorretara eramaten gaitu, hizkuntz komunitate jakin baten etorkizuna absolutuki jokatzeko den eremutzat hartuz beroriek. Ondorioz, Administraritzaren ekintzak Euskal Herrian, eta hertsikiago Gipuzkoan, arlo hauetara mugatu dira ia soilik. Gai horiek duten konplexutasun izugarriaren analisi xehatua egitera sartzeke, gai horietan normalizaziorako politikak dituen arazorik larrienak aipatuko ditugu ondoren:

— Funtzionarien beharrezko hizkuntz birtziklaia motelegi egiten ari da, eta aurrerantzean birtziklatutako funtzionarioei euskaraz beren zeregina betetzeko posibilitatea bermatzeko behar diren bitartekoak jartzeke.

— Komunikabideek, Autonomi Elkarteak sortutako propioetatik at, ez dute inola ere normalizazio-prozesu honetan eskuhartzen, benetan egoera larria gertatzen delarik TVE eta idatzizko komunikabideetan.

— Irakaskuntzak, ahalegin handienaz ihardun den alorra izanik ere, irakasleen birtziklaia, materialeen zuzkidura eta baita halaber aplikatzen ari diren hizkuntz ereduaren emaitzen benetako kontrol eza eta abar ditu arazorik larrienak aurre emateko.

Lau urtetako politikaren ondoren

Egia da, bestalde, Administarritza autonomoak eta Gipuzkoako Diputazioak elkarrekin burutu dituzten programa batzutan emaitza bikainak ere lortu direla, liburu-produkzioari emandako diru-laguntzak lekuko, ekintza honen bidez euskarazko liburuaren bolumena bikoiztu egin bait da hiru urte baino epe laburragoan; beste alor batzutan ere ahalegin garrantzitsuak egin direla azpimarratu behar da (bereziki, esan dugun bezala, irakaskuntzan). Baina guzti honek ez du esan nahi politika koordinatu, mediatu eta eraginkorra garatzen ari denik.

Gipuzkoako Diputazioaren lau urtetako hizkuntz politikaren esperientziak argi eta garbi azaltzen du sustatu diren ekintza askoren eraginkortasun eskasa, haren filosofia normalizatu nahi zen hizkuntz iharduera zeramaten bitartekoei diru-laguntzak ematean bait zegoen finkatua. Orientabide horren antzutasunak adierazten digu inolako ezpairik gabe normalizaziorako edozein planen entsegu edo hurbiltzeak Administarritzak duen *botere behartzaile politiko eta sozial* osoa buruz eta zentzuz erabili behar duela. Hauxe bera da hain zuzen, benetako borondate politiko ezaren beldurrez, gaur egun arte ez duguna ezagutu Euskal Herrian.

Hizkuntz politikak, bestalde, errealitate sozialean eragina eduki behar du, bere baitan garatzen bait da gatazka linguistikoko izkutu edo agerikoa. Horregatik hain zuzen kontsideratzen dugu plangintza-iharduera ororen nahitaezko abiapuntutzat gure komunitatearen egoera soziolinguistikoa sakonki ezagutzea.

Lan honen lehen atalean jadanik aipatu den bezala, ikerlan soziolinguistikoen arloa oraintsukoa da eta ez hain oparoa, eta azpimarratu behar da gizarte-sektore eta adin-maila ezberdinen arteko euskararen erabilpenaren dinamikari eta dinamika horretan eragiten duten faktoreei buruzko datu aski murriztuak daudela. Hori ez da, ordea, arrazoi, burutu diren lanetatik lortutako datu eta emaitzak alde batera uzteko, berorien eshaustibotasuna, bestalde, guztiz nabaria bait da.

Zentzu honetan homogeneousazio eza nabaria da eta Gipuzkoari

dagokionez, normalizaziorako planak ez zaizkie guk aipatutako emaitzei egokitzen. Euskararen erabilpenaren dinamika Gipuzkoan bi desberdintasun-motaz itxuratua aurkitzen da:

a) Lurralde-desberdintasunak: Eskualde batzuetatik besteetara euskararen erabilpenean ematen diren desberdintasun izugarriei dagokie, nahiz eta ezagutza eta erabilpenaren arteko 2tik 1erako korrelazioa oro har mantentzen dela dirudien. Gipuzkoako eskualde batzu, eta batez ere Bidasoa Behea, erabilpen-indize hauekin ados, «alerta gorriko» deklaratu beharko lirateke aplikatu beharreko politikaren ikuspegitik.

b) Adin-mailako desberdintasunak: Adin-maila guztietan erabilpen-indizea ezagutzarenaren erdira jaisten delako konstantea behatzen da berriro ere, piramidearen maila gorenengoetan alde txikiagoak eman arren. Datu bat, hala ere, gailentzen da nabarmenki: 15-25 urte dituztenen artean jaitsiera nabarmenagoa da. Datu honi buruz egin daitekeen interpretazioari begiratzeke, begi-bistakoa da gazteria dela oro har hizkuntz ordezkapenaren prozesuaren ondorioak gehien jasaten dituen.

Bi gertaera hauek baldintzatu beharko lukete Administrazion politikaren logika zuzenean, eskualde bakoitzeko egoera soziolinguistikoko propioaren arabera era malgu eta ezberdinak hartu eta botere nazional eta multinazionalak inposatzen duten kultur eta ideologi ereduaren uholdea (gaur egun gaztelaniak eskusiboki monopolizatzen dituen ereduak hain zuzen) indar handiagoz jasaten duen gazteriarengana orientatuz ahaleginik handienak.

Honen aurrean egun arte bultzatu den hizkuntz politika beti bezalako uniformetasunak karakterizatzen du, eta batik bat gaztea den biztanleriarentzako erreferentzia erakargarriagoa sor eraziko luketen ekintza irudikorrek proposatzeko orduan fruitu gutxiak azaldu da. Ez da aiantzi behar 1981eko Zentsuaren arabera Gipuzkoako 82 udalerrietako 48k 20 urte baino gutxiagoko gazteen kopurua Autonomi Elkarteak batezbestekoaren (%34,4) berdina edo gehiagoko portzinoa dutela.

Kontestu honetan, hizkuntz normalizazioari buruzko sentsibilizazio-kanpainak bide baliotsuak izan daitezke, gizarte-bizitzaren eremu ugarian euskararen erabilpena hertsatzen duten faktoreak aldatzeko. Hauen baliagarritasuna sinesgarriki frogatua geratu da beste herri batzuetan (Québec, Katalunia...) eta geurean bertan ere, non Tolosaldeak adibidez nabariki indize handiagoak erakusten bait ditu hizkuntzaren erabilpenean, beste gauza batzuren artean sentsibilizazio-kanpaina sakonen fruitu dena hain zuzen. Admi-

nistraritza autonomoak, ez du ematen oraindik horretaz jabetu denik: zalantzan eta eszeptiko segitzen du edozein motatako kanpaina publikoen aurrean. Hortaz Gipuzkoa da Diputazioak egingako sensibilizazio-kanpaina orokorra ezagutu duen lurralde bakarra. Haren eremua txikia eta denbora eta baliabideak mugatuak izan arren, baieztza dezakegu aldeko erantzuna jaso zuela sektore zabaletan.

Ez dugu bukatu nahi azalpen labur hau beharrezko den gogoe-ta bat egin gabe: azaldutako kontsiderazioak Gipuzkoako egoera soziolinguistikoa eta han aplikatu den politikan oinarritzen dira. Panorama, dena dela, lasaigarria litzateke Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldeko probintzietan euskararen normalizaziorako prozesuak aurkitzen dituen arazo kontaezin eta eskergak kontutan izango, bagenitu.

3. Udala eta hizkuntz normalizazioa

Sarrera

Herritarrekin duen harreman-maiztasuna kontutan izanik, Udal-administrazioa, betidanik, lehen mailako erakunde adminis-tratibotzat jo izan da. Euskal Herriko eskualde gehienek fisono-miak ere horretara bultzatzen du, biztanlegoaren gehiengo oso sakabanaturik bait dago udalerrri desberdinetan zehar. Udalen gar-rantzia oso handia da Euskal Herriko bizitza soziopolitikoan. Garrantzi horrek berak, sekulako erantzukizuna ezartzen die gure Udalei, euskararen normalizazio linguistikoa.

Administrazioaren eta Udalen normalizazio linguistikoa —gaur egun jasaten ditugun mugen barnean bada ere— sekulako balio soziala emango lioke euskarari eta euskaldunok administra-zioarekin dugun hainbat errezelo suntsituko. Herritar arruntak administrazioaren hizkuntza, prestigiozko hizkuntzat hartzen bait du, eta beharrezkotzat.

Dena dela, ezin dezakegu ahantz, Administrazioaren euskal-duntzea norabide desberdineko bi indarren artean kokatzen dela:

a) Goitik datozkion presio eta mugak:

- Legeria: Gaur egun, euskarari, normalizaziorako mini-

moak ukatzen dizkiona (eta hau edozein planteiamendu politikotatik kanpo baieztatu daiteke).

- Gaietik dituen erakundeak: Diputazioa, Jaurlaritza eta Estatu mailakoak. Udalak egokitu egin behar du bere politika, gainetik dituen aginte hauek ezartzen dioten markora.

b) Herri mailatik jasotzen duen presioa:

Euskara normalizatuko bada, dinamika sozial baten eraginez izango da. Legeak eta erakunde politikoen presioa ezinbestekoa bada ere, herriak ez badu hizkuntzaren normalizazioa onartzen eta bultzatzen, gureak egin du.

Azken urteotako esperientziak garbi erakusten digu gainera, Udal mailan euskararen arazoa serio samar hartu den lekuetan, atzetik herri-presioa egon delako izan dela.

Bi presio horien arteko tentsioan, Udalek bi alorretan egin behar dute lan:

- a) Barrura begira: Udal-barneko bizitza euskaldunduz, eta euskara Udalaren bizitzaren lehen hizkuntza bihurtuz.
- b) Kanpora begira: Herriak, lekuoro eta uneoro euskara erabil dezaten bultzatuz. Horretarako, herriko bizitza soziala euskalduntzen saiatu behar du, eta herritarrek administrazioan euskara erabil dezaten bultzatu.

Orain arteko esperientziak udal mailan

Ondoren egingo dugun azterketa Komunitate Autonomoko hiru probintziei dagokie batipat, bai Iparraldean eta bai Nafarroan, erabaki sinboliko huts batzuez gaiz, ez bait da ezer aipagarriak egin euskararen normalizazio mailan orokorki.

Iruñearen kasuan, laster euskararen itzultzaile-dinamizatzaile bat hartzera doaz, baina ez dakigu zein mailataraino bultzatuko duten pertsona honen lana eta zein neurritaraino zabalduko den enpleu hau probintzian zehar.

Goazen, bada, historia labur eta, beraz, azaleko bat egitera.

Franco hil ondorengo urteotan, Hego Euskal Herriko Udal-Administrazioak —eta administrazioak orokorki— euskararekin izan duen jokabidea aztertuko bagenu, zera esan beharko genuke: Ez dela euskaldun bizitzeko erabakirik hartu.

Transizioaren lehen urteetan Euskal Herriko herri gehienetan euskararen aldeko mozioak onartu baziren ere, ez lirateke dozena-erdira iritsiko konpromezu haiek benetan betetzen saiatu diren Udalak. Mozio haiek, printzipio batzuen onarpenera mugatu ziren, baina printzipio haiek aurrera eramateko hartu behar ziren neurri praktikoak ez ziren hartu.

Erdararen inertziak, euskararen normalizazio-nahia ito egin zuen.

Ondoren, itzultzaileen aroa dator. Udal askotan itzultzaile-postuak agertzen hasten dira, baina inolako planifikaziorik gabe: itzultzaileen egoera zeharo desberdina da herri batetik bestera, bai egoera laboralaren aldetik —soldata, lanordu eta lan-maila desberdinak— nola betetzen dituzten funtzioen aldetik —aktak bete eta itzuli, eguneroko paperak itzuli, funtzionarioei euskaraz klaseak eman edo herriko berreuskalduntze-prozesua bultzatu.

Guzti honek itzultzailea, administrazioaren pieza folkloriko bihurtzen du. Erdaraz funtzionatzen duen erdal administrazioaren erdian, euskararen irla.

Itzultzaileen urratsarekin gertatu den aldaketa —salbuespenak albuespen— koantitatiboa izan da soil-soilik. Euskararen erabilpena maila sinbolikora baztertu da —inprimakiak, ekintza-egitarauak, argitalpenak, seinalizazioa, etab.—, baina barneko bizitza administratiboak, beti bezala, eradaraz jarraitu du, lasai-lasai.

Egoera honen aurrean, herri mailako taldeen ugalketa ezagutu dugu azken bizpahiru urteotan — batzuk lehendik funtzionatzen bazuten ere: Arrasate Euskaldun Dezagun, Lasarte Berreuskalduntzeko Taldea, Tolosaldea Berreuskalduntzeko Elkarte, Euskal Herrian Euskaraz taldeak, etab.

Talde hauek maila askotako kezkak biltzen badituzte ere, euskararen mailan, kezka nagusienetako bat eta komuna denentzat, Udala izan da.

Horien sorrera-txostenak eta ondorengoak, hala nola Udalarekiko planteiamenduak irakurriz, bereizgarri nagusi hauek aipa ditzakegu:

- a) Udalek, alderdiek eta beste erakundeek euskararekiko azaldu duten axolagabekeria salatzen dute, denek.
- b) Herri mailako presio eta mobilizazio soziala ezinbestekotzat jotzen dituzte euskararen berreskurapenerako.
- d) Udalak, euskararen normalizazio-prozesuan paper garrantzitsu bat jokatu beharko lukeela erizten diote.

Planteiamendu hauen aurrean, Udalen aldetik urrats berriak eman dira eta nagusiena zera izango litzateke: teorikoki bederen, onartu dela Udalek bide eta bitarteko berriak eskaini behar dituztela euskararen normalizazio-bidean, gehienetan, oraindik ere, neurririk hartu ez bada ere (sarri, arazo politikoengatik).

Alde honetatik 3 jokabide nagusitan bana genitzake emandako urratsak:

- a) Kultur Batzordeen bidez, lehen mailako urratsak eman: Arrasate, Lekeitio, Goierri, etab.
- b) Itzultzaileari dinamizatzailer papera eman: Laudio, etab.
- d) Euskara-Zerbitzuak sortu: Egun Tolosan eta Gasteizen funtzionamenduan dagoena, Eibarren geldirik, eta zenbait lekutan sortzear.

Azken bolada honetan kontratatzen ari diren itzultzaileak ere, teorikoki behintzat, itzultzaile-dinamizatzailer bezala ari dira kontratatzen: Irun, Iruñea, Oñati, etab.

Hala ere, esan beharra dago, oraindik ere Udal askok ez diotela euskarari sarbiderik txikiena ere eskaini, eta hori gaur egungo Euskal Herrian gertatu ahal izateak berak, politikoki dagoen konzientzi maila eskasa salatzen duela.

Beharrezko zenbait baldintza

Euskararen normalizazioa Udal mailan —eta beste maila guztietan— bultzatzeko, baldintza minimo batzu bete behar dira, pentsaezina delarik, hainbat aldiz entzun dugun bezala, euskara «borondate onez» soilik salba daitekeena.

Hasteko eta baldintza nagusi bezala, borondate politikoa jarriko genuke. Udalek —eta beraz, osatzen duten alderdi eta zinegotziek— euskaldun iharduteko borondaterik ez badute, hartuko diren neurri guztiak folklorismoan amiltzera deituak daude.

Zoritzarrez, orain arte, oso-oso kasu gutxitan topatu ahal izan dugu euskal politikagintzan euskaldun bizitzeko borondaterik, eta aurkitu izan dugunean, beti, aukera pertsonalaren baitan egon den erabaki batengatik izan da, eta ez partiduaren edo talde politikoa-ren erreflexioz eginiko aukera batengatik.

Oraindik ez da sistematikoki zalantzan jarri Udaletan zein hizkuntzatan garatuko den Udal-bizitza (Udal txikiren batetan ez bada). Inplizitoki, garbi egon da beti, administrazioaren funtzio-

namendua erdaraz izango dela. Eta euskaraz zerbait behar bada, hor dago itzultzailea. Hainbeste kritikatu dugun legeria nagusiak ezartzen digun eredu bera aplikatu izan ohi da Udaletan, inertziaren eraginez: erdarak eskubide territorialak ditu Udalean (Udal guztiaren funtzionamendua erdara hutsean desarroilatzen da) eta euskarari eskubide pertsonalak ematen zaizkio (norbaitek hala nahi bada, itzuliko zaio), alderantziz izan beharrean.

Eginiko esfortzu guztiak, beraz, hutsalak dira, korporazioki-deek euskararen normalizaziorako borondate politikorik agertzen ez badute. Eta hemen zinegotziak euskaldunak izatearen arazoarekin topatzen gara. Nola bultzatuko du euskararen normalizazioa, bere burua euskaldundu ez duen norbaitek? Ezinezkoa da.

Bestalde, neurri konkretuak hartu behar dira, lan eraginkor bati heldu ahal izateko eta horretarako Udalak bitarteko batzuz hornitu behar du:

- a) Baliabide politikoak: Normalizazio linguistikoari bide berezi eta propioak eskaini behar zaizkio, Udalaren beste edozein arazori eskaintzen zaizkion modu berean. Erdi-mailako Udaletan eta Udal handietan, biderik egokiena Udal Batzorde Informatiboa sortzea litzateke, esperientziak frogatu bait digu, euskara beste arazoren batekin elkartzen bada, beti, azken mailako arazotzat hartzen dela.

Batzorde honetan, euskaraz arduratuko diren zinegotziek —ahalik eta talde politiko gehien inplikatur—, euskararen inguruan herrian mugitzen diren talde edo erakundeen ordezkariak eta Udal mailan euskaraz arduratzen diren langileak hartuko lukete parte.

- b) Baliabide teknikoak: Ezin daiteke pentsa jadanik, ikusiak ikusita, berreuskalduntze-prozesua «borondate ona»ren bidez konpon daitekeenik. Euskararen normalizazioa arazo tekniko ere bada, eta horren soluzioan teknikoek zeresan handia daukate. Alde honetatik, ezinbestekotzat jotzen dugu, Euskararen Normalizaziorako Zerbitzu Teknikoak sortzea, eskualdeburuetan bederen.
- d) Baliabide ekonomikoak: Euskararen normalkuntzak dirua eskatzen du. Erdara inposatzea diru asko kostatu zen, eta gaur egun erdararen mantentzeak imajina ere ez ditzakegun kopurutara eramango gintuzke. Hizkuntza berreskuratu den nazioetan esfortzu ekonomiko serioak egin dira alor honetan. Beraz, Udal mailako normalizazio-plangintza batek aurrekontu arruntaren % egoki bat izan behar du.

Lan-metodologiarako proposamena

Helburua Euskal Herriaren euskalduntzea izanik ere, bistan da dinamika desberdinetatik abiatu behar dela, eskualde desberdinetan. Hala ere, lehen aipaturiko baliabideak eta orain aipatuko dugun metodologia, eskualde euskaldun batetatik sortua bada ere, beharrezko aldaketekin Euskal Herri guztian aplikatu daitezkeela uste dugu.

Hemen aurkezten duguna, bestalde, proposamena da, azken urteotan Tolosaldean eraman dugun lanean oinarrituta sortu den proposamena, eta beraz, kritika, moldaketa eta aportazio guztiei irekia.

Udal baten lana bi mailatan eraman behar da, arestian esan bezala: a) Udalean bertan, eta b) Udalerrira begira, eskualde-ikuspegi batetan.

a) Udal barneko euskararen normalizazioa

Hitzak dioen bezala, euskararen normalizazioaren helburua, euskara «normal» erabiltzea da. Bizitza sozialaren alor eta esparru guztietan, euskara, gaur egun erdara erabil dezakegun bezala erabiltzea: euskaraz hitzegitea, erdaraz hitzegitea bezain gauza tonto eta ximple bihurtzea.

Udal barnerako helburua ere, honek izan behar du. Ez dugu uste «elebitasuna» —hizuntzen arteko harreman eta erabilpen orokatu bezala— planteia daitezkeenik; bizitza arruntean baino areago, Udalaren funtzionamenduan, arintasun- eta esfortzu-ekonomiak hizkuntza baten erabilpena bultzatzen duelako derrigor.

Itxaron gabe har daitezkeen neurriez gain (errotulazio publikoaren eta barne-dokumentazio guztiaren normalizazioa, inprimakiak, etab.), bi dira bultzatu beharreko dinamikak:

a.1.) Barne-bizitza euskalduntzea

Neurri eta urrats garrantzitsuenak hauek lirarteke:

- Birtziklaia. Lehendik dauden langileak birtziklatzeko plangintza burutu behar da. Arazo hau hain larria izanik, garrantzizkoa litzateke Diputazioek, Jaurlaritzak edo Nafarroako Parlamentuak, alde honetan, birtziklai plangintza orokorrak prestatzea, ikastaro trinkoak antolatuz eta

ordezko pertsonak aurkituz (IRALeren antzeko zerbitu administrazio mailan).

- Euskalduntze-plangintza: Udal guztia erakunde homogeen bailitzan hartu beharrean, plangintza hau sailez-sail plan-teiatu beharko litzateke, dependentzia guztietan euskarari atea lehenbailehen irekiz eta bertako langileen adin, kul-tur eta euskara maila eta maila profesionalak kontutan izan-nik, plangintza murriz batzuan antolatu. Guztiz garrantzi-tua da plangintza honetan Udal mailan, hizkuntzaren transmisiorako gure klabeak lokalizatu eta euskalduntzea.

Kontutan izan behar den beste faktore bat ere, hierarkiza-zioarena da. Euskalduntze-prozesurako garrantzi han-diena duten pertsonak, goi-mailako postuak dituztenak dira —idazkaria, kontuhartzailea, zerbitzu-burua, etab.—, horiek bait dira gehien produzitzen dutenak.

- Euskararen barne erabilpena: Lehen epe batetan, lehentasuna herrira irteten den produkzioari eman behar bazaio ere, sailez-sail zenbait alor konkistatuz joan behar du euskarak. Barne erabilpenaren plangintza hau, sail bakoitzeko euskalduntze-plangintzarekin lotua joango da.
- Langile berrien kontratazioa: Euskara eta gaztelania, ofizia-lak direnez (Nafarroako kasu bereziarekin), guztiz logikoa da administrazioan sartu behar duen funtzionariak bi hiz-kuntzok jakin beharra.

Funtzionaria, indarreango legeriaren mende dago eta pu-blikoaren zerbitzuan. Publikoa zerbitzatu behar du, eta ez publikoa bere mende jarri, bi hizkuntzak menderatzen ez dituelako.

- Epeak eta diruak: Urrats guzti hauek, Udala euskalduntzeko plangintza baten barnean kokatuko lirateke. Plangintza honetan epeak, beharrezko baliabideak eta diruak zehaz-tuko lirateke.
- Zinegotzien eta herri-presioaren garrantzia: Azken batetan, Udal barneko euskalduntze-prozesuaren eragilerik nagusienak zinegotziak eta herritarrak dira. Zinegotziek ez ba-dute euskara erabiltzen, eginiko lan gehienak alferrikakoak izango dira, barne-bizitzak erdaraz jarraituko bait du, eta bestalde herri-presioa gertatuko da eragile nagusi. Herrita-rrek euskara errebindikatu eta exijitzen badute, Udalaren

engranaia guztiek mugitzen hasi beharko dute erantzun egokia eskaintzeko.

- Udal-hauteskunde berriak: Alde honetatik, une historikoa gerta daitezke euskararen normalizaziorako datozen Udal-hauteskundeak. Euskal Alderdiak ez badute esfortzu serio bat egiten, datozen hauteskundeetan aurkeztuko dituzten zinegotziak euskaldunak izan daitezten, beraien, eta ez beste inorena, izango da euskara normalizatu ezinaren errua.

a.2.) Kanpoarekiko harremanak

Kanpoarekiko harremanen helburu hurbila eta epe motzera-koa, euskararen presentzia eta lehentasuna garantizatzearena litzateke. Horretarako bi galbahe ezarri behar dira:

a.2.1.) *Udaletik irteten dena*: Irteten den guztia euskaraz edo elebidun irten dadin garantizatu behar da, horretarako epe bat jarritz. Publikora irteten den dokumentazio guztiaren zentsoa egin eta lehentasunak markatu, garrantziaren eta giza errekurtsoen arabera.

Prozesu hau ere, funtzionarien alfabetatze-euskalduntze prozesuarekin batera joango litzateke.

a.2.2.) *Udalera sartzen dena*: Erakunde ofizialei exijitu egin behar zaie, bi hizkuntzak ofizialak direnez, Udalak haiengandik jasotzen duen dokumentazioa gutxienik elebidun iritsi dadin. Honen bidez, gainera, euskararen aldeko zirkulu bat osatuko genuke, beste erakundeetan ere exijentzia berriak planteiatuko bait litzuzke.

Herritarrak eta erakunde eta talde ez ofizialak bultzatu eta intentsibatu egin behar ditu ere, Udalarekiko harremanetan euskara erabil dezaten.

b) Udalerriko bizitzaren normalizazioa

Alor hau, Udal mailan baino, eskualde mailan planteiatzea ego-kiagoa litzateke, Euskal Herriko egituraketa ikusita. Hiri handi eta erdi-mailakoetan ere, auzokako barne-zatiketa bultzatu beharko litzateke, sektorekako lana aurrera eramateko.

Logikoa da, herrira begira ezein kanpainari hasiera eman baino lehen, Udalak, Udalarekiko neurriak hartuak izana. Ezin daiteke kanpora begira ezer exiji, barrura begira ezer egin ez bada.

Herria euskalduntzeko biderik egokiena, herriko bizitza soziala gizarte-sektoretan banatzea iruditu zaigu.

Udalak, herriko gizarte-sektoreekin harremanetan jarri behar du, eta koordinazio baten bidez, herritar, gizarte-sektore eta gizarte-mugimenduen kontzientziazio linguistikoa sendotu, euskararen erabilpenerantz (edo ikasketarantz, erdaldungoaren kasuan eta zonalde erdaldunetan).

Leku guztietara iritsiko den giza sarea antolatuko da sektoreen bidez, sektorez-sektore koordinatuko dena eta Euskara batzordearekin harreman zuzena izango duena.

Euskara batzordeak «negoziaketa» batzu izango ditu sektore eta talde bakoitzarekin euskalduntze-prozesuari buruz. Elkarrizketa hauetatik egitarau bat irtengo litzateke eta aurrera eramateko urrats- eta ekintza- programa. Hau sektorez-sektore eta taldez-talde egin beharreko lana litzateke.

Hauek lirateke gure ustez herri batetan koordinatu beharreko sektorerik garrantzitsuenak:

- Irakaskuntza: Ikastetxe, akademia, Euskaltegi, etab.
- Erakunde Administratiboak: Epaitegia, Posta, Renfe, etab.
- Solas, Kirol eta Kultur talde eta elkarteak.
- Alderdi eta sindikatuak, Herri-mugimenduak.
- Lan-mundua.
- Merkataritzaren mundua: Denda, taberna, diruetxe, etab.
- Profesio liberalak.
- Herriko komunikabideak.
- Gizarte-laguntzarako erakundeak.
- etab.

Sektore eta leku bakoitzean, urrats hauek eman beharko lirateke, etapa bakoitzean, bertako laguntzaileen bidez:

- Euskararen egoeraren diagnosis.
- Sektore horretan egin daitezkeen ekintzak edo kanpainak pentsatu eta egokitzea.
- Urrats berri bakoitzaren segimena eta kontrola.

Duen garrantziagatik, Udalek hezkuntza mailan duten erantzukizuna azpimarratu behar da, eskolatzeko-aroa bukatzen duten gazte guztiek euskara ondo mendera dezaten.

Hezkuntza-Junta antolatzeak Udal edo eskualde mailan, asko laguntzen dio helburu honi. Zer esanik ez, Junta horretan euskararen arduradunek leku berezia behar dutela.

Udalak ere, ahal duen neurrian bere boterea erabili behar du herritar talde eta erakundeen artean euskararen erabilpena segurtatzeko. Har ditzakeen neurrietako batzu hauek dira:

- Subentzioak, Udal-instalazioak edo materialeak uztea edo edozertarako baimena eskatzen duten taldeei euskararen lehentasunezko erabilpena exijitzea, eta betetzen ez badute, neurriak hartzea.
- Propaganda euskaraz egiten duten merkatal etxeei, Udal-zerga gutxitzea.
- Euskararen zenbait erabilpen primatzea.

Herri mailako beste kanpaina eta ekintza isolatuak, lan honetarako sostengu eta lagungarri izango lirateke.

Udalak, noski, euskararen azpiegitura herritarren esku jarriko du, behar dutenean erabil dezaten hainbat zerbitzu doanekoren bidez: Zuzenketa- eta itzulpen-zerbitzua, Kexu- eta iradokizun-buzoia, Aholkularitza-zerbitzua.

I.L. - G.E. - K.A.

Elebitasuna Euskal Herrian: teoria eta egoera

Iñaki Müller

1. Hizkuntz kontaktuei buruzko teoriak

Elebitasun-teoriei buruzko eztabaidetan, elebitasuna indibiduala ala soziala den kontu, erabiltzen diren ikerketa-abiapuntuak psikologo eta psikolinguistenak, soziologo eta soziolinguistenak izaten dira.

Desberdintasun metodologiko hauekin batera eta elebitasunaren eta diglosiaren definizioak desarroilatzen hasi baino lehen, postura hartu nahi nuke elebitasun-teorien problema orokorrago bati buruz. Eta hain zuzen ere, elebi- edo eleaniztasunek hizkuntz teoria orokor baten barruan hartzen duten lekuaz, eta honek elebitasun sozialaren eta indibidualaren arteko harremanean duen eraginaz.

1.1. Saussure-ren hizkuntz eredu binarioa

Elebitasuna eta diglosia, Saussure-ren dikotomian *hizketa-ri* (*parole-ri*) dagozkio biak. Biak iharduten dute zeinu-sistemazko errealizazio konkretuaz, hizkuntzaz (*langue-az*).

Banaketa hau, gutxienez ere, eztabaidagarri iruditzen zait neri, pentsatzen baldin bada, hizkuntz erabilera indibidualaren,

langue-ren, maila eta hizkuntzaren sozialki eta kulturalki markatu eta definitutako erabilera-eredua lapiko berean sartzen direla. Badirudi, ezabatu egin dela hizkuntzaren eta kulturaren arteko erlazioa.

Sozialki finkatutako hizkuntz usaerako aspektuetara hobeto hurbildu ahal izateko, Eugenio Coseriu-ren eredu batean apoia-tuko naiz ni. Bere *Sistema, Norma y Habla* izeneko liburuan¹ Saussureren *langue*-a sistemaren pareko egiten du; *parole* kontz-zeptua, berriz, arau sozialean eta hizkuntz aktu indibidualen azpizatitzen du. Buruera hau zerako ideia orientatzen da: sis-tema sozial ideala den *langue*-ren eta horren aplikazio indibidual konkretua den *parole*-ren artean hizkuntz usaera sozialezko maila ezberdinak daudela, Sanchez Carrión² *parole sociale* baten ager-tzeko formak deitzen dituenak. Azpian datzan gogoeta da, indibi-duoak ez duela indibiduo bezala iharduten, aitzitik talde bateko kide bezala iharduten duela ohiki, eta talde horren barruan direla haren iharduerak esanahidun.

Zentzuzko iruditzen zaizkit gogoetok, kultura eta ingurune soziala isolatzen dituen ikusmolde elebitasunari buruzkoaren kon-tra iharduteko.

1.2. Elebitasuna

Linguistikak elebitasunean aurkitzen zuen interesa zeratan ze-goen batez ere, alegia, hizkuntzek elkarren artean egiten duten ele-mentu-trukaketan, edo hizkuntza horien artean sortzen diren in-terferentzietan.

Elebitasuna aztertzeke ikuspegi berriak U. Weinreich-ek ekar-zen ditu bere obra *Languages in Contact*³ izenekoan.

Nahiz eta bera ere interferentzien tematikaz arduratua egon, teoria psikosozialak eta soziokulturalak ere sartzen ditu bere go-goetan.

Elebitasuna aztertzeke erizpide nagusia *fluency*-a edo hizkun-tzaren jakite-maila da. Eritzi hau, galdetu pertsonen estimazioan oinarritzen dena da, baina hainbat hizkuntzalari ere badira hori ja-raitzen dutenak. Hala Thiery-k:

A true bilingual is someone who is taken to be one of themselves by the members of two different linguistic communities, at roughly the same social and cultural level.

Pentsaera honen ondorioa da, norberaren edo bigarren hizkuntza, elebakarraren trebetasunez hitzegiteko gauza ez den hitzegile ezin daitekeela elebikotzat jo, aipatu definizioaren arabera. Hau dela ta bere *fluency continuum* delakoa txertatzen du hemen Mcnamara-k. Hizkuntza batean hitzegin, idatzi, irakurri eta ulertzeko duen gaitasunetik ederki neur daiteke test-pertsona batek duen hizkuntz trebetasuna. Halere nahiko lanbide zaila da hau, eta nahaspideak sortzen dituena ere bai, zeren hizkuntzaren usaera soziokulturalaki egon ohi bait da arautua. Sarritan, test hauetan ez dira behar bezala bereizten, hizkuntza bietako bakoitza zein eremutan erabiltzen den.

Fluency-aren estudioa, elebitasunaren ikuspegi psikosozial baten ondorioz, gainditua eta ordeztua dago. Ikuspegi honek aztertzen duena, hizketa-egoerak, hizketa-lagunek eta hizketa-gaiak hizkuntzaren erabileran duten eragina da.

Weinreich eta Mackey-k, hizkuntza bi edo gehiago txandaka erabiltzea bezala definitzen dute elebitasuna.

Elebitasuna aztertzeko Mackey-k proposatzen duena da, hizkuntzen desarroilo indibiduala eta menperatze-maila. Gainera hizkuntza batetik bestera aldatzeko trebetasuna deskribatu behar litzateke. Honetan hauteman behar da, zein interferentzia aurkitzen diren *parvole*-ren mailan eta zenbaterainokoa den hibridazioak *langue*-ren alorrean hartu duen hedadura. Laugarren eta azken puntu bezala, autuko hizkuntzok betetzen dituzten funtzioak zein diren zehaztu behar dira.

Definiziotan zehar egin dugun bide luzesko hau beharrezko iruditu zait, elebitasunari buruzko estudioan dagoen abiapuntuen baso hau piska bat bakandu eta argitzeko. Lan guztiaren emaitza: elebitasuna bi hizkuntza edo gehiago txandaka erabiltzea dela.

Besterik zer izan daiteke elebitasuna? Kontsidera ote daiteke, bada, elebitasuna glotofagiaren inguruko seinale bezala, hau da, hizkuntza azpiratuak azpiratzailearen aldetik jasaten duen deuseztearen seinale bezala?

Proba bat: Euskara-hitzegileek euskaraz hitzegiteko dituzten trebetasun-maila desberdinak lerroka ote daitezke, guk elebitasun-definizioak azaltzerakoan aurkitu dugun bezalako *continuum* baten barruan?

Laburbilduz hiru euskara-hitzegile-mota bereiz daitezke:

— sasi-elebiduna, edara oso gaizki menperatzen duena eta bere bizitzako alorrek, ia denak, euskararekin konpontzen dituena.

— definizioen araberako elebidun klasikoa, bi hizkuntzak berdintsu menperatzen dituen, baina hizkuntza aukeratzekoan beti bere gogora ez dauden datu funtzional batzuren arabera jokatu beharrean aurkitzen dena.

— sasi-elebiduna, euskaraz gero eta gutxiago dakiena edo sekula ondo ikasi ez duena, eta bere komunikazioa ia osoro erdaraz egiten duena.

Honen paraleloan, baina gizartearen mailan, hiru aldi bereizten ditu Calvet-ek⁴ glotofagi prozesuan: hizkuntza gainartzailearen hedatze bertikala (gizarte-mailak) eta horizontala (kalea/baserria) eta glotofagia akabatua. Elebitasunari dagokionez, bigarren faseak dauka antz puska bat euskara-hitzeileen hiru motekin.

Glotofagiaren etapa honetan elebakarrak izaten dira klase gainartzailea eta baserri-giroko biztanleria; hitzegiten duten hizkuntza ez da bera, noski. Kaleko jendea, berriz, elebidun izaten da.

Elebitasun indibiduala, gertatzen ari den hizkuntz ordezkapen baten seinale bezala har daiteke. Baina honek ez du oraindik esanahi handirik, ez bait da ezer esaten hizkuntzen arteko erlazioa nolakoa den. Datu horiek elebitasun sozialaren mailan bilatu behar dira.

1.3. Diglosia

Ferguson-ek⁵ *diglosia* terminoarekin, eleaniztasun sozialeko egoerak adierazten ditu: barietate ezberdinei gizartean zorrotz finkatutako funtzioak asignatu ondoren, beroriek kulturazko status berezi batez jantzen dituztenak. Banaketa funtzional honek adostasun kulturala aurkitzen du eta konplementarioki iharduten du gizartean, hizkuntzaren erabilera-arloek ez bait diote elkarri trabarik egiten.

Portaera eta balore-irudi desberdinak izaten dira hizkuntza bakoitzari esleitzen eta asignatzen zaizkionak eta hizkuntza bakoitzaren bidez adierazten direnak. Banantze honek ohiki goi-hizkuntza/dialekto aurkatasuna ematen du azkenean. Lehenengoa, (goi-hizkuntza) kulturarekin, hezkuntzarekin, ofizialtasunarekin lotua egoten da beti eta lehenetsia izaten da beti komunikabideetan eta hizkera idatzian. Bigarrena kaixotarera, lantegira mugatzen da, eta jendeak bere emozio-aldiak adierazteko erabiltzen duen hizkera izaten da bereziki.

Kontzeptuaren definizio nahiko estu hau ia hizkuntz kontaktuzko forma guztietara zabaltzen da Fishman eta Gumperz direla medio. Hala dio Timm-ek:

Since Fishman's extension in 1967 of the term diglossia... it has come to mean little more than the functional distribution of two or more languages or language varieties within a speech community.

Nola ageri da diglosia Euskadin?

Euskara menperatzen dutenak biztanleriaren laurdena diren bitartean, erdara ezagutzen dutenak ehunik ehun dira. Zirkuntantzia honek komunitateko sektore batera murriztuko luke elebitasuna Euskadin. Taldea diglosikoa da; hizkuntz aukera datu funtzionalen arabera egiten da.

Kontuan hartzekoa da gainera, bi hizkuntzen gaitasun funtzionalari ere asko falta zaiola simetriko izateko. Euskara eguneroko gauzetako eremu jakin batzutan bakarrik erabiltzen den bitartean eta, bere posibilitateei begiratuki, besterik ere ezin den bitartean, espainolarekin noranahi, eta nekerik gabe, iristen da bat.

Lan honek eramango duen desarroilorako garrantzizkoa iruditzen zait elebitasun indibidualak eta sozialak elkarren artean dituzten harremanak zernolakoak diren ikustea.

1.4. Elebitasuna eta Diglosia

Hizkuntz kontaktuzko egoerak Euskadin duen berezitasuna, elebitasun indibidualaren eta sozialaren existentzia da. Fishman-ek⁶ honela definitzen du harreman hori:

Diglossia and bilingualism may be said to exist wherever speech communities exist in which speakers

- (a) engage in a considerable range of roles (...);
- (b) wherever access to several roles is encouraged or facilitated by powerful social institutions and processes; and
- (c) wherever the roles are clearly differentiated as to when, where and with whom they are felt to be appropriate.

Hizkuntz aukera egiteko prozesu (c)an aipatzen diren etara mugatuko naiz ni ondoko lan honetan.

1.4.1. Hizkuntz aukera

Talde-barruko hizkuntz aukeraren azterketa mikrolinguistikaren eta makrosoziolinguistikaren arteko harremanen markuan

konsidera daiteke. Hizketa-situazio indibidual batean (mikro-eremuan) sarritan ohar daitekeena da, nola euskaraz hasitako elkarriketa bat bat-batean gaztelerara aldatzen den eta gazteleraz aurrera eramaten, gai bereziren bat (teknikoa, filosofikoa, etab.) hizketan sartu denean. Honen arrazoia izan daiteke, espainiera egokiagozat jotzen dela zenbait arazo tratatzeko, bat hizkuntza horretan bakarrik eskolatua edo entrenatua izan dela, edo simple simple euskaraz hitzegitea gai baten barruko gauza berezizat jotzen dela.

Hizketagaia, maila indibiduala aztertzeke baliagarri baldin bada ere, variable analitiko ez-aski bezala agertzen da, bilatzen dena mostra sozialaren edo arau soziolinguistikoen mailako hizkuntz portaerak aztertzea denean⁷. Aukera-mostra aski egonkorak aurkitzen ditu hark Schmidt-Rohr⁸ aipatuz hizkuntz portaeraren eremuetan. Azkeneko honek bederatzi zerok proposatzen ditu: familia, jolastokia eta kalea, eskola, eliza, literatura eta prentsa, armada, auzitegia eta administrazio publikoa.

Fischman-ek⁹, bere aldetik, honela definitzen du eremua:

...institutional contexts and their congruent behavioral co-occurrences. They attempt to summate the major clusters of interaction that occur in clusters of multilingual settings and involving clusters of interlocutors».

Eremu bakoitzean, erregulazio sozialen zentzuan burutzen da indibiduoaren portaera kongruentea. Hizkuntz portaera indibidualetatik bereiz daitezke eremuak, bereizi, baina testuinguru instituzionalizatuan (makro) aukera egiteko erizpideak ulertuko badira, aukeraren konstante indibidualak eta hizkuntz portaeraren konstante indibidualak (mikro) dago lehenengo abstraitu beharra. Esan daiteke, eremua tipoen, lekuen, rolezko harremanen, asmoen eta hizketagaien konbinazio berezi bat bezala begiratu behar dela. Gainera situazio sozialezko tipo hauek lehen aipatutako portaerazko erregela komunek lagundurik joan ohi dira.

1.4.2. Ordezkapena

Eremu bakoitzak, balore-sistema bateko zati osagarri bezala, funtzio espezifiko bat hartzen du gizartearen hizkuntzan (komunikazioa, literatura, ritoa, etab.). Funtzio bat funtzio bezala ezabatzea oso zaila bait da, bilatzen dena izaten da, eremu bat beste baten lekuan jartzea. Prozesu hau aisa antolatzen da, baldin eta bere hizkuntzan mehatxatua dagoen komunitatea konbentzitzen baldin

bada, norberaren hizkuntzan hain estimatuak diren funtzioak, bigarren hizkuntzak ere bete ditzakeela, eta lehenengoak bezain ondo edo hobeto bete. Prozesu hau erraztu egiten da oraindik, baldin eta espazio bat, zernahi arrazoiengatik hutsik zegoena (hizkuntza idatzia adib.), hizkuntza berriak beretzen badu. Behin hizkuntza gainartzailea han itsasten denetik aurrera, ordurarte hizkuntza autoktonoak betetzen zituen arloetara zabaltzen da eta hizkuntz portaerazko eremuen bidez okupatzen ditu beroriek, zeintzu, lehen zeuden funtzio batzuren paraleloan, beste antzeko batzuk betetzen hasten bait dira.

Hizkuntza batek bestea erabat ordeztu aurretik elebitasunezko fase bat ematen da, h. d., espazio batbera bi eremuz (Domäne) betetzen da denboraldi batean. Biek funtzio berdinak edo antzekoak betetzen dituzte komunitatearentzat, baina jatorriz kultura banakakoak dira.

Eremu berriak hartu ahala zalantzen jartzen da rolen diferentziazioa, eta portaera sozialen eta balore-ideien diferentziak, lehen nabariak zirenak, lausotu egiten dira talde bakoitzean.

1.5. Laburbilduz

1. Elebitasun-teorietan arriskua dago, hizkuntzaren eta kulturaren arteko jarraitasuna hausteko.

2. Elebitasun indibiduala balora daiteke seinale bezala espainierak euskarari egiten dion ordezkapen-prozesuan, baina gizarte-mailara jaso beharra dago.

3. Diglosiak, Euskadin ematen den bezala, bi hizkuntzen indar-erlazioa adierazten du.

Euskara-hitzegileak gutxiengoan daude (%25). Euskarak ahalmen funtzional murrizta dauka, ez da eguneroko bizitzako arlo guztietan erabiltzen.

4. Hizkuntza gainartzailearen eraginak hizkuntz autapenaren prozesua influxatzen du gizarte-mailan. Hizkuntz erlazio soziala aldatu egiten da norberaren eremuetan arrotzarenak gainjarriz edo norberaren lekua besteak hartuz.

Aurrera segitzeko beste galdera batzu:

Nola sortu da Euskadin gaurko elebitasun-egoera?

Zein zirkunstantziak adierazten dute erdararen nagusitasuna?

Zer joera dauzka nagusitasun horrek? Zein dira hizkuntz sustituzioaren agenteak eta horren lagungarriak? zein dira horien xedeak? Nolako eragina izan dute hizkuntz erlazioan? Nolakoa da hizkuntz eremuetako bakoitzaren egoera?

Zein esanahi dauka elebitasunak eta horren ideologiak euskararen iraupenerako?

5. Bi gerra karlistak ere, benetan, produkzio-sistema kapitalista hemen sartzeko egindako borrokak dira. Ohiturazko eskubide zaharrak ezabatuz eta Espainia-barneko merkaturako aduanak kenduz, baldintzak sortzen dira produkzio-modu hori sartzeko.

6. Arazo linguistikoaren sustraiak, Calvet-entzat, gatazka sozial eta ekonomikoetan, gizartearen produkzio-sistemetan daude. Euskal Herrian bi modutakoak dira orientazio politiko eta kulturalak: abertzalea eta Espainiara begirakoa.

2. Euskararen zapalkuntza

Aurreko zatian pilatzen diren arazoak, gaur agintzen duten elebitasun-teorien aski-ezaren ondorio zuzena dira. Estrukturalismo funtzionalistazko ikerlan aparteko direnez, elebitasunaren irudi estatiko bat bakarrik ematen digute; egitura-elementu ezberdinek elkarrekin dituzten erlazioak eta horiek sistemaren mantentzean duten funtzioa azaldu besterik ez dute egiten. Arrazoi honegatik, teoria funtzionalistek ez dute balio, autemandako fenomenoek aldaketa esplikatzeko.

Elebitasunaren kontsideraziokoan hutsik gelditzen da prozesuaren diakronia; gure kasuan, ez da esplikatzen nola izan den euskararen historia, desarrolloa eta zapalkuntza, hori diglosia marginalerako egoeran jarri arte.

Gogoeta orokor honen ondoren atal honetako gaiari helduko diot. Batez ere, gure zapalkuntz prozesua Euskadin ezaguna dela presuposa daitekeenez, konklusio garrantzitsuenak laburbilduz berrematea besterik ez dut egingo.

Kapitulu hau egituratzeko oinarriak J. L. Calvet-en tesiak¹⁰ izan dira, testuinguru kolonialean hizkuntza zapaltzeko eta deuseztatzeko (glotofagia) eman diren prozesuei buruzkoak.

Calvet-entzat problema linguistikoaren sustraiak gatazka sozial eta ekonomikoetan daude, gizarte baten produkzio-moduetan. Harreman linguistikoak botere-harremanetan sartuak egoten dira; hark erabiltzen dituen deiturak «hizkuntza menperatzaile» eta «hizkuntza menperatua» dira. Honela ematen den hizkuntz organizazio sozial hau da, eta ez hizkuntza bera, hark gainegiturazko harreman politiko-ideologikoen *factum* bat bezala kontsideratzen duena (marxisten supraestruktura).

Beraz, glotofagi prozesuen deskripzioak beste elementu ez-linguistiko batzu ere kontutan hartzea inplikaturen du. Glotofagia ez dago fenomeno isolatu bezala kontsideratzerik, badu konponente ekonomiko, juristiko eta linguistiko bat ere.

Kontutan eduki behar dira honako elementu hauek euskararen zapalketa eta ordezkapen aktiboaren agenteak eta horien helpideak azaltzerakoan:

- ideologia politikoak (Estatuari buruzko ideologiak) faxismoaren garaian eta gaur, eta horiek euskararen gain duten eragina.
- hizkuntzei buruzko pentsaerak Espainian (hizkuntz ideologiak).
- espainiar hizkuntz politikaren helpide juridiko eta erakunde-zkoak eta, teori atalaren osagarri, hizkuntz portaeraren eremu ezberdinen egoera.
- espainierak euskarari egiten dion zapalkuntzaren kontrako erresistentziaren indarrak.

Aurreko tema-barrutiari dagokionez konstata daiteke, euskara gaur ere Estatu-ideologia ahal-gehiegizko baten aurrean aurkitzen dela. Euskararen aurrerapena, gure garai moderno honetan, Espainiar Estatu-batasunaren maximak itzalpetua dago.

Esanguratsua da, bai hemen eta bai hizkuntz idologietan, zeinen gustora markatzen den euskara konnotazio sezesionistekin: dela euskararen bestelakotasun esentzialak euskara-hitzegileak berdindu-nahi etnikoetatik babesten dituelako, dela horiek, kontzientziazte-prozesu baten ondorioz, benetan askatzea eta separazioa bilatzen dutelako.

Hizkuntz ideologoen, batez ere, beste hizkuntzak gutxiesteko eta izenbelzteko balio izaten dute. Hizkuntzen arteko konparazioa balio sozialen laguntzarekin egin ohi da eta dikotomiaka organizatzen.

E. b.:	erdaldun	-	euskaldun
	kaletar	-	baserritar
	kultura	-	natura
	modernoa	-	primitiboa
	hitz-eder	-	hitz-gordin, hitz-zantar
	hizkuntza	-	dialekto, kastellazomordo, mordoilo

Gaur oraindik, gero eta terreno gehiago irabazten ari dira ikuspegi eboluzionista eta mespretxuzaleak. Euskara arra-arra-antzinako erlikia da, guztiz agurgarria; baina gure gizarte modernoan erabiltzeko balio ez duena. Euskararen lekua baserria edo museoa da.

Euskararen zapalkuntzaren konponente juridikoa automatetik ateratzen den konstataziorik nagusia da, euskara gaur, II. Errepublikara-garai bezalaxe, bigarren mailako hizkuntza dela. Euskara ikastea eta hitzegitea, espainieraren kasuan ez bezala, eskubide da, baina ez obligazio. Honek esan nahi du, etorkinen eta euskara galdu dutenen zati handi batek baduela ahalbidea euskarazko hizkuntz barrutian asimilatua izateari ihes egiteko, eta okerrera, euskaraz ez hitzegitea santzionatuko lukeen presio sozialik eduki ere ez dagoela egiterik. Euskararen kasuan, elebitasuna programatzen da, programatu, zuzenbide aldetik; baina bi hizkuntzen arteko indar-erlazioak begiratuz gero, elebitasun-modu hori diglosia marginalarena besterik ez daiteke izan.

Teorien atala piska bat argitzeko, eremuen ordezkapena lortu nahirik zebilen hizkuntz politika frankistaren eraginak azaldu ditut nik nere lanean. Hizkuntz portaeraren eremu ezberdinak aukatatzeko, Schmidt-Rohr-en bereizkuntz erizpideetan oinarritu naiz. Horien deskribapenerako, J.M. Torrealdairen¹¹ eta Euskaltzaindiaren¹² lanetan orientatu naiz batez ere.

Azkenik, Calvet-en eskakizunaren arabera, glotofagiaren kontrako erresistentzi indarren bistaratzeak, prozesuaren dimentsio dialektikoa argitu behar luke.

3. Ondorioak

Espainiako botere zentralak helpide guztiak erabili ditu euskara hileratzeko. Euskara etsipenezko egoera larrian aurkitzen da: botere-postuetatik eta bere aurrera-bizitzeko iturrietatik —es-

kolatik, kulturgintzatik— arrakastatsuki etenda eta, gaurko biztanleri osakeraren presio asimilatzailearen eskutan utzia, diglosia marginaleko lurrian ari da mugitzen.

Egoera objektibo honen aurka, Euskadin euskara gordetzeko, desarrolatzeko eta zabaltzeko ahaleginak egitea nahi duen biztanleriaren gehiengo handi baten borondate subjektiboa dago. Euskara ikastearren jendeak bere gain hartu asmo dituen neke-lanak eta euskararen alde hartu den postura garbia, soziologoek «boluntarismo linguistikoa» deitzen duten horretan sar daitezke. Horregatik, oker legoke etorkizuneko hizkuntz politikaren pisurik nagusia elebitasuna sustatzen jarri nahi izatea.

Nire eritzia da, elebitasun-politika Euskadin, hizkuntz politika kolonial aktibo, beste helpe bati batzuekin jarraitutako, bat bezala ikusi behar dela. Diglosia, Euskal Herrian ikusi den bezala, hizkuntz sustituzioaren seinale bat da. Madrileko hizkuntz politika, euskararen deuseztapena bilatzearen ondorio da eta bi hizkuntzen arteko desorekak aurrerantzean ere jarraituko duen seinale garbi garbia. Desoreka honek, berriz, aurki edo luzarora ahulenaren desagerpena erakutsiko du.

Puntu honetan ezin dut elebitasun-teoriei egin diedan kritika aipatu gabe utzi. Nire eritzian, bide ematen diote horiek politikoen artean biziro zabaldurik dagoen problemagabeko elebitasun-usteari. Fishman-ek elebitasuna aztertzean agertzen duen jokaera funtzionalistak errealitatek etenda dagoela edo ematen du. Bere abiapuntuak ahalgarri egiten dio hari elebitasunaren dimentsio sinkronikoa kontsideratzea, hau da, elebitasunaren egitura-elementuak eta horiek fenomenoaren existentzian duten parte begiratzea. Denbora-dimentsioa ez da kontutan hartzen. Horrela elebitasunaren zergatiari, esanahiari eta hortik espero izatekoak diren ondorioei buruzko arazoa erabat espekulatiboa da.

Euskararen patua aldatzeko egin daitezkeen ahalegin guztiek ezingo dute fruiturik eman euskarak bigarren mailako hizkuntza izaten jarraitzen duen bitartean eta lurraldetasun-printzipioaren bidez babestua ez den bitartean. «Suizar eredu» batek, erdalduna lurraldeko hizkuntza ikastera bultzatuko luke asimilazio-denbora labur baten barruan. Horrek ez du esan nahi hizkuntzazko diskriminazioari ekin behar zaionik. Ez. Soil-soilik, neurriren batzu hartu beharra dagoela, euskararen zabaltzea gidatuki eta poliki batean ahalgarri egingo dutenak. Horrek inpliketzen du, adibidez, hizkuntza hartu behar duten egitura sozio-ekonomikoak aldatu egin behar direla.

Gaur oraindik Euskadin euskara erabat sartzea ilusio hutsa bada ere eta elebitasunaren dilema oraingoz mantendu beharra badago ere, euskarazko elebakartasunerako oinarri juridikoak sortzea ez dago gehiago luzatzerik. Aukera hau galtzen baldin bada, zerakoei zabaltzen zaie bidea, horiek ez bait daukate hizkuntz ordezkapen aktiboa sustatzen aritu beharrik, ba nola hizkuntza es-talka eta ez-arian deusezteko helpideak beren esku dauzkaten, aski dute elebitasun liberal baten mantupean horiei lan egiten uztea. Madrilek hizkuntz politika euskaldunaren norabideari emandako onespena ere ez da besterik gabekoa.

Nire ustez, elebitasuna eta euskara eta honen egoera deskribatzeko beharrezko diren puntu nagusiek, labur bederen, ukituak izatea eskatzen dute. Honekin euskal problematikaren ikuspegi txiki bat argitzen zertxobait lagundu dudalakoan nago.

Euskaratzailea: Fernando Mendizabal

I.M.

-
- 1 COSERIÙ, Eugenio: *Sistema, Norma y Habla*, Montevideo 1952.
 - 2 SANCHEZ CARRION, J.M.: *El espacio bilingüe*, Eusko Ikaskuntza, Donostia 1981, 16 or.
 - 3 WEINREICH, Uriel: *Languages in Contact; findings and problems*, Mouton, The Hague 1974.
 - 4 CALVET, L.J.: *Linguistique et Colonialisme. Petit traité de glottophagie*, Payot, Paris 1974.
 - 5 FERGUSON, Charles A.: «Diglossia», in: *Word*, XV (1959), 325-340 or.
 - 6 FISHMAN, Joshua: «Societal Bilingualism: Stable and Transitional», in: FISHMAN, Joshua (ed.): *Language in Sociocultural Change*, University Press, Stanford 1972, 140 or.
 - 7 FISHMAN, Joshua: «The Relationship Between Micro- and Macro-Sociolinguistics in the Study of Who Speaks What Language to Whom and When», in: FISHMAN, Joshua (ed.): *Language in Socio-cultural Change*, University Press, Stanford 1972, 247 or.
 - 8 SCHMIDT-ROHR, G.: *Muttersprache*, Eugen Diederichs Verlag, Jena 1963.
 - 9 *ibid.*, 248 or.
 - 10 CALVET, L.J.: *ibid.*
 - 11 TORREALDAI, J.M.: «Euskararen zapalkuntza (1936-1939)», in: *Jakin*, 24 (1982), 5-73 or.
 - 12 EUSKALTZAINDIA: *Euskararen liburu zuria*, Bilbo 1977.

Elebitasuna ikastoletan: egoera eta irtenbideak

Iñaki Etxezarreta
Xabier Garagorri
Iñaki Osoro

1. Sarrera

1.1. Mintegiaren zergatia

Ikastolaren sorreran, euskaraz zekiten haurrak ez besterik sartzzen ziren ikastoletara. Gero, euskaraz ez zekiten haurrak ere hasi ziren ikastolara etortzen; 1977. urtean, hau da ikastoletara joaten diren haurren gurasoen euskararen ezaguera:

		Badakite	Ez dakite
Araba	Aitak	18,5	81,5
	Amak	17	83
Gipuzkoa	Aitak	76	24
	Amak	76	24
Nafarroa	Aitak	27	73
	Amak	28	72
Bizkaia	Amak	56	44
	Amak	52	48

(Siadeco)

1977. urteaz geroztik portzentaia hauek erdararen alderantz igo direla ez dago zalantzarik. Hona hemen, 1983-84. ikasturtean,

Gipuzkoako ikastoletan matrikulatu diren erdaldunen eta euskaldunen portzentaiak:

Euskaldunak: % 66,6

Erdaldunak: % 34,4

Ama-hizkuntza gaztelania duten haurrak gero eta gehiago sartuz joan eta joango dira ikastoletan; baina zein erantzun eman zaie?

Arazo honetaz 1972. urterako bazegoen kezka (ikus *Gure ikastola*, Jakin, 1972). 1974. urteaz geroztik kontzientzia gero eta bi-ziagoa hartuz joan da irakasleagoa, ikusten bait zuen zenbait haur erdaldun, bere ama-hizkuntzan irakaskuntza inolako oztoporik gabe jarraitzeko gai zirenak, «haur berezi» bihurtzen zirela. Egoera horren aurrean bi irtenbide zeuden: ikastolatik kanporatzea eta aurrerantzean haur euskaldunak bakarrik hartzea, ala haur hauei erantzun egokia ematen saiatzea.

Nola eman erantzun egokia?

Zenbait ikastolatan barneko eztabaidak, laster komunikabi-deen eraginez kanporatuko direnak, hasten dira. Eztabaidaren mugak. Ez daude garbi, edozein aukerak inplikazio linguistiko, psikologiko, pedagogiko eta politikoak bait ditu. Giro honetan, ikastola bakoitza arazoa bere aldetik konpontzen saiatzen da. Ikastola bakoitza, bere aldetik, aukerak egitera behartua dago, nahiz eta aukera hauen auresuposamenduaz eta ondorioez eritzi zuirrik izan ez:

- * Gelak nola osa: denak nahasirik, ala haur erdaldunentzat linea berezia eratzuz?
- * Euskara-gaztelaniaren denbora nola bana?
- * Euskara nola landu: aldi estentsibo-intentsiboak bereiziz, ala bereizi gabe?
- * Irakasleak nola bana: bat bera bi hizkuntzetan, ala hizkuntza bakoitzerako irakasle bana? bat bera aldi estentsibo-intentsiboetan, ala irakasle bana?
- * Hizkuntzaren programazioak nola egin?
- * Euskalkitik euskara baturantz joateko, zein bide eta eritmo aukera?

Arazo hauei ikastola bakoitzak erantzuterakoan sortzen diren

erantzun-motak oso ugariak direla badakigu, baina ez dugu ezagutzen zehatz-mehatz ikastola bakoitzaren tipologiaren diseinua. Mintegi honen helburuetako bat, ikastola bakoitzaren argazkia ateratzea izango da, funtzionamenduaren deskripzioa egitea, alegia; izan ere, edozein alternatiba pentsatzerakoan horrelako deskripzioak beharrezkoak bait dira.

Nola jakin erantzunak egokiak diren ala ez?

Arazo bati erantzun ugariak ematea ez da berez gauza txarra, erantzun-mota bakoitzaren segimendua egiten bada eta ondorioak neurtzen badira. Baina kasu honetan ez da segimendurik egin, eta, zenbaitetan, segimendurik ez da egiterik izan ere, urtetik urtera diseinua eta esperientziaren aldagaiak aldatuz joan direlako. Honela, ondorioak ezin izan dira neurtu, eta, jakina, era honetara inoiz ez dezakegu jakin hartzen dugun bidea egokia den ala ez, arazoa zuzentzeko. Mintegi honen beste helburu bat, egiten diren diseinuen sistematizazioa eta jarraipena ziurtatzea litzateke.

Azterketaren helburuak

Azterketa honen helburuak hauek dira:

- * Ikasoleetako esperientzia elebidun ezberdinak jasotzea.
- * Elebitasunezko esperientziak ondo bideratzeko beharrezkoak liratekeen baliabideak adieraztea.
- * Hezkuntza Sailak arazo hau bideratzeko egitekoa duenaren oinarri izatea.

Lanaren esparrua eta mugak

Gipuzkoako ikasoleetara hedatzen da analisi hau. Guztira 58 ikastola dira, eta 37.941 ikasle.

58 ikastola horietatik,

21 ikastola, 0tik 400 haur artean dituztenak

20 ikastola, 400dik 800 artean dituztenak.

17 ikastola, 800 haur baino gehiago dituztenak.

Gipuzkoako ikastolen barnean, datuen analisisian ikus daitekeen bezala, batez ere Eskolaurre eta Hasierra-Zikloko mailetara mugatu gara, nahiz eta Erdiko eta Goiko Zikloko zenbait datu ere jaso.

Lanaren beste muga, azterketa honek dituen helburuetatik dator. Azterketa honetan ez dugu aztertzen zein motatako programazioak egiten diren edo ikastolek aukeratzen duten tipologia bakoitzak zein ondorio izan dituen. Zeregin horiek beste baterako utzi ditugu.

1.2. Metodologiaren deskripzioa

Azterketa honetan hiru fase bereiz ditzakegu:

Prestakuntza-fasea

«Elebitasuna ikastoletan, egoera eta irtenbideak» projektua 1983. urtearen bukaeran hasi zen.

Lehen pausoa, ikastoletako esperientzia elebidun ezberdinak jasotzea izan zen, horretarako inkesta bat prestatuz.

Ondoren, azterketaren helburuak, metodologia eta beste zehaztasunak, Gipuzkoako ikastoletako koordinatzaile pedagogiko eta arazo honetan lanean diharduten irakasleei aurkeztu zitzaizkien. 27 ikastolak parte hartu zuten. Bilera hau oso positiboa izan zen, zeren batetik elebitasun-arazoak irakasleak kezkatu bait daude eta azterketaren beharra bizi sentitzen bait zen; horregatik, erraz eta gogoz inplikatu dira irakasleak azterketa honetan. Eskatu ditugun datuak, zenbait erantzuten zailak eta batez ere prestatzeko denbora asko eskatzen zutenak, erraz eskuratu ditugula esan dezakegu.

Datuen biltze-, ordenatze- eta sailkatze-lana

Inkestatzailea Ikastolatik pasa aurretik, galdesorta bidali zen ikastetxe guztietara; honek izugarritzko garrantzia izan du lan honetan, jakinaren gainean jarriak izan bait ziren, zein egunetarako gertatu behar zituzten datu guztiak, idazkariaren lana erraztu eta elkarrizketa aberastuz.

Datuak, Ikastolaz Ikastola ibiliz jaso dira, eta, horretarako, galdesorta eta elkarrizketa izan dira mediorik garrantzitsuenak. Datu hauek martxoaren 13an hasi eta apirilaren 16a arteko bitarte horretan jaso dira, hilabete luze honetan Ikastoletako arduradun guztiekin elkarrizketatuz. Galdesortako galderek, nahiz eta ugarriak izan, ezin jaso izan zituzten ikastolen errealitate aldakorrak;

horregatik, batez ere galdera irekietan elkarrizketa informalak beharrezkoak suertatu dira.

Datuak bildu ondoren sailkatze-lana izan zen hurrengo urratsa, hau apirilaren 17tik maiatzaren 4a bitartean egin zelarik; lan hau bukatu bezain agudo, mintegiari hasiera eman zitzaion, maiatzaren 7an, astelehenez.

Datuak sailkatzerakoan, erizpideak ezarri beharra zegoen, zeren eta dispersioa handia bait zen, eta ez bakarrik dispersioa, baita Ikastola bakoitzean eraman diren esperientzien aldaketak ere. Bereziki bi erizpide erabili ziren: hizkuntzarekikoa eta eskolaurreko jokaera.

a) Hizkuntzarekiko erizpideetan, irakaslearen eta haurren arteko komunikazioa eduki da kontutan; izan ere hau bait da interakziorik neurgarriena. Alegia, begiratu da komunikazio horretan zenbateko presentzia duen euskarak, zenbatekoa gaztelaniak eta hizkuntza batetik bestera pasatzerakoan zein garapen jarraitzen den.

b) Eskolaurreko jokaera hartu da kontutan, ezinezkoa bait zen (adibide batzuetan) eskolako eredu guztiak kontutan edukitzea, erabat desberdinak direnez maila batzuetan eta besteetan jarraitzen direnak. Egoera hau ikusirik, eskolaurreko modu ezberdinak begiratu dira, hauexek dira eta gaur egungo errealitatearen argazkirik hurbilena.

Mintegiak

Gipuzkoako ikastoletako zuzendari pedagogiko, eta arazo honetaz arduratuta dauden guztiak izan ziren deituak. Guztira hogeitazortzi ikastolak partehartu zuten, guzti hauetatik berrogeitabat lagun etorri zirelarik.

Egunak

Maiatzak 7: datuen aurkezpena.

Maiatzak 8: Ordiziako Ikastolako esperientziaren azalpena.
a) multzokoa.

Maiatzak 14: Urretxuko ikastolako esperientziaren azalpena.
b) multzoa, b-1.

Maiatzak 15: Oihartzun ikastolako esperientziaren azalpena.
b) multzoa b-2.

Maiatzak 21: Almen eta Langile ikastoletako esperientzien azalpena. d) multzokoak.

Maiatzak 23: Martuteneko ikastolak gertatu duen frogaren azalpena.

Metodologia

- Lehenik eta egun guztietan, ordubeteko aurkezpena.
- Talde txikitari ordu t'erdiko eztabaida.
- Taldeen eritziak jaso eta denon arteko eztabaida; ordu t'erdi.

Metodologia eta egutegi honek aipatzen duen bezala, hasiera-hasieratik Gipuzkoako ikastolen errealitatea adieraztea izan zen gure lehen lana. Hau ikusi ondoren, lehen aipatutako ikastola bakoitzak bere errealitatea jakinerazi zuen, beti ere ondoko gidoi honi jarraituz:

- Marko sozial eta geografikoa (ikastola noiz eta non sortu zen); Ikastolaren sorrera eta oraina.
- Zertaz baliatzen diren plangintza hauek aurrera eramateko: materialeak, baliabide didaktikoak, programazioa, kanpokoak.
- Emaitzak: ikasleei dagozkienak, gurasoei dagozkienak, irakasleekikoak, ikastola zentru gisa.
- Ikuspegi orokorra eta kritikoa esperientzia honetaz.
- Zein baliabide beharko lirateke zuen esperientzia hobetzeko?

Mintegi hauetako bigarren pausoa esperientziak hobetzeko baliabideak aztertzea izan zen; ez bait zen mintegi hauen jomuga eredu bat edo beste ukatzea, baizik eta bakoitzak, besteen errealitatea ikusi ondoren, berea egokitu, hobetu eta horretarako behar ditugun baliabideak seinalatzea. Ikastoletako esperientziak ondo bideratzeko beharrezkoak liratekeen baliabideen adierazpena, Mintegiaren azken egunean, ondorio gisa hartutako erabakietan jasotzen da. Erabaki hauek Hezkuntza Sailari zuzentzen zaizkio, Hezkuntza Sailak arazo hau bideratzeko egitekoa duen plangintzaren oinarri izan dadin.

2. Datuen sailkapena

2.1. Ikastolaren helburua

Sail honetan, barne-arautegietatik zein helburu dituzten jaso ondoren, hauekiko eritziak bildu ziren; honetan azpimarratu beharra dago lehen zati hau eritzia besterik ez dela, eta frogarik gabekoa, beraz; alegia, intuizioan oinarritzen den ustea. Eritzi hau, gehienik, ikasoleetako Zuzendari Pedagogiko eta elebitasun-arazoaz arduratzen diren pertsona edo taldeen eritzia da.

Nolakoak dira gaur egungo Ikastolen helburuak euskararekiko eta euskarazko irakaskuntzarekiko? Hiru eratakoak:

- Haurra euskaraz hezitzea, bere heldutasun-mailako adinari dagokion neurrian.
- Euskara hizkuntza bezala menperatzea.
- Haur elebidunak lortzea 8. maila bukatzean.

Helburu hauen aurrean azaldu diren jarrerak, ondoko hauek ditugu:

1. Laukia: Helburuak mantendu ala birplanteatu.

mantendu	42	% 75
birplanteatu	10	% 17,8
Erantzunik ez	4	% 7,1

Birplanteatzearen arrazoa, haur erdaldunen arazoan datza; haien eritzi, oraingo errealitatea ez bait da orain dela urte batzue-

takoa bera, eta egoera honetara egokitu beharra ikusten dute. Alegia, ezin ditugu jarri euskaldunentzat eta erdaldunentzat jomuga berak.

Harritzekoa da helburuen lorpenei buruzko eritzia, itxaropentsua bait da, edo, behintzat, horrela bait dirudi; batezbeste % 77,3ko portzentaia bateko lorpena jaso dugu. Kanpotik begirata, badirudi pesimismo-giroa nabarmentzen dela ikastoletan, lortu nahi diren helburuetara ez direlako iristen; baina erantzun hauek besterik diote. Nola interpreta orduan honelako datu baiezkorra? Ikastoletako arduradunek, ezartzen diren helburuak benetan lortzen direla uste al dute, hemen erantzunek dioten eran, ala galdera egiteko eraren ondorioa ote da? Beharbada kanpotik usaintzen den pesimismoak ez du errealitatea adierazten eta barrutik ikastoletako arduradunak pozik daude lortzen diren ondorioekin. Beharbada galdera egiteko eraren ondorioa izan daiteke, zeren nahiko frogatua bait dirudi galdesortako erantzunetan % 100, % 80,... jartzen denean, gurean jarri denaren antzera, % 80 horrek jasotzen dituela erantzun gehienak, ez bait dago berri bat asmatu beharrik eta galdesortan bertan dagoena jartzen bait da. Hain zuzen, gure erantzunetan % 80 horrek jaso du maiztasunik handiena.

Zati honetako azken puntua hau litzateke: *Lorpenak ez badira helburuetara iristen, zergatik dela uste duzu?* Hamaika arrazoi hauek ematen ziren, garrantziaren arabera sailkatzeko:

- Helburuak goi-mailakoak direlako.
- Erdal giroaren eraginak ezinezkoak egiten dituelako.
- Gurasoen motibazio-faltagatik.
- Administrazioak laguntzarik eskaintzen ez duelako.
- Irakasleen prestakuntzaren eskasiagatik.
- Gelako kopuruak handiegiak direlako.
- Irakasleen motibazio-faltagatik.
- Plangintza elebidunik ez dagoelako edota egiten denak iraupenik ez duelako.
- Programaziorik ez dagoelako edota aplikatzen ez delako.
- Metodologi eskasiagatik edota irakasleen arteko koordinaziorik ez dagoelako arlo honetan.
- Baliabideen eskasiagatik.


1. GRAFIKOA

2: Erdal giroa

3: Gurasoen motibazio-falta

7: Irakasleen motibazio-falta

1: Helburuak goi-mailakoak



Erantzun hauetan, 1. grafikoan adierazten den bezala, erdal giroaren eragina eta gurasoen motibazio-falta izango lirateke arrazoi nagusiak, eta, aldiz, irakasleen motibazio-falta eta helburuak goi-mailakoak izatea izango dira puntuaziorik txikienak jasotzen dituzten erantzunak. Hemen ere, ikastoletako arduradunek aipatzen dituzten lehentasunei buruz, beste zenbait iradokipen mamitsu egin daiteke...

Hau ikusirik, eta uste-mailako datuak alde batera utziz, datu zehatzagoak aztertzeraz pasako gara, galdesortaren sail desberdinei jarraituz.

2.2. Sarrerako datuak

— *Zenbat urterekin eskolaratzen dituzte haurrak Gipuzkoako ikastoletan?*

Jokabiderik zabalena 3 urterekin eskolaratzea litzateke, ondoko laukiak azaltzen digun bezala:

2. Laukia: Sarrerako datuak

	Zenbatek	%
Bi urterekin	11	19,6
Hiru urterekin	44	78,6

Bi urtekoen gela hauekin jokabide desberdinak ematen dira, nahiz eta, oro har, haur erdaldunei zuzenduak izan. Jokabide desberdinak, zeren eta ikastola batzutan haur erdaldunak nahitaez bi urterekin eskolatu behar bait dira, beste batzutan erdaldun hutsei zuzenduak dira, bestetan euskaldun eta erdaldunei zuzenduak, hiru urterekin haur gehiago hartuz; badira ere matrikula-garaian (martxoan) hurrengo kurtsorako izena ematen duten haur erdaldunekin lanean hasten direnak. Dena den, jokabide guzti hauek nahiko mugatuak aurkitzen dira, batez ere arazo ekonomikoengatik. Ikastolarik gehien-gehienak 3 urterekin hasten dira haurrak eskolaratzen. Badago ikastola bat O.H.O.ko lehenengoan hasten dena, baina bailarako ikastola denez, inguruko herrietako Eskolaurreak jasotzen ditu eta jarraipena eskaintzen die.

— *Kontutan hartzen al da Euskararen ezagutza?*

Gaur egun, Gipuzkoako ikastola guztietan hartzen dira haur erdaldunak; baina honek ez du esan nahi, izena ematen duten guztiak hartzen direnik, muga fisikoak bait daude (espazioa,...), baina ez hizkuntzarekikoak. Hizkuntzarekiko muga hauek, izatekotan ere, 3 urtetik aurrera ditugu, ez dute eta ikastola askotan 4 eta 5 urteko erdaldunik onartzen. Alegia, mugak ez dira hizkuntzarekikoak, fisikoak eta pedagogikoak baizik.

Aurreko maila honetan euskararen ezagutza kontutan hartzen ez bada ere, tipologia desberdinek adieraziko diguten bezala, erizpide desberdinez baliatzen dira taldeak sailkatzerakoan; 24 ikasto-

laz beste guztietan, ama-hizkuntza erdara dutenak eta ama-hizkuntza euskara dutenak, baina euskara zerbait ulertzen (eta hitz egiten dutenak), talde batean edo bestean kokatuz, haurraren ezagutza-maila ikusi ondoren.

2.3. Plangintza-ereduak edo tipologia desberdinak

Jokabide desberdinak hartzen ditu ikastola bakoitzak. Azterketa honetan argi ikusten da, tipologiak sailkatzeko erabiltzen diren B eta D ereduen kontzeptuak ez direla operatiboak. Adibidez, zein eredutan sartuko litzateke jokabide hau: Taldea erdalduna; edukin-mailan B eredukoak; eta komunikazio-mailan euskara hutsen. Errealak al da B ereduan sartzea? Errealak al da D ereduan sartzea? Galdera honen erantzuna zaila litzateke, adibide askotan eredu bietatik hartzen bait dira erizpideak. Beraz, faltsua litzateke B eta D ereduen arabera sailkatzea, honek ez luke eta argituko ikastolen argazkia.

Guk jasotako datuen arabera, beste sailkaketa honek hobeto erantzuten dio errealitateari:

a multzoa: talde berean euskaldunak eta erdaldunak nahastuz; euskaldunak eta erdaldunak elkarrekin, beraz.

b multzoa: talde desberdinetan; alegia, euskaldunak talde batean eta erdaldunak beste batean.

d multzoa: talde desberdinetan, baina talde erdaldunetan B ereduak adierazten duen bidea edo antzekoa jarraitzen dute.

Multzo bakoitzaren barnean desberdintasunik badago, gero ikusiko denez.

3. *Laukia: Plangintza-ereduak edo tipologia desberdinak*

Multzoak	Ikastolak	%	Haur-kopurua	%
a	24	42,8	11.360	29,9
b	22	39,4	18.342	48,4
d	10	17,8	8.219	21,7
Guztira	56	100	37.941	100

Oharra: Langile eta Mendaroko Ikastola, sailkapen honetatik kanpo daude, ez zen egokia ikusten eta hauetakoren batean sartzea.

Koadro honetako eskuineko zatiak adierazten duenez, taldeak banaturik dituzten ikastolek, baina euskara hutsean jarraitzen dutenek (b multzoa), %48,3 suposatzen dute, ikastoletako kopuru osoaren erdia alegia. Aldiz, a multzokoek ikastolen %42,8 suposatzen badute ere, haurren %29,9 besterik ez dute suposatzen. Beraz, multzo honetan ikastola txikiak ditugu gehienbat.

d multzokoek %21,6 suposatzen badute ere, sare honetan haur euskaldunak gehi haur erdaldunak daude, eta gero, d multzoa aztertzerakoan ikusiko den bezala, haur erdaldunen kopurua askoz ere txikiagoa izango da.

Hasierako sailkapen hau egin ondoren, multzo bakoitzeko desberdintasunak ikusiko ditugu.

2.3.1. a multzoa (euskaldunak eta erdaldunak elkarrekin)

Multzo honen barnean, arazo desberdinak ematen direnez, argigarri litzateke, honetarako egin diren hiru azpimultzoak azaltzea.

4. Laukia: a multzoaren azpimultzoak

	Ikastolak	%	% guztiekiko	Haur-kopurua	% guztiekiko
a-1	6	25	10,7	3.202	8,4
a-2	13	54,2	23,2	4.058	10,6
a-3	5	20,8	8,9	4.120	10,9
Guztira	24	100	42,8	11.380	29,9

a-1 azpimultzoko ikastoletako gehiengoak haur euskaldunek osatzen dute (erdaldunak %10 baino gutxiago dira).

a-2 erdaldunen kopurua % 10 baino gehiago izanik ere, ez dute taldeak bereizteko adina euskaldun edo erdaldun.

a-3: haur euskaldunen kopurua talde desberdinetan banatzeko adinakoa izan arren, euskaldunek eta erdaldunek nahasian eta

euskara hutsean jarraitzen dute, horrela egokiago iruditzen zaielako.

Multzo honetako ikastolak aztertzerakoan, ez da ahaztu behar ingurunea nahiko euskalduna dela; baina badira erabat kontrakoak ere, adibidez Errenteriako Beraun auzoko ikastola, Añorgakoa,...

Gela-barneko jokabide adierazgarrienak:

- Errefortzu gisara, beste andereño batekin, talde txikietan, euskara intentsiboki landu.
- Ahal duten neurrian bi urterekin hartu.
- Denbora batean euskaldunak eta erdaldunak bereizi.

Gelatik kanpokoak:

— Udako giroa landu, baserriak, udalekuak,... epe luze horren etendura gainditzeko.

— Gurasoei zuzendutako euskarazko klaseak moldatu eta hauen partizipazioa landu.

— Pertsona kontratatu batzuen bidez klasetik kanpoko ekin-tzak eta jolasak antolatu, haur erdaldunek giro euskaldunean mur-gildurik jarrai dezaten.

Multzo honetako ikastoletan, egoera normalean ez da aldake-tarik egiten; beraz, eskolaurrearen hasieran eratzen dituzten tal-deak 8. mailararte mantentzen dira.

Ikusirik tipologia honetako ikastolek irakaskuntza osoa euskara hutsean jarraitzen dutela, gerta daiteke haur erdaldunek euskara behar adina ez menderatzea eskolaurrea bukatzean, eta horrelako kasuak batere normalak izan ez arren, badituzte beren kriterioak horrelakorik gerta dadinean arazoak egoki bidera-zteko, eta horien artean hauexek lirateke adierazgarrienak:

- Errefortzua eskaintzea.
- Errepika araztea.
- Haurren edo haurren heziketa beste ikastetxeren batean jarraitzeko posibilitatea planteatzea gurasoei, nahiz eta azken erabakia hartzen dutenak hauek izan.

Euskararen programakuntza

Multzo honen barnean, euskararen presentzia ehunetik ehune-koa dugu, lehen aipatu diren irakaslearen eta ikaslearen arteko ko-munikazio hori neurtuz; baina hasieran eta harreman indibidualen

mailan (irakaslea/haurra harremanetan) zenbaitetan erdara erabili beharko da, nahitaez, haur erdaldunekin.

2.3.2. b multzoa

3. laukiak adierazten duen bezala, multzo hau 22 ikastolak osatzen dute, baina, hauen barnean ere desberdintasunak daudenez, beste bi azpimultzo egitea iruditu zaigu egokiena, horrela ikastolen argazkia askoz ere garbiago geratuko delakoan.

5. Laukia: b multzoaren azpimultzoak

	Ikastolak	%	% guztiekiko	Haur-kopurua	% guztiekiko
b-1	7	31,8	12,6	7.750	20,4
b-2	15	68,2	26,8	10.592	27,9
Guztira	22	100	39		

b-1: bigarren hizkuntzaren (euskararen) sarrera progresiboki egiten dutenak.

b-2: Bigarren hizkuntzaren sarrera hasiera-hasieratik edo epe laburrean egiten dutenak.

Multzo honetako jokabide nagusia, heziketa osoa euskara hutsan egitea bada ere, b-1 azpimultzokoek euskararen sarrera (bigarren hizkuntza) progresibotasun luzeago batean egiten dute b-2 azpimultzokoekin konparatuz, eta hemen datza hain zuzen bereizketa honen arrazoiak. Hori horrela, azpimultzo bakoitza, bere aldetik aztertuko dugu:

2.3.2.1. b-1 azpimultzoa

Lehen adierazi dugun bezala, azpimultzo honetako ikastolek, euskara pixkanaka-pixkanaka sartzen dute; alegia, kurtsoaren hasieran gehiena erdaraz daukate, eta, igarotzen doazen neurrian, egunetik egunera euskara gehiago sartzen dute, kurtso-bukaeran euskararen presentzia % 100era hurbilduko delarik.

Azpimultzo honetako jokabide adierazgarrienak hauek lirateke:

Gela-barnekoak:

- Aldi intentsiboak bereziki landuko dituen irakasle baten bidez (3-4 laguneko talde txikietan), aldi horiek irakatsi.
- Euskaldunekin baino kopuru txikiagoekin aritzen dira.
- Esperientzi arloa, irteerak,... lantzeko euskaldunak erdaldunekin nahastu.
- Erdaldunen taldeetan euskara gehiago landu, estimulu edo kinada gehiago,...

Gelatik kanpokoak, a multzoan aipatu ditugunen antzekoak lirateke (baserri, udaleku,...), arlo honetan ikastola guztietan ideia antzekoak bait daude.

Taldeak banatzeko ematen dituzten pausoak, gurasoek eskaintako informazioaz baliatzea eta hasieran talde probisionalak eratztea dira.

6. *Laukia: b-1 azpimultzoko ikastoletako haur euskaldun eta erdaldunen arteko uztartze-garapena*

IKASTOLAK							
	1	2	3	4	5	6	7
4 urterekin	x	x					
5 urterekin	x	x					x
O.H.O. 1		x	x	x	x		x
O.H.O. 2							
O.H.O. 3			(x)			(x)	(x)
O.H.O. 4							
O.H.O. 5							
O.H.O. 6			(x)				

(x) = teorikoki.

Taldeen uztartze-garapena edo horretarako erabiltzen dituzten kriterioak: Multzo honetako ikastolen helburua, talde euskalduna eta erdalduna uztartzea litzateke, beti ere bi kriterio kontutan edukiz: Ikasketak euskaraz jarraitzeko gaitasuna, eta Taldeetako haur-kopurua. Alegia, euskara minimo bat menderatzen duten neurrian, euskaldunekin uztartzen dira, ondorengo grafikoak adierazten duen bezala.

Grafiko honen interpretazioa, honela litzateke: adibidez, 2 zenbakia duen ikastolak 4 urterekin haur batzu uztartuko ditu, bostekin ere bai eta lehen mailan talde osoa. 7 zenbakia duen ikastolak, lehenengoak 5 urterekin, gero lehen mailan eta azkenak 3. mailan; baina azken pauso hau teoria-mailan izango litzateke, zeren maiz gertatzen bait zaie 3. mailaren aurretik taldea asko urritu izatea eta, arazo administratibo-ekonomikoak direla medio, talde osoa aurretik uztartu beharrean aurkitzea.

Taldeak uztartzerakoan, gerta daiteke horietako haur batzuk euskaraz exigitzen zaien minimo hori ez menderatzea, eta, beraz, haur horiekiko soluziobideak aurkitu beharra egotea. Soluziobide horietarako erizpideak hauek izango lirarteke:

- Errefortzuak eskaintzea.
- Haurraren edo haurren heziketa beste ikastetxeren batean jarraitzeko posibilitatea planteatzea gurasoei, nahiz eta azken erabakia hauek hartu beharko duten.
- Euskara minimo hori ez duten haurrekin B ereduko taldea eratzea (bi ikastolatan). Talde hauetan dauden haurrak ondorengo laukian azaltzen dira.

7. *Laukia: b-1 azpimultzoko talde elebidunetako haur-kopurua*

	Guztira	%	Talde elebidunetan	% guztiekikoa	% b-1 azpimultzoarekiko
b-1 azpimultzoa	7.750	20,4	301	0,79	3,8

Euskararen programakuntza

Ikus ondoko laukian euskararen batezbesteko presentzia, irakasle-haurren arteko komunikazioan, erdaldun-taldeetan.

8. Laukia: b-1 azpimultzoko ikasoleetako euskararen presentzia erdaldun-taldeetan

3 urterekin	% 74,2
4 urterekin	% 94
5 urterekin	% 100

O.H.O. maila, bi ikasoleak izan ezik, denek euskara hutsean jarraitzen dute; beraz, euskararen presentzia ehunetik ehuneko dugu.

Lauki honek adierazten duen bezala, euskararen presentzia handiagotuz joaten da 5 urterekin, ikasolea guztietan ehuneko ehunera iristeko.

2.3.2.2. b-2 azpimultzoa

b-1 taldearentzat aipatu ditugun faktore gehienak, gerta dakizkieke baliagarriak b-2 taldekoei ere. Beraz, eta berezitasun nagusia euskararen presentzia denez, puntu hau eta uztartze-garapena nola ematen diren adieraziko dugu.

9. Laukia: b-2 azpimultzoko ikasoleetako euskararen presentzia erdaldun-taldeetan

3 urterekin	% 92,3
4 urterekin	% 100
5 urterekin	% 100

O.H.O. mailan ehunetik ehunekoa dugu euskararen presentzia.

10. Laukia: b-2 azpimultzoko ikastoletako haur euskaldun eta erdaldunen arteko uztartze-garapena

	Ikastolak														
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
4 urterekin															
5 urterekin		x													
O.H.O. 1			x		x	x	x	x	x	x					
O.H.O. 2															
O.H.O. 3	x		x	x	x	x									
O.H.O. 4															
O.H.O. 5															
O.H.O. 6															
											Taldeak mantendu	Taldeak mantendu	Taldeak mantendu	Ez dute kriterio garbirik, esperimentzia honetan berriak bait dira.	Eskolaurrea bakarrik duen ikastola.

(x) = teorikoki maila honetan, baina arazo administratibo-ekonomikoak direla medio, askotan aurretik uztartzen dituzte.

[x] = erdiak bost urterekin uztartzen dituzte eta beste erdiekin taldea osatu eta 8.mailararte mantendu.

Uztartze-garapeneko grafikoek adierazten digutenez, ikus dezakegu, batez ere lehen mailan uztartzea dela joerarik nagusiena, nahiz eta 3. mailan ere joera zabaldua izan; beraz, irakurketa-idazketak hasi aurretik edo bukatu ondoren.

2.3.3. d multzoa

Multzo hau hamar ikastolak osatzen dute eta, hiru ikastola kenduz gero (fusio-prozesukoak), beste guztiak nahiko handiak ditugu.

11. Laukia: d multzoa

	Ikastolak	%	% guztiekiko	Haur-kopurua	% guztiekiko
d multzoa	10		17,8	8.219	21,7

Multzo honetako ikastolek haur erdaldunak eta euskaldunak bananduta badituzte ere, ez dute b multzokoan jokaera bera jarraitzen, haiek talde erdaldunetan ere euskara hutsean jokatzeko bait zuten; aldiz, d multzo honetakoek denboraldi bat erdaraz eta beste bat euskaraz lantzen dituzte, gutxi gorabehera Hezkuntza Sailak B eredurako ezartzen dituen erizpideei jarraituz.

Multzo honetako jokabide nagusiak aztertuz, zera esan behar harko litzateke: eskolaurtean eta hasiera-zikloan, zenbait ekintzatan (jolasetan, etab.) elkartu egiten dituztela. Klasetik kanpoko aktibitateak, euskaldunak eta erdaldunak nahastuz lantzen dituzte kasu gehienetan, horrela erdaldunak ere giro euskaldun batean murgiltzen saiatuz.

Gela-barneko jokabideetan, orain arte aipatu ditugun errefortzuak esanguratsuak badira ere, adierazgarria dugu ikastola batean hasi berria duten esperientzia: 3. mailan hiru hilabeteko aldi intentsibo bati ekiten zaio, euskara hutsean eta hizkuntza bakarrik lantzeko, beste gai guztiak (matematika, etab.) alde batera utziz. Honen helburua hizkuntza sakonagotik lantzea litzateke, egunetik egunera euskarak garrantzi handiagoa izan dezan eta 6. mailan euskaldunekin uztartzeko asmoz. Une intentsibo hauek lantzeko, horretaz bakarrik arduratuko den pertsona bat jartzen da. Esperientzia hau berria dugunez, oraindik frogatzeko daude berorren emaitzak.

Multzo honetan banaketa beste ikastolekoen antzera egiten da, beti ere mistoak nolakoak diren ikusi ondoren, euskaldun edo

erdaldun-taldetan sartuz. Horretarako, esan bezala, gurasoen informazioa izaten da tresnarik nagusiena.

12. Laukia: d multzoko talde elebidunetako haur-kopurua

	Guztira	%	Talde elebidunetan	% guztiakiko	% multzokoekiko
d multzoa	8.219	21,9	1.393	3,67	16,9

Uztartze-garapena: Teorikoki ahalbide hau posibilitatua badago ere, ezkorrak dirudite eguneroko lanean, ez bait dute euskaldunekin parekatzerik izango. Helburu-mailan, 6. mailan uztartzea nahiko lukete ikastola batzuk, baina helburu hori lortzea ez zaie batere erraza iruditzen. Honez gain, noizbehinka bakanen bat pasatzen dute B taldetik D taldera, baina alderantziz ere gertatzen da. Orain arte ikusi dugunarekin, esan liteke multzo honetako ikastolatan taldeak mantendu egiten direla eskolaurretik 8. mailararte.

Eskolaurreko B ereduiko taldeak mantentzeko arrazoiak honako hauek ditugu:

13. Laukia: d multzoko talde elebidunak mantentzeko arrazoiak

	Puntuazioa*	
1	9	Hezkuntza Saileko B ereduak hala dioelako.
2	27	Aprendizaia instrumentalak haurren ama-hizkuntzan egin behar direlako.
3	28	Euskara ez dutelako behar adina menperatzen.
4	16	Oinarri teorikoekin koherente izan nahi duelako.

* Puntuazio hau galdesorta bakoitzean zein ordenatan sailkatu duten ikusirik, batetik lauerako puntuak emanez atera da.

Puntu honi dagokionez, aurreko lau arrazoi horiek inportantziaren arabera sailkatzea eskatzen zitzairen. Grafiko honetan ikusten dugun bezala, euskararen gaitasun minimorik eza izango litza-teke arrazoi nagusia, eta, horrekin loturik, aprendizaia instrumentalak haurren ama-hizkuntzan egitea.

Euskararen programakuntza

14. Laukia: d multzoko talde elebidunen euskararen programakuntza

3 urterekin	% 61,5
4 urterekin	% 61,5
5 urterekin	% 60,5
O.H.O. 1	% 47,8
O.H.O. 2	% 47,8

Honek adierazten digu, eskolaurrean euskarak erdarak baino presentzia handiagoa duela; eta, aldiz, portzentaia hauek hasiera-ziklotik aurrera aztertuko bagenitu, konturatuko ginateke erdarak presentzia handiagoa duela, gai instrumentalak erdaraz ematen dira eta. Euskararen presentziari dagokionez, zenbait ikastolatan, nahiz eta gai instrumentalak erdaraz landu, gai horien barnean ahozko ihardunaldiak euskaraz egiten dituzte, ahal duten neurrian behintzat, horrela euskararen presentzia nolabait handiagotuz.

Metodologia

Alor honetan badaude identifikazioa gordetzeko era desberdinak, ondoko laukiak adierazten digun bezala.

15. Laukia: hizkuntz identifikazioak gordetzeko erak

	Bi andereño- ren bidez	Andereno bakarra erabiliz	Panpinaren bidez
3 urterekin	3	4	2
4 urterekin	5	3	1
5 urterekin	5	3	1
O.H.O. 1	6	2	1
O.H.O. 2	5	2	1
O.H.O. 3	2	3	0
O.H.O. 4	3	1	0
O.H.O. 5	1	1	0

Koadro honi begiratuaz ikusten da, kasu gehienetan bi andereño erabiltzen direla, hizkuntz identifikazioa gordetzeko, eta panpinaren errekurtsua, aldiz, oso gutxi erabiltzen dela. Oraindik ere andereño bakarra erabiltzeko jokabidea nahiko zabaldua dugu, horretarako arrazoi desberdinak emanez, bai ekonomikoak eta baita afektibitate-aldetik egokiagozat ematen direnak ere.

Orain arte multzo bakoitzeko datuak ikusi baditugu, orain denetan berdin ematen diren puntuak aztertuko ditugu, guztiontzat komunak gerta daitezkeen arazoak, alegia.

2.4. Bigarren hizkuntzaren sarrera

Talde euskaldunetan zein kurtsotan sartzen da bigarren hizkuntza, gaztelania, eta zenbat orduz lantzen?

16. Laukia: euskaraz ikasten den taldeetan 2. hizkuntzaren sarrera

	Zenbatak bai	Zenbatak ez
O.H.O. 1	0	
O.H.O. 2	0	
O.H.O. 3	28	26
O.H.O. 4	46	4
O.H.O. 5		0
O.H.O. 6		0
O.H.O. 7		0
O.H.O. 8		0

Koadro honetan ikus daitekeen bezala, O.H.O. ko 3. maila arte inork ez du gaztelania lantzen, eta, aldiz, 5. mailatik aurrera ikastola guztiek irakasten dute. 4. mailan 3. mailan baino 4 ikastola gutxiago badaude, horren arrazoia zera da: 4 ikastola horiek 3. kurtsotik aurrera ez dutela jarraipenik, oraingoz behintzat.

17. *Laukia: gaztelaniaren orduen batezbestekoa*

	Orduen batezbestekoa
O.H.O. 3	3
O.H.O. 4	3,25
O.H.O. 5	3,6
O.H.O. 6	4
O.H.O. 7	4,1
O.H.O. 8	4,1

3. eta 4. mailtako batezbestekoa ez da hain esanguratsua gertatzen, orduen dispersioa handia delako; adibidez, ikastola batean ordubete lantzen dute eta beste batean 5 ordu. Batezbesteko honen adierazgarritasuna askoz ere esanguratsuagoa dugu 5. mailatik aurrera, hots: badirudi kriterioak bateratuagoak daudela goi-mailtan.

2.5. Euskararen froga

Eskolaurretik hasiera-ziklora pasatzerakoan zenbat ikastolak pasatzen dute euskararen froga?

18. *Laukia: euskararen frogaren erabilpena*

	Zenbatak	%
BAI	23	42,6
EZ	31	57,4

Froga hogeitahiru ikastolatan pasatzen den arren, hauetan ere nahiko kezkatuak daudela adieraz daiteke, ez dakite eta zer-nolako dominioa exijitu, zein kriterioz baliatu beronen baremaziorako, zein maila beharko luketen haurrek, irakurketa eta idazketa-rako sistemak lantzen hasteko,... Hain zuzen, froga hauek oraindik ateratzeko dauzkagu.

2.6. Baliabideak

2.6.1. Irakasletoa, eskolaurre eta hasiera-zikloan

19. Laukia: irakaslegoaren prestakuntzaren indikadoreak

	Zenbat	%
Euskaldun-zaharrak	683	94,3
Euskaldunberriak	41	5,7
O.H.O.ko tituludunak	600	82,9
Lizentziatuak	20	2,7
Diplomatuak	104	14,4
D/EGA edo kidekoak	573	79,1
B tituludunak	23	3,2
Titulurik gabe	111	15,3
Erantzunik ez	11	1,5

Lauki honekin ikus daitekeen bezala, eskolaurre eta hasiera-zikloko irakasleen artean gehiengoa (% 94,3) jatorrizko hitzunik ditugu. Titulazio-mailan, lizentziatuek ere badute beren garrantzia, kontutan edukirik hemen azaltzen direnak hasiera-ziklotik beherakoak direla; baina, bestalde, diplomatuak ere maiz aurkitzen ditugu Gipuzkoako ikastoletan, oraindik ere % 14,4eko porzentaia suposatzen bait dute.

Lauki honetako 2. eta 3. zatia (eskolarako prestakuntza eta euskarazko prestakuntza) ez dira konparagarriak, nahiz eta kopuruei begiratuz konparagarriak direla iruditu, erabat desberdinak bait dira. Adibidez, euskarazko titulugabeek ez dute Diplomatuakin zerikusirik.

2.6.2. Esperientzia

20. *Laukia: irakaslegoaren esperientzia*

	Urtebetekoa	bikoa	hirukoa	lauekoa	bostekoa	seikoa
Euskaldunekin	29	33	23	33	30	42
Erdaldunekin	15	14	6	5	1	—
Eusk. + Erdal.	—	2	5	8	3	8
Guztira	44	49	34	46	34	50

Lauki honek azaltzen digun bezala, 44 leudeke urtebeteko esperientziarekin guztira, horietarik 29 talde euskaldunetan eta 15 erdaldunetan; 49 bi urteko esperientziarekin, etab.

2.6.3. Baliabide materialak

21. *Laukia: baliabide materialak*


	Bai	Ez	zenbat aparatu	batezbeste
Hormirudiak	56	—		
Bideoa	5	51		
Diapositiba- -projektoreak	56	—	146 (1)	2,6 (2)
Kaseteak	56	—	356	6,4
Txotxongiloak	56	—		

(1) Guztira Gipuzkoako ikastoletan dauden aparatuak.

(2) Batezbeste zenbat aparatu dauden.

2.7. Tipologiaren banaketa eta Gipuzkoako lurraldea

Aldagai bi hauek, ondoren azaltzen den Gipuzkoako mapan daude errepresentatuak.



1 Abaltzisketa	22 Berastegi	43 Idiazabal	64 Pasaia
2 Aduna	23 Berrobi	44 Iruerrieta	65 Soraluze
3 Aizarnazabal	24 Bidegoian	45 Irun	66 Errezil
4 Albiztur	25 Zegama	46 Irura	67 Errenteria
5 Alegia	26 Zerain	47 Itsasondo	68 Gatzaga
6 Alkiza	27 Zestoa	48 Larraul	69 Donostia
7 Altzo	28 Zizurkil	49 Lazkao	70 Segura
8 Amezketeta	29 Deba	50 Leaburu-Gaztelu	71 Tolosa
9 Andoain	30 Eibar	51 Legazpi	72 Urnieta
10 Anoeta	31 Elduaien	52 Legorreta	73 Usurbil
11 Antzuola	32 Elgoibar	53 Lezo	74 Bergara
12 Arama	33 Elgeta	54 Lizartza	75 Billabona
13 Aretxabaleta	34 Eskoriatza	55 Arrasate	76 Ordizia
14 Asteasu	35 Ezkio-Itsaso	56 Mutriku	77 Urretxu
15 Ataun	36 Hondarribia	57 Mutiloa	78 Zaldibia
16 Aia	37 Gaintza	58 Olaberria	79 Zarautz
17 Azkoitia	38 Gabiria	59 Oñati	80 Zumarraga
18 Azpeitia	39 Getaria	60 Oresa	81 Zumaia
19 Beasain	40 Hernani	61 Orío	
20 Beizama	41 Hernialde	62 Ormaiztegi	
21 Belauntza	42 Ibarra	63 Oiartzun	

2.8. Datu osagarriak

a multzoa

a - 1	Izena	Herria	Haur-kopurua
	Xabier Munibe	Azkoitia	2.004*
	Karmelo Etxegarai	Azpeitia	
	Goizeko Izarra	Mutriku	395
	Herri Ikastola	Orio	245
	Udarregi	Usurbil	518
	Iturbe	Elgeta	40
	<i>Guztira</i>		3.202 - % 8,4

* Zestoako Ikastola kopuru honetan sarturik.

a - 2	Izena	Herria	Haur-kopurua
	Ume Zaintza	Arrasate	78
	Anoetako Herri Ikastola	Anoeta	161
	Poxpolin	Tolosa	118
	Hondarribiko Ikastola		627
	Zumea	Zumaia	465
	Itziarko Ama	Deba	500
	Uzturpe	Ibarra	330
	Txantxiku	Oñati	834
	Herriko eskola	Zestoa	*
	Orixe	Donostia	287
	Intxaurren Ikastola	Donostia	134
	Amasorrain	Añorga	245
	Langaitz	Errenteria	279
	<i>Guztira</i>		4.058 - % 10,7

a-3	Izena	Herria	Haur-kopura
	Urumea	Hernani	944
	Mariaren Bihotza	Donostia	542

Soraluzeko Ametsa	Soraluze	457
Aranzadi	Bergara	1.264
Jakintza	Ordizia	913

Guztira 4.120 - % 10,9

b mutzoa

b-1	Izena	Herria	Haur-kopurua
	Axular Lizeoa	Donostia	355
	Lurdesko Ama	Urretxu	1.102
	Laskorain Ikastola	Tolosa	1.566
	San Benito	Lazkao	452
	Kimu Berri	Legazpi	794
	Alkartasuna Lizeoa	Beasain	1.267
	Santo Tomas	Donostia	2.214

Guztira 7.750 - % 20,4

b-2	Izena	Herria	Haur-kopurua
	Aitor	Donostia	242
	Arantzazuko Ama	Martutene	365
	Jakintza	Donostia	427
	Jose Arana	Eskoriatza	135
	Zurriola	Donostia	498
	Herri Ametsa	Donostia	603
	Haurtzaro	Oiartzun	758
	Ibai Ikastola	Donostia	580
	Salvatore Mitxelena	Zarautz	1.131
	Egape	Urnieta	320
	Aita Larramendi	Andoain	903
	Txingudi	Irun	1.371
	Ikasbide	Donostia	246
	Orereta	Errenteria	1.732
	Pasaia Lizeoa	Pasaia	1.281

Guztira 10.592 - % 27,9

d multzoa

Izena	Herria	Haur-kopura
Almen	Eskoriatza	1.303
J.A. Mogel	Eibar	1.830
Ikastola San Bartolome	Elgoibar	938
Landaberri	Lasarte	721
S.F. Javier	Arrasate	1.727
Compañia Maria	Bergara	538
Billabona	Billabona	758
Haur Hezi*	Antzuola	203
San Miguel*	Legorreta	48
Loramendi*	Aretxabaleta	153

Guztira 8.219 - % 21,6

* fusio-prozesuak

Oharra: Sailkapen hauek, arrasgo nagusietan, errealitatea ondo adierazten dutela uste izan arren, Ikastolaren bat sailkatzerakoan subjektibismoaren eragina egon daiteke.

22. *Laukia: 1983-84 Ikasturtean 3 urtekoen geletan sartu diren Haur enskaldun eta erdaldunen proportzioa.*

	Erdaldunak	Euskaldunak
a multzoa	% 30,1	% 69,9
b multzoa	% 32,9	% 67,1
d multzoa	% 39	% 61
Guztira	% 33,4	% 66,6

3. Ondorioak

Gure Herriak aspaldiko urteotan gogo bizirik izan badu, bere nortasun kolektiboaren bereizgarri nagusia den Euskara bereganatzea izan da. Honetan eman ditu ahalegin eta esfortzu ugari: ikastolak sortuz, gaueskolak antolatuz, ... Herri-borondateak eman zezakeen bultzada bakarraz, euskaldunok geure indarrak batu eta sendotuz, erakunde instituzionalik ez bait zegoen.

Orain, ordea, instituzio politikoak daude, eta ikastolaren egoerak larria izaten jarraitzen duenez eta haur erdaldunen kopurua handiagotzen ari zaigunez, instituzio politiko horiei eskatzen diegu:

- Euskararen plangintza orokorra burutzea.
- Euskalduntze-lanean ari diren erakundeak indartu eta babestea.
- Euskalduntze-lanean sumatzen diren hutsuneak betetzeko formulak bilatzea.

Eta Eskolari dagokionez, berriz:

- Eskolen helburuak finkatzea euskararen plangintza orokor horren barruan.
- Eskolaren helburuak gauzatzeko antolamendu egokiaz arduratzea.

Testuinguru honetan kokatzen dugu gure mintegia, eta ondorio hauetara iritsi gara:

3.1. Erabaki politikoak

Erabaki politikoek baldintzatzen dituztela gainerako erabaki tekniko eta administratiboak aitortzerakoan ez dago zalantzarik. Erabaki politiko hauen artean aipa daitezke: Euskal Herriko hizkuntza Euskara izanez jarraitzea. Euskal Herria berreuskalduntzeko borondate aktiboa izatea... Erabaki guzti horien pean gaude. Funtsezko erabakiak dira, baina nahiko urruti geratzen zaizkigunak. Badaude beste erabaki politiko hurbilagotik ukituko gintuzketenak; adibidez, Euskararen plangintza orokorra, etab.

Orain dela gutxi arte erdaldunaren euskalduntzearen ardura Ikastolaren bizkar utzi da. Oraindik ere antzeko joerek jarraitzen dute; baina esperientziak argi erakutsi du Ikastolak bakarrik ezin

dezakeela Herria euskaldundu, haurraren bizi-giroa ere ez bada era berean euskalduntzen. Horregatik, euskalduntzearen plangintza orokorra beharrezkoa da, kontutan harturik, Euskal Herriko hezkuntzaren etorkizuna D eredu dela, nahiz eta horretara iris-teko bidean beste zenbait eredu erabili.

3.2. Bitarteko material eta pertsonala

Ikastolaren helburuak, beste edozein ikastetxerenak bezala, haurraren ahalmenak garatzean eta gizartearen lorpenak bereganatzean dautza. Baina Euskal Herriko hizkuntzaren eta kulturaren egoera berezia kontutan harturik, ikastolek badute beste herrialde batean kokaturiko ikastetxeek era berezian planteatu beharrik ez duten helburua, guk hemen eta orain Euskal Herrian planteatu beharra daukagun erreferentzia eta helburua: Euskal Herria bereuskalduntzea.

Hezkuntzaren beste helburuek suposatzen dituzten baliabide material eta pertsonalez gainera, helburu berezi hori lortzeko berekin dakar baliabide material eta pertsonalen aportazio berezia. Hastapen hori, hau da, gure kasuan hezkuntza konpentsatzailearen hastapena ez bada aplikatzen, jarraian aipatuko ditugun ondorioak eta ondorio horiek daramaten kostu ekonomikoa uler-tezinak izango dira.

Hona hemen mintegi honetan beharrezko ikusten ditugun baliabide materialak:

- Bi urteko haurren eskolatzea.
- Aipatu ditugun tipologia ezberdinen segimendua, laguntza eta ebaluazioa ziurtatzea; honetarako frogak prestatu eta hauen emaitzak bildu eta ikastoletara bidaltzea. Lan konparatiboa egiteko aukera izan dezaten erreferentzia gisa.
- Baliabide osagarriak eta errekurtsuak eskaintzea: joko, jolas, abesti-bilduma, adin eta ikasmila bakoitzari egokitua.
- Ikus-entzunezko materialeak: bideo, diapositiba, lamina,... irрати eta ETBko plangintza zainduz.

Baliabide pertsonalei dagokienez:

- Gelako kopuruak txikiagotu eta errefortzuak ziurtatuko dituen irakasle laguntzailea eskaintzea, kontutan izanik bakoitzeko beharrak eta ahalmenak.

- Irakasleen prestakuntza hobetzea: une intentsiboen didaktika, haurraren motibazioa, irakaslearen mintzamina, ikus-entzunezko baliabideen erabilpena, bigarren hizkuntza nola irakatsi. (Ikastaldi hauek ikasturtearen barnean izanik eta Ikastolara hurbilduz).

Aipatu ditugun baliabide material eta pertsonalak bideratzeko, *zerbitzu pedagogiko* bat sortzeko premia ikusten dugu, orain arteko irudipenetan eta antzutasunean jarraitu nahi ez badugu. Zerbitzu pedagogiko honen zeregina goian aipatu ditugun beharri-zanak bideratzea litzateke.

3.3. Erabaki administratiboak

Aurreko puntu guzti hauek, erabaki administratibo baten baitan daudela begibistakoa dugu; beraz, erabaki hori izango dugu plangintza hauen indartzea eta hobetzea posibilitatuko duen bakarra.

Horrexegatik eskatzen dugu, azpimarratu izan diren beharrak Administrazioak azter ditzala, eta gure plangintza hau onbidertzeko puntu hauek gauza daitezela.

I.E. - X. G. - I.O.

Haurren euskara-maila neurtzea

Josu Sierra

Tituluak dioena da hain zuzen argitara berri den E.A.B.H.E.M. testaren helburua. Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuari zor diogu oraingo argitalpen hau; Bizkaiko Ikastolen Elkarteak kaleratu du materiale osagarria.

Test honen meritu ia bakarra, publikatzen den lehenbizikoa, oker ez bagaude, izatean datza. Hona, beraz, beste askorentzat erreferentzia eta abiapuntua.

Egileak? Hiru Psikologo: Gotzon Ajuria, Jon Ibarra eta idazten duena, alde batetik. Bestetik, Angeles Iztueta estatistikari bikaina, datuen analisiaren ardura eraman duena. Eta hainbat laguntzaile.

Era honetako ikerlanak, egia esan, ez dira «magiaren poderioz» egiten, txanponak edo diruak bait dira zientziaren alor guztien «jabe». Kasu honetan, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Sailordetzak emandako beka bati esker burutu ahal izan da irakurgai duzun lantxoa.

Eta besterik gabe, hel diezaiogun lanari.

Ez da erraza izan Hizkuntza neurtzea. Hain da zabala, anitza eta bitxia, non, neurgailu estandardizatu bat egitean, hizkuntza-ren «karikatura» batekin gelditzen bait gara. Hizkuntz test es-

tandardizatuak ezin du jaso hizkuntzaren zati eta mementu txiki bat baino: egoera eta denboraldi konkretu bati dagokiona (ipuina, galderak, edo erabilitako edozein marko).

Hori alde batetik. Gero, hizkuntzaren lagin mugatu hori analizatzerakoan ere problemak daude. Zer jaso, zeri eman garrantzia? Hitzunaren hitz-jarioa, etorria, zehaztasuna, zorrozatasuna... jator-tasuna agian? Ala hitzak, aditzak, perpaus sinpleak, konposatuak, deklinabide-kasuak...?

Elementu batzuk eta besteak elkarrekin datozkigu hitzegiten digutenean. Guk inpresio orokor bat jaso genezake, baina subjektiboegia da, beste batek beste inpresio bat jasoko bait luke.

Horra hor test estandardizatuaren legea: egoera ongi definitua, argia, eraiki behar dugu eta ebaluatzeko arau zehatz eta objektiboak ematen ahalegindu. Honela, errepikagarritasuna ere ziur-tzen dugu.

Gure lantxoan, aukera bat egin genuen, gehiegi pentsatu gabe, agian; eta, onerako nahiz txarrerako, hortxe dago. Ausardia honek bere ondorioak izan ditu eta hortik datozkio testari hainbat akats. Guk, hitzunaren produkzio linguistikoa zatikatu eta analizatu dugu, elementu bakoitzari balore bat emanez. Espezialista baten laguntzarik ez izateak gauza batzu nahastera eramán gaitu. Barka gaitzazue! Baina, bestalde, ez dugu espezialistentzako test bat egin nahi izan. Edozein irakaslek erabil dezakeen tresna bat burutzea zen gure asmoa. Hizkuntzaren analisisa bere azkenetara eramanez gero, maisu/maistra bakoitzak ikastaro bat beharko luke nola korrejitzen den ikasteko; eta hortik testa paperontzira botatzera tarte txikia dago.

Zer gertatu den? Ba, testa agian ez dela oso ortodoxoa gramatika eta hizkuntz arazoetan, eta horrek ez die gure espezialistei graziarik egingo.

Funtsezkoena ez dugu oraindik aipatu, ordea: zertarako test hori?, noren mesederako? Eskolaurrearen bukaerarako, haurrek bizpahiru urte igaro ditu euskara ikasten edo lantzen. Eta egungo Heziketa-sistemari, irakurketa-idazketa gutxi gorabehera sasoi horretan hastea «bururatu» zaio, beste gauza askoren artean. Fenomeno bi hauek direla medio, izugarri konplika daitekeen egoera batean aurkitzen gara. Alde batetik, ikastoletan dauzkagun erdal-dunek (sartu zirenean bederen), zera frogatu behar dute: irakurketa-idazketak hizkuntza horretan egin ahal izateko adina euskara badakitela. B ereduoketan, ez da hau —normalki— planteatzen, erdaraz egingo bait dute irakurketa.

Bigarren, irakasleak tresna bat ere behar zuen bere lanaren fruitua ebaluatzeko, eta hor zebiltzan eskola eta ikastoletan, bakoitza bere test txikiak, probak eta antzekoak asmatzen.

Gu, horien informazioa jasotzen eta sintesi bat egiten ihardun ginen, eta hona emaitza. Testari berari emango diogu txanda orain, zer eta nolakoa den imajina dezazuen.

Testaren azpittestak

1. **Lexikoa:** 30 hitz aukeratu ditugu, eskolaurrean zehar lantzen direnen artean. Batzu gorputzaren atalei dagozkie, badira etxe edo eskolako gauzak, kalekoak eta animaliei eta naturari lotuak.

Irudi bat erakutsi haurrari eta ea zer den galdetzen zaio. Asmatutako bakoitzak puntu bat merezi du.

2. **Ipuin-errepikapena:** Haurrari ipuin llabur eta erraz bat kontatzen diogu, eta errepika dezala eskatzen. Kasu honetan, zera baloratzen da: guk ipuinean aipatutako elementu guztiak errepika ditzala; hitzik inportanteenak, aditzak, ezezko esaldia, deklinabide-kasuak, eta abar. Ipuinak irudi atsegin batzu dakartza berarekin, beti umearen aurrean egongo direnak.

3. **Galderak:** Aurreko ipuinari buruz, galdera erraz batzu egiten zaizkio, irudiak agirian daudela.

4. **Ipuin asmatua:** Sei egoeraz, irudiz, osatutako historio «mutu» bat erakusten diogu haurrari eta, horiek oinarritzat hartuz, ipuin bat konta diezagula esaten diogu.

Testa bukatu ondoren, ebaluaketari ekiten diogu. Azken proba hau da hain zuzen problematikoena.

Lehenik, luze zein laburra izan daitekeelako. Bigarren, esaldiz esaldi eta hitzez hitz aztertu behar delako haurraren hizkuntz produktzioa.

Azterketa honetan perpausen egitura hartzen da kontutan:

- a) Sinplea (subj. + aditza)
- b) 3 elementuzkoa (subj. + aditza + konplementua)
- c) Menpeko perpausa
- d) Ezezko perpausa

Konposatuetatik, menpekoak bakarrik hartu ditugu eta hauek ere oso modu berezian.

Ondoko lerroetan, testa zuzentzeko argitasun zenbait eman nahi genuke. Argibideok Ibon Olaziregi adiskide eta lankideak prestatu ditu, guk sortutako korapiloa askatu nahirik.

Eabhem testa: zuzenketa errazteko argitasuna

PERPAUS MENPEKOAK		ADIBIDEZ
Konpletiboak	— ELA — ENIK	<i>Esan zuen polita zela Ez zuen esan polita zenik</i>
Zehargalderak	— EN	<i>Ez dakit noiz den</i>
Kausalak	— LAKO — ETA	<i>Nahi dudalako etorri naiz Joan egingo naiz, garaia da eta</i>
Erlatiboak	— EN — TAKO	<i>Hartu duzun arkatza Hartutako arkatza</i>
Denborazkoak	— ENEAN — T(Z)EAN — T(Z)ERAKOAN — ENERAKO — ...	<i>Iluntzen duenean Etortzean Joaterakoan Etortzen denerako</i>
Moduzkoak	— ELA(RIK)	<i>Eserita zegoela(rik)...</i>
Baldintzak	— BA...	<i>Ikusten badu...</i>
Helburuzkoak	— T(Z)EAGATIK — T(Z)EARREN	<i>Telebista ez ikusteagatik Telebista ez ikustearren</i>
Kontzesiboak	— NAHIZ ETA — BA... ERE — ARREN	<i>Nahiz eta jakin ez Ez bazekien ere Ez jakin arren</i>
Kontsekutiboak	— HAIN... BAIT	<i>Hain handia ez bait zen sartzen</i>
Konparatiboak	— ADINA (BESTE) — BEZAIN	<i>Zuk adina urte ditut Zu bezain gogorra da</i>

EZ DIRA KONTUAN HARTUKO		ADIBIDEZ
Koordinatuak	— ETA — BAINA — EDO	<i>Joan zen eta...</i> <i>Hartu zuen, baina...</i> <i>Ikusi zuen edo...</i>
Hainbat nominalizazio	— T(Z)EA — T(Z)ERA — T(Z)EKO. (<i>Aditzaren sailean puntuatzen da</i>)	<i>Jatea ona da</i> <i>Bazkaltzera noa</i> <i>Joateko esan du</i>
Hainbat moduzko	— TA — RIK — T(Z)EN. (<i>Adberbioaren sailean puntuatzen da</i>)	<i>Hura ikusita...</i> <i>Hura ikusirik...</i> <i>Besoak luzatzen zegoen</i>
Hainbat denborazko	— ETA GERO — ONDOREN — ...	<i>Eta gero...</i> <i>Entzun ondoren</i>
Hainbat konparazio	— BEZALA	<i>Zu bezala</i>

Beste ohar batzu

Adberbioaren funtzioa duten zenbait elementu, nahiz eta adberbio izan ez, adberbiotzat hartu ditugu:

- Haurra *bazkaltzen* dago.
- Kepa *lo* zegoen.
- Egon zen *lo egiten...* etab.

Guzti hau ikusi ondoren, prozesu estatistikoaz mintza gaitzke. Hemen Anjeles Iztuetaren «eskua» nabaria da: honen zuzendaritzapean, Bizkaiko Ikastoletako haurren lagin batez eginiko baremo bat, sailkapen bat, eskaini ahal izan dugu. Ez da txantxetako zenbaki «hotz» horien atzean dagoen lan serio eta patxadatsua.

Gurasoen datuak ere gurutzatu ahal izan ditugu, testaren notetan oinarriturik, euskara mailan eragiten duten aldagaiak dektatuz.

Aipa dezagun, gainetik bada ere, ikerlan honen funtsa eta materia. Hona, guk estudiantutako aldagaien artean, euskararekiko duten pisua eta eragina.

Inguruaren hizkuntza edo herriko euskaldunen portzentaia.

Aldagai honen garrantzia, inguru erdaldunetan, zeharo erdaldunetan, nabaritzen da. Zaila da euskaldunik eta euskararik ez dagoen tokian hizkuntza hori bizieraztea. Eskolak, ikastolak lan gaitza eta askotan antzua du bere aurrean. Eskolak bakarrik ez luke inoiz euskalduntzea burutuko.

Ettxeko hizkuntza: Aldagai hau, oso garrantzitsua da. Txarrena, etxean euskararik ez egitea da. Nahiz eta euskararen presentzia erabatekoa izan ez, nabaritzen da presentzia hori emaitzetan. Zenbat eta euskara gehiago etxean, orduan eta maila altuagoa lortuko du haurrak. Gure laginean, haurren % 36,9 euskara hutsez ari ziren etxean. Ehuneko 20,2 erdara hutsez; eta gelditzen den % 42,8 hizkuntza bietan.

Gurasoek euskara ikastea: Aldagai hau, eraginkorragoa da amen kasuan aitenean baino. Amak euskara ikasteak eragin handia du. Aitak ikasteak, aldiz, ez du eraginik gure estudioan.

Hiru aldagai horietaz landara, begi-bistan dugu beste bat, honen «garrantzi» koantitatiboa neurtu ez dugun arren: **Pedagogia**. Honen barruan, Eskola, Irakaslea, Metodoa sartzen dira.

Gure mailaketan, puntuaziorik altuena ez da beti herri euskaldunenetan ematen: zentruaren, irakasleen eta abarren eragina dago hor. Zein neurritan, ez dakigu. Zaila da aldagai horiek definitzea eta neurtzea, baina hor daude.

Oso polita deritzogu egindako Anlisi Faktorialari: egoeraren azterketa bikaina eskaintzen digu, baina ez gara horretaz luzatuko.

Badakigu, jakin, ez dugula beste munduko gauzarik egin; baina, agian, Ebaluazio-arlo honetan dabilzanak zirikatzea lortuko dugu. Ea horiek ere animatzen diren eta beste zerbait publikatzen hasten.

Zoritxarrez, jende honek ez du izaten ez dirurik ez espezialisten babes eta zuzendaritzarik.

Hilotan ikusi dugunez —Zorroagan bildu izan garenok lekuko—, beharbada erakunderen batek jasoko du eskari hau eta Euskal Herrian dauden ideia eta lanerako gogo ugariak bideratzen eta errazten arituko da. Hala bedi!

Gure aldetik, testa pasa eta erabil dezazuela eskatzen dizuegu: zuen ohar, kritika eta proposamen aberasgarrien zain egongo gaitzaizkizue.

J.S.

ORAIN eta HEMEN

GAIAK

...HAINBAT ABURU

LIBURUAK

KULTUR BIDEETAN



Zinemaldia: Jipoiak eta ajeak

Igaro berria dugun Donostiako Zinemaldiaren kritika guztiak ezagunak zaizkio, honez gero, irakurleari. Ferreri-Coppola-Slödorf-Winders zinemagileen poker zoragarriak, videoaren arrakastak, gure zinemagintzarako «Tasio» bezalako filmea eskuratu izanak ez dute, hala ere, Zinemaldia etengabeko jipoitik libratu.

Jipoiak merezi zituen, baina ez guztiak. Zinemagintza hain urri eta eskas dabilen garaian guri bakarrik bururatzen bait zaigu etxera harriak botatzen aritzea, besteek, kritika berdintzutara makurtu behar luketen beste Zinemaldiak, tratu eta onsen bihotz-zabalagoak hartzen dituzten bitartean. Beno, guzti honen atzean kazetariei eskaintzen zaizkien festa eta afariek zerikusirik badutela sinesten dugunontzat sorpresa gutxi eskaintzen du jokabideak. Baina benetako arazoak beste batzuk ere badirenez eta haiek direnez, hain zuzen, gehien interesatzen zaizkigunak, lot gaitezen Zinemaldiak berak ere markatu beharko lukeen bidera.

Borondate politikoa

Jakina, euskaldunen eskutatik urruti —hain urruti ere!— ibili da urtetan eta urtetan Zinemaldia. Madrileko Zinemagintzaren arduradunek izan dute —eta orain ere dute— zerikusi handiagoa Zinemaldian hemengo erakunde kulturalak baino. Eta zama hori bizkar gainean daraman bitartean, zaila ikusten da, hemendik begiratuta, kredito handirik eskaintzea ihes egiten digun edo guztiz kontrolatzen ez dugun Zinemaldiari. Calviño eta Pilar Miró/Joseba Arregi eta Amatiño ez dira ezkongai aproposenak, eta areago oraindik: gaur gaurkoz, ezkontezinak dira. Sintomatikoa Joseba Arregik eskaini zuen afaria: Madri-

leko kazetarien ustetan «batzoki» bat omen zirudien. Sintomatikoa Pilar Mirók beste egun batez eskainitakoa: hemengoan ustetan «Casa del Pueblo» bateko afari suertatu omen zen.

Anekdotikoa baldin bada ere, orain dela zortzi urte hasi ginen Zinemaldia profesionalki jarraitzen, kazetari-langintzan. Orduan ez zen euskaldunik ikusten, orduan bazirudien Madrileko enklabe bat zela gure Zinemaldia. Itxurak —eta zerbait gehiago ere bai— aldatuz joan dira, baina zeri zor zaio gure mesedetan joan den aldaketa hori?: jende pribatuaren eraginari, zinezale asko eta askoren lanari, batzorde desberdinetan Zinemaldia geureganatu nahi lukeen jende desberdinari.

Baina ez da aski, musaldia galdu egingo bait genuke beti. Eta Madrilek Zinemaldiari laguntza eskaintzeko garaian politika kultural batetarako argudioak eta arrazoiak erabiltzen dituen bitartean, geuk ere berdinak erabili beharko ditugu, aurrea hartu nahi baldin badugu behintzat.

Edo gure bidea markatu, honixe bait deritzagu aurrea hartzeko modurik egokiena.

Baina horretarako Zinemaldia interesatzen zaigun eta zertarako nahi dugun jakin behar. Beti aipatu da Zinemaldia gertakizun kultural garrantzitsu bezala. Baina hori hitz hutsetan gera ez dadin, gertakizun kultural garrantzitsu horren ezaugarriak aztertu behar dira, edo posibilitateak.

Eta batzuek nahiz besteek erakutsiko digute Zinemaldia benetan interesatzen zaigun.

Ezaugarrien artean, kultur emankizun bezala, urtean zehar egindako zinemagintza hoberena ezagutzeko aukera izatetik aparte, beste sailetan koherentziaz osatutako emanaldiak ere ikusteko aukera izaten da, egun gutxitan panoramika zabalak eta emozioak kontzentratuz. Kultur emankizun bezala, baita ere, gure Zinemaldiak hau ongi bete ez badu ere, debaterako toki gerta daiteke. Baina garrantzitsuena deritzaguna utzi dugu azkenerako: oihartzun-leku izatearena. Ez besteek eskaintzen dutena ikusi bakarrik, geurea ezaguterazi ere bai. Eta garrantzitsuena deritzagula diogunean, etxetik kanpoko harremanak ez ditugula batere zaintzen pentsatzen dugulako da. Ez dago herri-rik herrien kontzertuan partaide izan gabe, eta guk esporta dezakegun kulturak ez ditu sarritan bide egokiak, aukera handiegia izaten. Eta hor dugu batere probetxatzen ez dugun leihoa, altaboza: gure emaitzak ezaguteraztetik aparte, Zinemaldi egoki bat ere eskain dezakegu, eta beste herriekin harreman kulturetan ere jar gaitezke, aurten Flandriarekin gertatu den bezala. Bidenabar esan dezagun, astakeria iruditzen zaigula, edo, guxtienez, planifikazio-falta, Euskal Margolaritzaren antologia zoragarria Zinemaldia baino hogeit bat egun lehenago eskainia.

Honelako gauzak dira planifikatu behar direnak eta kontutan hartu behar direnak, Zinemaldia benetako leiho bihur dadin.

Ezaugarriek markatzen dituzte posibilitateak, eta aukera horiek erakunde politikoek eta kulturalak egin behar dituzte.

Baina ba al dago horretarako borondaterik? Ikusten al zaio Zinemaldiari etekin posiblerik? Galdera hauei erantzuten ez zaien bitartean, Zinemaldia bere horretan joango zaigu deseginez, ahulduz.

Eta galderei erantzunez, etekinarenari ezezko biribila egozten bazaio, hobe dugu guztiok barraka oraintxe bertan ixtea. Baina baiezkoa erantzuten bazaio, borondate politikoa beharko da jarri martxan, Zinemaldiak eskain dezakeen guztia posible bihur dezagun.

Dirua, dirua eta dirua

Baina nola arraio lortu hori? Kultur politika bat markatuz eta hori bideratzeko dirua, finantzaketa-moduak eskainiz. Ez dago beste biderik.

Esan ditugun gauza guztien arabera, kultur politika markatu behar duten erakundeek adierazi egin behar dute Zinemaldia interesatzen al zaien, eta zertarako interesatzen zaien. Honegatik eta honegatik, honako ezaugarri hauek izango dituen Zinemaldia nahi dugu. Eta hori bete dadin, hor duzue beharrezkoa den laguntza guztia.

Kultur politika eztabaidatua izango da, noski, baina hobe da beti ere kritikagaiak esku-artean izatea, isiltasun antzuenaren pean kukildurik geratzea baino. Eta azken honen oihartzun gehiegi ikusi dizkiegu iragan urtetako Zinemaldiei. *Ustelduz joan dabila eta gero gerokoak* esango belitzaigu bezala.

Baina alde askotatik begiraturik, EAJek ditu erantzunkizun nagusienak arazo honetan: Donostiako alkatetzatik hasi eta Kultur Departamenturaino, zer esanak dituzten bezala dituzte zer erantzunak ere. Egia da egoera aldatzen edo hasia dela, eta lehen aipatzen genuen borondate politikoaren aztarnak ikusten hasiak garel. Baina ez da aski. Projektu oso eta koherente bat taxutu eta gorpuztu behar da. Aurrekontuak eta guzti, bestela alferrikako hitz-jario bait litzateke orain arteko guztia.

Diru asko behar da, jakina. Eta hainbeste diruk justifikatzen al du etekina? Baiezkotan gaude. Bere eskasian ere, Donostiako Zinemaldiak etekin gehiago eskaintzen dizkigu makina bat duro kostatu diren langintza zenbaitek baino. Donostiako Zinemaldia dugulako izan da posible Euskal Zineaz hitzegitea (orain euskal zinea zein arraio ote den polemikari surik biztu nahi ez diogularik). Estrena ezazu «Tasio» Donostian edo Bilbon Zinemaldiaren oihartzunik gabe, eta ea zertan geratzen den. «Ta-

sio»ren berezko balore ukaezinak ahaztu gabe ere, bideraketa zailagoa ezagutuko zukeen.

Diru asko behar da: Zinemaldi interesgarria antolatzeko, Zinemaldia sostengatzen duen azpiegitura hobetzeko/berritzeko/indartzeko eta Zinemaldiak bere inguruan ezinbestean dituen kostuez jabetzeko.

Zenbait arazo praktikoa

Zerrendaren nondik norakoen prioritateak agertzeko desiorik gabe, aipa ditzagun ikusten ditugun arazo praktikoa.

Lehenik, estatuan antolatzen diren bi Zinemaldi garrantzitsuenak Euskal Herrian eskaintzen dira: Bilbon eta Donostian. Bien arteko koordinakundea behar da, koherentzia berdinaz joko dezaten, konpetentzia gaiztotarako biderik gerta ez dadin, bakoitzak bere espezializaziotik bestearen konplementu izateko asmoa eta borondatea ager ditzan.

Bestetik, hor dugu fetxen arazoa ere. Ez omen dira egokienak, azkeneko trenaren azkeneko bagoiak hautsak bakarrik jasotzen omen ditu, eta abar. Arazoa korapilotsua da Nazioarteko Ekoizleen Elkarteak ere arazoan zer esanik baduelako honetan. Baina garbi ikusten dugu, urte guztian zehar lan eginenez, helburuak garbi edukiz eta presupostu eroso batez jokatzuz, fetxena ez dela hain arazo garrantzitsua. Azkenean, industria baten aurrean egote horrek industriaren hizkera bakarrik posibilitatzen bait du.

Hor dago, baita ere, espezializazioaren arazoa: A kategoria lortzeko ahaleginak egin behar al dira? Zinemagile Berrien saila indartu behar al da? Orain arte marjinal gisa funtzionatu duten «Euskadi y...» bezalako sailak indartu behar al dira? Videoari eskaini behar al zaio, etorkizuneranzko apustuan, aldare nagusia? Galdera guzti hauei erantzuten hasteko, lehen aipatutako projektu politikoa gorpuztu beharko da, gainera gorabehera guzti horiei buruzko guztiak eta bi esanak daudenez, partikular guztien eritziak han-hemenka barreiatuak daudenez.

Zuzendariaren kontua ere ez da makala. Politika bat markatzen bada, politika hori aurrera ateratzeko prest dagoen gizon kabala aurkitu beharko da, *lehenengo aldiz hemengo perspektibatik* Zinemaldia bideratuko duena.

Eta datorren urtean Zinemaldiak bere ateak irekitzen ditueanean Victoria Eugenia itxuraldatuan, aro berri bat inaurgura dezagula.

Bada eta garaia. ■ *Anjel Lertxundi*

Lekuko, Iratzeder

«Zoroak egin, eroak egin, egina egin», esan omen zuten. Bilbo-ko Mensajero etxeak egin egiteaz gain, eskertu beharrekoa diogun lan estimagarria egin du, Iratzeder-en poema dotore eta hitz-lauzko samurrak liburu mardul batean ber-argitaratuz (*Biziaren Olerkia*): honetara, iparraldeko eta gerrateen osteko euskal literaturaren lekuko bat, ez bakarra baina bat, heldu-aldi batez daukagu esku-artean.

Iratzeder-en maisuak Lafitte eta Narbaitz dira eta maisu-ikasleen helmuga nagusienetarikoa (gaitz da bakarra izatea) zera zatekeen: «Jainkoari emana, ez da Herriarentzat galdua». Dirudienez, Espainiako anaiarteko gerratean, ipar Euskal Herriari Eliza katolikoak zeuzkan apaiz euskaltzale indartsuak, horiexek bakarrok ziren: jarrera hau, hots, abertzaletasunari jainkotiarki eustea, zorotasuna zen. Hau Iratzeder-ek Lafitteri azaltzean, ihardesten dio honek: «Zer! Zu bezalako zoro ainitz balitz, zentzu gehiago baliteke munduan».

Apaiz-talde honek —Xarriton ere barruko dateke, baina «adimendua» berau, Iratzeder-en hitzez esateko—, *Gure Herria* eta *Aintzina* aldizkariak sortzen eta eusten ditu. Baina Iratzeder-ek badu bide berezi eta propiorik ere: *Ezkila* eta *Otoizlari* argitaratuko ditu Belok-en. Iratzeder-en lekukotasunak ezagugarri bi dituela esango genuke. Bat, hegotasuna: hegoaldeko janaritzen da, Sabino Arana, Arrese Beitia eta horien ildotik, eta ez Paris aldetik. Ez zuen, antza, J. Mirande ezagutzen eta M. Legasse-rekin epelkiro hausten du. Bia, euskal airezko liturgia: berak dioenez, euskal airez nahi ditu burutu Jainkozko alabantzak. Iratzeder-en sortze-lan osoak, ezaugarri horixe ote duen gaude: euskal liturgia berriztatzen eta bultzatzen du, poema fin eta txukunez, Lertxundi fraidekidearen musikaz.

Euskal Herriko Eliza katolikoaren eraginpean, Gandiaga dateke joera hori eteten duen lehena: Bitoriano Mendatarrak, gizon europarraren kezka eta arrenkurak arantzaz eta lorez janzteaz gainera, ez du *Elorri* kanta dezagun ondu, isilatasunean irakurri eta berresan dezagun baizik. ■ A. Zelaieta

Zergatik horrelako oihartzuna? Askapen-teologia auzipean

Irailarekin batera garai berri bat hasi da Askapen-teologiaren bidea irekitzen ari direnentzat. Hilaren 3an kaleratu zuen Vatikanoko Fede-irakaspiderako Kongregazioak harako «Askapen-teologiaren zenbait punturi buruzko Instrukzioa»; azken hamabost bat urteotan, bereziki Hego Ameriketara, hainbat kristau komunitate eta teologok ebakitako teologi bidea auzipean, susmo txarrez inguraturik eta gaitzespenaren mehatxupean ezarri du; handik lau egunetara, berriz, teologo horietako ezagunenetarikoa bat, Leonardo Boff, bere «deklarazioa» egitera agertu da Vatikanora, Ratzinger kardinalaren, Kongregazioko buruaren, aurrera deituta. Gerora besteren batzuk agertu beharko dute.

Egundoko oihartzuna ukan du auziperatze horrek prentsan eta bestelako komunikabide sozial guztietan: Kronikak, eritzi-adierazpenak, iruzkinak, gogoetak, dossierrak... Ez dut oihartzun handi eta zabal horren analisia egiteko lekua hemengo hau; ez askapen-teologiaren sintesia emateko unea; ez eta Vatikanoren dokumentuaren azterketa eskaintzeko egokiera ere. Alde horietatik zerbait egin da; luzatzeko eta sakontzeko alderdiak dira. Aukerarik izango da. Oraingoan, berriz, gogoeta-apur batzu, gertakariak izan duen oihartzunari berari buruz. Zergatik horrenbesteko lekua albistarietan, aldizkarietan, egunkarietan, etab.?

Hasteko behintzat, ez da oso ulergarria. Itxuraz Eliza barruko arazoa da: Erromako hierarkiaren eta teologo batzuren arteko auzia. Eta Instrukzioa béra ez da, berez, Vatikanoko eman izan dituen dokumentu arranditsu horietakoa, edo Entziklika sozialen parekoa. Bestalde, teologiaren eremuko gorabeherak ez dirudi gaur egunkarien lehen orrialde edo titulu handiak betetzeko gaiak izaten direnik; areago, Hego Ameriketara lantzen ari diren teologi modua izanik: urrutiegikoa ematen du, gure artean jakinmin handirik suspertzeko.

Berehalako eta agiriko arrazoirik ezean, hipotesiren bat egin daiteke, oihartzun hori argitzeko: bat, *Nikaragua*... Bertako

hierarkiaren eta gobernu iraultzailearen arteko tirabirak; hango ministrari apaizei Erromatik ezarri zaien debekua, kargu horietan jarraitzeko. Guzti horrek oihartzun handia ukan du. Horren inguruan eta jarraipen gisa ikusi behar ote askapen-teologiari ezarri zaion auzia ere? Horregatik izan ote du horrek ere halako oihartzuna? Bi, *publizitatea*... Askapenaren teologoen berek eraturia, alegia. Horrelakoren bat aurpegiatu dio norbaitek Boff-i berari; baina ez dut uste inola ere Europan atera duen zarata hortik etorri denik; besterik da, bere burua eta teologia babesteko kristau komunitateen, teologoien eta Eliz hierarkiako hainbat lagunen euskarria, adostasuna eta elkartasuna bilatu izana. Bere aldeko hainbat milaka gutun eta sinadurarekin agertu omen zen Boff Vatikanora; baita zenbait Kardinalak inguratua ere.

Nire ustez, hipotesi horietatik ez dago argibide handirik atertzetik; ez dago behintzat oihartzunaren handia osorik argitzetik, hori zabaltzeko eta indartzeko haiek lagundu badute ere. Kanpotik lagundu dute, ordea: eta, nire ustez, askapen-teologiaren auziaren barruan daude horren oihartzunaren arrazoiak. Eta, hain zuzen ere, goian aipaturiko hiru «kontra-arrazoi» haiek, oraingoan benetakoa arrazoi bihurtu direlako.

Aurrenik, askapen-teologiaren auzia ez da Elizaren barneko arazoa. Herri eta gizarte menperatuen askapenerako borrokaren barrutik eta horren aldeko aukeraren gainean egindako teologia izan nahi du askapen-teologiak. Borroka hori, ordea, ez da kristauna bakarrik; kristau ez direnekin batera ari dira haiek Hego Ameriketako hainbat lekutan iraultzazko borroka egiten. Askapen-teologiak ez du Eliza barruko teologia izan nahi, eta horren abiapuntuetako bat da gizarte-zientziek ematen duten analisia, herriaren menperakuntza soziala, ekonomikoa eta politikoa ulertzeko. Horregatik, askapen-teologia auzitan jartzeak borroka herritar hura eta analisi sozio-ekonomiko eta politiko hori jartzen ditu auzitan. Hego Ameriketako Herri menperatuen eta nolabait munduko Herri eta gizarte menperatu guztien askapen-borrokaren zentzu historikoa auziperatu da, askapen-teologia auzipean jartzean. Hortik doa seguruenik Erromako Kongregazioaren Instrukzioa ere.

Bigarrenik, askapen-teologiaren auzia ez da arazo teologiko soila, arestian esandakoak berak aditzera ematen duenez. Ez da ideologikoa bakarrik ere, Erromako Instrukzioak aditzera eman dezakeenaren kontra. Bestetara esanik, ez da salbamen trazen-dentalerako bidearen eta ez ortodoxia teologiko hutsaren arazoa hemen kaleratu dena. Askapen-teologia fedearen interpretazio politikotik abiatzen da eta fedeko praxi sozio-politiko eta historikoaren lurrian sustraitzen da. Askapen-teologiaren abiaburu metodologiko nagusienetako bat da, teologia ez dela Unibertsiti-

tateko irakas-gelatan edo teologoaren ikas-gela isilean landu behar, eta bai askapen-borrokari bere fedea egiaztatzen duen kristau elkartearen barruan. Horregatik, askapen-teologia auziperatzean, askapen-politika iraultzailea, eta hori aukeratu duten hainbat talde, herri eta gobernu auziperatzen dira. Teologia eta morala —edo etika soziala— bereizteaz jabetu, hain zuzen, askapen-teologiak. Honen dimentsio sozio-politiko eta ekonomikoa ondo ikusi du Erromako Instrukzioak, askapen-teologiaren ordez edo, Elizaren Entziklika sozialak proposatzen bait ditu. Maila horretan askapen-teologia jartzeak ulertzeri ematen du auziak izan duen oihartzuna, zenbait Entziklika sozialek izan ohi duenaren antzekoa.

Hirugarrenik, askapen-teologiaren auzia ez da «urrutiko» Amerikako arazoa bakarrik. Herri menperatu eta pobreen askapen-borrokaren esperientziaren barrutik egiten da askapen-teologia; aurrerapenaren edo progresoen ideologia salatzen du, herri eta gizarte «aurreratu»en eta «garatu»en aldetik, herri eta gizarte «atzeratu»ei eta «azpigaratu»ei eskainitako eta ezarritako ideologia denez; eta, horren ordez, munduaren eredu ekonomiko eta politiko neokolonialistak «hirugarren mundu»ko herriei ezartzen dien menpekotasuneko funtzioaren kontra, horien askapen iraultzailea onartuz eta baieztatuz abiatzen da askapen-teologia. Funtsean, munduaren Iparralde aberats eta indartsuaren eta Hegoalde pobre eta behartsuaren arteko dialektika historikoaren barruan kokatzen da askapen-teologiaren gogoeta. Eta jakina, dialektika eta arazo horien barru-barruan gertatzen da Europa. Horregatik askapen-teologiak ez ditu A.E.B.en eta Hego Ameriketako Herrien harreman menpekotasunekoak bakarrik salatzen, mundu osoko Herri aberats eta pobreen arteko erdibanaketa baizik. Ulertzekoa, beraz, alde horretatik, askapen-teologiaren auziak ukan duen eta ukanen duen oihartzuna.

Pobreen eta zapalduen gogoeta teologikoa ez da inoiz erraza izango, haien askapen-borroka ez den bezala; aurtengo irailetik aurrera seguruenik aldapatsua goa, malkartsuagoa eta agian bihurriagoa izango da askapen-teologiaren bidea Eliza katolikoa- ren barruan. Baina badirudi zeresan handia duela gaurko gure munduan.

...Eta oraindik behintzat ez da Elizaren barruan ere askapen-teologiaren bidea eten. «Semaforoak» jarri omen zaizkio, aldizkari batek zioenez. Semaforo asko, gehiegi, seguruenik; baina oraindik argi-gorri iraunkorrik ez.

Bere heldutasunera iristeko garaia etorri zaio askapen-teologiari. ■ *Paulo Agirrebaltzategi.*

George Orwell, idazle enpeinatua

1984: Reality exists in the human mind

Joxe Azurmendi

G. Orwell (1903-1950) seudonimoaz mundu guztiak, aurtan bereziki, ezagutzen duen idazle ingelesa, Eric Blair zen bere egiazko izenez, eta ez zen Ingalaterran jaioa, baina Indiako Bengalan (Motihari). Orwell seudonimoa Hego Ingalaterrako ibai baten izenetik hartu zuen.

Administrazio kolonialeko enplegatu apal baten semea zen. Halere ikasketak Ingalaterrako Eton ikastetxe famatuan egin zituen, beka bati eskerrak: merezi du gogoratzea, A. Huxley erè (*Bai mundu zoragarria*), beste idazle utopiko ingeles handia, Eskola honetatik atera zela.

Sozialista zen gazte-gaztetatik (orduko sozialismoan). 1922-1928 urtetan, 19 urterekin enrolatuta beraz, Birmaniako «Indian Imperial Police»ko ofizial bezala serbitu zuen. Sergento. Polizia honen praktikak eta ingeles inperialismoa («gansterismo hutsa gehienbat») salatuz, zerbitzuari zaputuz egin eta 1934ean *Birmaniako Egunak* («Burmese days») publikatu zuen. Hasiera honetatik jadanik, Orwellek idatzi duen gutzia izango da bere esperientzia pertsonalak oso markatua.

Horrelaxe da, Indiatik itzuli eta, enplegurik eta ogirik gabe, miserian egin zituen urte bohemioren nobela autobiografikoan ere, *K.O. eta fuera Parisen eta Londonen*, 1933 («Down and out in Paris and London»). Hiriotan, denetatik eginez bizi izan zen urte batzu (clochard, restaurantetan harrikoa egin, eskola partikularrak eman, liburudendan saltzaille, etab.), eta asko idatziz. Baina idatzitakoak argitara nahi zizkionik ezin bait zuen aurkitu, bizi ere ezin bizi literaturatik, eta inkesta sozio-ekonomiko bat burutu zuen krisi ekonomikoaz eta meatzetako langabezia, *Wigan kaira bidea*, 1937 («The Road to Wigan Pier»). Orwell ekonomikoki pobre bizi eta hil zen.

Espainiako gerra zibila hasi da (1936-1939). Orwell, antifaxista porrokatua, berehala sartzen da Errepublikara, armak eskuetan faxismoa borrokatzera. Baina POUMeko milizietan enrolatu zen («Partido Obrero de Unificación Marxista»), Kataluniako sozialista ezkertiar radikalekin batera, ez Brigada Internazionala. Frontean zaurituta (bala batek lehasama pasa zion alderik alde), Bartzelonara erretiratu zuten, justu hiri hartan gerra zibilaren barruko gerra zibila lehertu zen egunetan, komunisten eta «anarkisten» artean, ezkertiar radikalen likidazioarekin bukatuko zena (anarkista, trozkista, POUM). Orwell ezkertiar galtzaileon alderdian paratu zen eta bere larrua Espainatik larri-larri aldegeiz salbatu zuen, komunisten pertsegizioari klandestinoki ihes eginez. Gorabehera hauen inguruan *Omenaldia Kataluniari*, 1938, literarioki perla bat, politiko eta ideologikoki oso polemikoa, idatzi zuen («Homage to Catalonia»).

«La guerra civil española, idatzi du Raymond Carr-ek *Orwell y la guerra civil española*-n, dio lugar a un torrente de literatura mala. *Homenaje a Cataluña* es una de las pocas excepciones». Ikus bedi artikulua honetan Espainiako gerra zibileko ezkertiaren problematika berezia, hots, komunistek zergatik eta nola zanpatu zituzten ezkertiar radikalak eta haien iraultza sozial espontaneo, estrategia sobietar fronte-populistaren alde. Urte haietan Europako intelektual ezkertiaren artean obligazioa zen komunistekin sinpatizatzea eta guztiak ontzat ematen zuten beste gabe Espainiako komunisten jokabidea. «Solamente unos pocos espíritus fuertes —entre ellos, Victor Serge y Orwell— tuvieron el valor de luchar contra el clima general del mundo literario y contra las influencias de los comunistas en aquél. Por lo tanto fueron rechazados y boicoteados. El *New Statesman* rechazó los artículos de Orwell sobre España; la prensa de París prohibió la publicación del relato escrito por Victor Serge del asesinato de Ignacio Reiss por la policía soviética. Fue esta negativa de los círculos literarios de izquierda a afrontar la verdad, por desagradable que fuese, a defender la dignidad humana, lo que verdaderamente repugnó a Orwell y Serge (...). Fue entonces cuando escribió rápidamente, y con gran pasión, su *Homenaje a Cataluña*, antes de que se supiese la noticia del asesinato de Andrés Nin por los comunistas. El editor Gollancz rechazó *Homenaje* sin leerlo. En aquel ambiente no se vendió más que un puñado de ejemplares» (R. Carr).

Agian ezaguna da, baina abertzaleen jokabideaz ere eztabaida bat badago, edo egon da, Bilboren defentsari buruz, eta, parentesi artean, Orwellen pasartetxo bat aipa genezake bide batez: «...Faxistek Bilbo setiatzen zuten orduantxe, eta Gobernuak ez zuen ezer egiten salbatzeko. Hiri [Bartzelona] osoan euskal ikurrinak eseki bai, eseki ziren, kafetxez-kafetxe neskatxak ibili ziren eskean itsulapikoarekin, eta "defendatzaila heroikoei" buruz ohizko irrati-saioak entzuten ziren, baina zinezko laguntzarik eman, ez zitzaien eman euskaldunei. [Madrilgo] Gobernuak joko bikoitz bat jokatzen zuela, pentsa zitekeen».

1939, bigarren Mundu-Gerra. Orwellek BBCan lan egiten du, gerra-propagandan, berriro faxismoa borrokatzen. Eta saio politikoak publika-

tzen ditu: *Balearen barruan* («Inside the Whale») eta *Lehoia eta Adarbakarra* («The Lion and the Unicorn»), biak 1940. Zenbait kritikoren eriztiaz, Orwell literatoa saiolari gisa da hobereena. Gaur haren saioren bildumak lau liburuki betetzen ditu.

Kataluniako esperientziaren ondoren biraketa bat eman da Orwell baintan. Gaztetako iraultzaren optimismo berainezkoa kraskaturik geratu da; etorkizunari buruzko gogoeta autokritiko baten aroa hasten da. Faxismoa, stalinismoa, hainbat «iraultza» eta bi Mundu-Gerra..., nora doa gizadia? Faxismoa garaiturik jadanik eta bere berrogeigarren urteen hasieran, *Abereen etxaldea* idazten du lehenengo, 1945 («Animal Farm»), Iraultza Sobietarraren kritika, stalinismoaren kritika hobea. Etorkizuneko gizartearen problema gehiago sakonduz, 1984 nobela antiutopikoa, edo utopia beltzekoa, argitaratzen du 1949an («Nineteen Eighty Four»). Literarioki proiektu zail bat; obra bera, autoreak hiltzera zihohala gaiso idatzia, troskoilo samarra nire gusturako, ondo bukatu gabe utzita balego bezala. Samjatin eta baino askoz sakonagoa halere, eta osoago, boterearen kritika bezala.

«Utopia beltz» honetan Orwellek ez profeta gisa, baina analista sozial eta politiko kritiko gisa lan egin du: «ez zuen etorkizuna aurrikusi nahi, baina orainaldiaren inplikazioak azaldu» (W. Cronkite). Huxleyren edo Samjatinen utopietan bezala, 1984ean mundu totalitario arras desgizatu, burokratizatu eta zeharo kontrolatu bat deskribatzen zaigu. Mundu absurdu bat, non Bakearen Ministraritza bait da amaigabeko gerraren programatzaile eta arduraduna, Maitasunaren Ministraritza errepresio ikaragarriarena, Egiaren Ministraritza propaganda eta garun garbiketarena, etab. Kontrol poliziakoa erabatekoa da (edonon TBak, mikrofonoak, etab.), eta hain deabruzki perfektionatua, non edozeinen eta bakoitzaren pentsamendua bera kontrolatzeko gauza bait da. Kontrol honetan elementu bortitz bat hizkuntzaren manipulazio teknikoa da; itzulpen batean zaila da aditzera ematea nola funtzionatzen duen. Hizkuntza «zaharra» (ingeles arrunta) dena «birlaboraturik» dago, telegrama-hizkuntza baten antzera moztua eta laburtua, nabardura eta konnotazio subjektibo (pertsonal) oro epai eta kimaturik. Goi-mailakoan hizkuntza guztia bisilabikoa da (geroago batetan denek ikasiko dute horrela hitzegiten) eta konputagailu bati ordenak emateko moduzko hizkuntzaje batetan komunikatzen dira elkarrekin. Egin litekeen krimenik doilorrena pertsonalki pentsatzea da («crimethink»), eta «pentsamenduaren polizia» berezi batek pertsegitzen du (*Pentspol* edo horrelako zerbait esan beharko genuke «Thinkpol»). Egiak eta gezurrak ez dute balio autonomorik, zer den zer Estatuak erabakitzen du, eta «pentsamendu bikoitza» da Estatu filosofiarren ardatza («doublethink», beti dena bi silabakoa).

Nobela orainaldian dago idatzia. Errealismo handiz. Haatik, fikzioa dela, modu askotan iradokitzen da, estiloaren aztertzaileek diotenez lehengo esalditik bertatik: «Apirileko egun garbi, hotz bat zen eta erlojuak hamahiruak ari ziren jotzen» («... and the clocks were striking thirteen»: erlojuak «hamahiruak» jotzea, ordea, euskaraz bezala, ezohizko esamo-

dua da gaurko ingeles arruntean). Ipuina edo gertakizuna, berriz, oso sinplea da: protagonista, Winston, Egiaren Ministraritzako Record-Sailean dago enplegatua, kontrol-lanetan beraz (historiaren kontrolean, zehazkiago). Dena dago programatu eta kontrolaturik, bizitza sentimental eta sexuala ere bai, baina Winston isilpean eta ezkutuka Juliarekin maitemintzen da, esperientzia sentimental honetatik protesta politikoaren sentimendua eta disidentzia ideologikoa bizten zaiela. Poliziak laster deskubritzen du krimen hau, eta «berreziketa» prozesuaren hiru mailak zehar (lehenengo zigorra eta torturak; gero berreziketa doktrinala: bi gehi bi egiaz bost izan daitekeela onartzeraino, Estatuak hala nahiko balu; azkenik berreziketa morala, Anaia Handia bihotz-bihotzez maitatzeko), Winston Estaturako eta gizarterako berrirabazten da. «He had won the victory over himself. He loved Big Brother», bukatzen da nobela.

Integritate eta adore makurrezinezko gizona, sobornaezina, puritanao, maiz esan da, Frantzian Camus izan zena, zela Orwell Ingalaterran.

1984 nobela oso konplexua da. Hainbat alderdi du eta hainbeste lekutatik begira liteke. Iruzkina gehienek, aurrean, Orwellek Soviet Batasunaren eta komunismoaren kritika destakatu dute berriro. 1984 Estatu-nobela bat da, eta ez da dudarik, Soviet Batasuna ere kritikatzeko duela (beste edozein Estatu baino gehiago, gainera: milaka urtetako askatasun eta iraultza mugimenduaren harian dagoenena, zuzen hala oker, bera delako ere). Uste dut, halere, ispilu bat aurrean daukagunean, onestoen bertan geure aurpegiko zimurrak eta makurrak ikustea dela, beste inorenkoak gogoratuz geure burua engainatzen ibili gabe. Problema Estatuak da: gure problema gure Estatuak. Estatu handi, boteretsu, munstroak; administrazio handi, boteretsu, munstroak, «300 millones» hizkuntza handi, boteretsu, munstroak (zertxo da munduan ibiltzeko euskara kaxkar hau eta zer Euskal Herri pittin hori?)... Dena handi, boteretsu eta munstro. Eta kontrol handi, boteretsuen sare munstro bat mundu guztian.

«Behiala, idatzi zuen Orwellek 47ko saio batetan (*As I Please*), nik absurdutzat joko nuen, ehun mila gutxi batzuk baizik hitzegiten ez duten galetako bezalako hizkuntza arkaiko bati bizirik eutsi nahi izatea. Gaur ez nago hain seguru».

* * *

Kontatzen du Claudin-ek *Revista de Occidente*-n, nola aurkitu zen, Alderdi Komunistaren Pariseko buruzagitzan lanari ekiteko 1954ean Soviet Batasuna utzi behar zuenean, liburutegia eramateko buruhaustearekin. Liburu denak ez zegoen garraiatzerik eta

beharrezkoenen hautaketa bat egitea erabaki zuen. Berrogeitamar liburukitako Entziklopedia Sovietar Handia, nolana ere, eraman nahi zuen. Sovietarrak prest zeuden liburuok Parisera bidaltzeko. Baina problematxo bat sortu zen: beste berrogeitabederatziak bai, baina bostgarren liburukia, abisatu zion adiskidetsuki Alderdi Komunista Sovietarraren Komite Zentraleko burkide batek, aurretik orrialde batzu ordeztatu gabe ez zegoen Soviet Batasunetik kanpora bidaltzerik. «Uler ezazu, esan zion, Beriaren arloa da».

Halaxe zen. Orrialde horietan Beriaren gorespenezko biografia zetorren, Stalinen azkeneko hamabost urteetan komunismo sovietarraren buruzagi gorenetakoa eta errepresio-aparatuaren nagusi bezala haren eskuineko eskua izandakoarena, argazki handi batekin. Baina Stalin hil eta behingoan burukideek likidatu egin bait zuten Beria. Entziklopedia Sovietar Handiko erredakzioak bostgarren liburukian Beria kenduz geratzen zen orrialde-hutsunea betetzeko soluzio bat asmatu behar izan zuen arin baino arinago: Bering itsasartearen azalpena tiratuz, alde batetik, eta leku gehiago emanaz bestetik ondorengo Berkeleyri, lehen tratamendu kaskar batekin utzitako Gotzain anglikano idealista, Leninek gogor kritikatuari, zuloa estalita geratzen zen. Orrialde berriok harpidedun guztiei bidali zitzaizkien, ohartxo batekin: «Entziklopedia Sovietar Handiaren abonatuai: ESHren argitalpen estatal zientifikoek gomendatzen dute, bostgarren liburukiko 21, 22, 23 eta 24 orrialdeak moztea, 22 eta 23ren arteko argazkia orobat, eta horien lekuan ondoko testua ipintzea». Eta nola egin esplikatzen zuen: «ebaki bitez aipatutako orriak artaziekin edo bizarra mozteko labainarekin, baina bizkar kontran goitik behera zirrinda bat gordez, orrialde berriak bertan itsasteko».

Oso metodo sinplea, orain eta honez gero existitzen ez den edozeini, lehenago ere inoiz existitu izana borratzeko. Aurrerantzean Beriaren izena ez zen ikusiko gehiago egunkari eta aldizkarietan, baina ezta historiako liburuetan edo Entziklopedietan ere. Ez museotan, ez inon ikusiko zen gehiago haren irudia. Ez zuen existitzen, sekula ez zuen existitu izan.

«Iraganaren nagusia etorkizunaren jabe da»

Kasu hori aipatu dut, Winston-en ogi- eta lanbidea horixe zelako, Orwellen 1984 nobelan. Norbait «desgrazian» erortzen deanean, ezabatu eta deuseztatu beharra dago. Baina norbait egiaz ezabatzeko ez da aski hura fisikoki desagerteraztea jendearen be-

gien aurretik. Izpirituetatik ere borratu beharra dago, garaikideen eta gerokoek memoriatik ere garbitu beharra dago erabat, iraganalditik ere suntsitu. Beraz, historia berridatzi beharra egongo da: beraz, Urriko Iraultzaren esplikazio oso bat idatzi beharko da, Trotzki gabe, edo ahalik gutxienarekin; Armada Gorria Trotzki gabe antolatuko da, etab. Eta, beraz, hark egindakoak eginak izan bait ziren, beste norbaiti eginarazi beharko zaizkio.

Horretan aritzen zen Winston, nobelako protagonista, ez dakit zein urtetako martxoaren 17ko *Times* zuzentzen, esate baterako, aspaldi samarrekoa: orain desgrazian eroritako norbaiten orduko egintzen albisteak orainaren arabera zuzentzen eta berridazten. Orainaldia, izan ere, ez litzateke orainaldi guztiz arrazoizkoa, iraganaldia orainari puntuz-puntu eta arrazionalki zeharo egokituko ez balitzaio. Bestea, historian mentura eta kasualitatea onartzea izango litzateke. Edo, okerrago, orainak elementu ilogiko batzu badituela, aitortzea. Iraganak nahitaez oraingo orain honexena eta honexen iragana bakarrik izan behar du, lerroz-lerro derrigortasunezko katez orainari lotua, bestelako orain posibleren batzuren posibilitaterik gabe bere baitan.

Logikoa da. Historia lege zehatz eta zientifikoen arabera desarrolatzen bada, guztiz erreal eta inmediatea lerro historikoan oraina bait da, orainaren errealitateak argitzen du iraganaldian ere zerk merezi duen eta zerk ez errealitatearen izenik eta kontsideraziorik. Desgrazian erori dena sekula ez da egon grazian, sekula ez da erreala izan, lehenago ere. Ilusio hutsa zen. Eta erreala ez bazen, ezabatu eta «lurrindu» egin behar da lehenagotik ere, memoriatik xahutu, suntsitu eta ahaztu, argi-txakurren ilusioak edo ameskaitz bat bezala.

Absurdia dirudi, eta ez da. Gauzak, seguruen, errealitatean ez dira nobela utopiko baten perfekzioarekin gertatzen. Baina euskaldunok badakigu, esate baterako, zenbat ari zaigun kostatzen geure memoria historikoaren errekuperazioa. Ahalegin honetan sartzen dena ongi konturatzen da, Estatuak nola bere kontura, oraina ezezik, iragana ere monopolizatu duen. Irakaskuntza guztia kontrolatzen du. Ideologien arteko jokoa, kontzientzia historikoa. Goto inbasoreak noblezasun espainolaren odol-emaileak dira, «arabeak» aldiz zazpirehun urtez beti arrotzak, Cid Campeador espainola da, Boabdil ez, Karlos I.a bai... Oraingo Estatuaren zentzuan baloratzen eta gogoratzen da lehenagoko historia. ETA orain gaiztoa bait da, lehen ere gaiztoa izan zen, beti gaiztoa izan da... Oraina eta gerora ezezik, Estatuak lehena ere dekretatzen digu. Bere aparatuak dauzka lehena berregiteko.

1984: Estatua da tiranoa

Orwellen idazkietatik, *1984* lan handiagoa da, baina gustorago irakurtzen da *Abereen etxaldea* (nik neuk *Omenaldia Kataluniari* gustoraena. Manuel Iruxokoa begirunez aipatzen da gerra zibilari buruzko obra honetan). Errazago ulertzen da bigarrena: bere burua irensten duen iraultza garailea, zapalkuntza-sistema berri bilakaturik.

Abereen etxaldea historia sinplea da: abereek iraultza egiten dute etxeko jaunaren aurka (gizona), zerriek gidaturik. Etxaldeko lanaren berrantolaketan zerriak izango dira gidari («besteen lana zuzentzea eta gainbegiratzea zen beren eginkizuna. Beren jakinduria handiagoa zenez, normala zen etxaldearen agintea beren esku geratzea»). Berek eratuko dute etxaldearen defentsa, eta kontrairaultzaileen eta ajenteen aurkako polizia (zakurrak). Azkenean berak bihurtuko dira tirano berriak, itxura fisikoz ere gizonaren pareko (atzeko hanka bien gainean ibiliz). Iraultza sobietarraren parodia bat. Iraultza bat, bai, baina abiapuntura itzulbiratzeko iraultzaren adiera astronomikoan.

Sinboloak oso sinpleak: Benjamin asto zahar eszeptikoa, bela beltza, Boxer zaldi-laneko heroia, motza bezain fededun irmea, Minimus poeta, Napoleon eta Snowball zerriak (Stalin eta Trotski), etab. Prozesuak ere oso sinpleak eta garbiak: kasta burokratiko berriaren finkapena eta pribilegioak, zerebro-garbiketa ideologikoa, errepresio fisikoaren berrezarketa, jauntxoaren nortasun-kultoa, askatasun-filosofia iraultzailearen murriztapena eta manipulazioa, lehenengo zazpi «agindutan» labur-bildurik (pentsamenduaren ukoa dena, beste gabe), azkenean bat bakar hone-tantxe: «abere guztiak berdinak dira, baina batzu berdinoak» («all animals are equal, but some animals are more equal than others»). Famatua egin den esaldia.

1984 ez da *Abereen etxaldea*-ren jarraipen soila. Intelektual ezkertiaren okerra, esaten zuen Orwellek Espainiako gerraren garaian, antifaxista izan litekeela pentsatzea da, barnagotik antitotalitario izan gabe. Totalitarismoa ez da faxismoaren eksklusibarik (ezta komunismoaren eksklusibarik ere). Ideia honen desarroiloa da *1984*.

Zalantza gabe, deskribapen-material asko hartu du berriz ere Alemania nazitik eta Soviet Batasunetik (XX. mendearen hasieretan, bi kasu horietan ikusi ahal izan baita ongienik, Estatu-bote-rearen desarroilo azkar eta erraldoi munstroa). Baina *1984*-ean gaia

ez da nola askatasun-mugimendu sozial bat zapalkuntza-estruktura are gogorragoetan amiltzen den. Europako «arrazoizkotasun» historia guztia da, nobela honek auzitan jartzen duena, tesi garbi batekin: askatasun bila, milaka urtetan, gizonak hainbat tirano txiki irrazional porrokatu ditu banan-bana, ohartu gabe, azkenean, tirano txikiagoak denak apurtu zituenean, egiaz tirano absolutuaren aginte mugagabea berak inauguratzen zuela: gizartearen erabateko Estatu-kontrol arrazional eta zientifikoa, non gizarteak eta Estatuak bat-bat egiten bait dute, gizabanakoarentzat inolako beste lekurik gabe munduan, Estatuaren engranaia barruko pieza gisa ez bada.

Hori da nobela: Estatuaren guztiahalmena. Analisi hori (kontrola, errepresioa, etab.), nobela irakurriz bakarrik segi liteke. Baina ez da Estatu horren kanpokaldea, orain begiratu nahi nukeena.

Historiaren filosofia txiki bat

1984 nobelaren barruan histori filosofiaren historia txiki bat egiten da. Orwell beti komunismoaren kritiko gisa aprobe txatu nahi dutenek hori ez aintzakotzat hartzea, konprenigarria. Baina oinarrizkoa, bigarren Mundu-Gerraz geroko idazle honen kezkek eta pentsamendua ulertzeko.

Harri-aroaz gero, esaten da Goldstein-en luman ipinitako historia honetan (Trotzkiren egiazko izena Bronstein zela gogoratu da), gizadia goi, erdi eta beheko hiru mailatan berezia egon da. Goi-mailakoen grina botereari eustea izan da beti. Erdi-mailakoena, goikoak uzkali eta berak agintari altxatzea. Beherenekoena, diferentzia guztiak ezabatu eta gizonak oro berdinak izango liratekeen gizartea zabaltzea mundu guztian.

Erdi-mailakoek historian zehar hainbat iraultza egin dute. Beheretarrek laguntzen zieten, iraultza horiek beti askatasunaren eta justiziaren izenean egiten zirenez gero. Borroka irabazi orduko, alabaina, erdi-mailakoek berehalaxe makurrarazi izan dituzte beti behe-mailakoak berriro beren lekura. Poliki-poliki, gero, goitik eroritako edo goraino igo ezin izandako erditarrekin, eta destakatu diren behe-mailako batzurekin, nahas-mahas, erdi-maila osatu izan da berriro. Eta berriro hasi da betidaniko borroka denboraren gurpilean.

Gizartearen funtsezko egitamu hau ez da sekula aldatu. Ezin

esan daiteke, prozesu honetan ez dela gizadiarentzat aurrerapen ekonomikoa edo sozialik lortu. Aitzitik. Baina hobakuntza sozial, ekonomikoa, moral guztiek, iraultza eta erreforma guzti horiek, ez dute milimetro bat ere aurreratu gizonen arteko berdintasuna gehiagotzen, edo hiru mailen arteko diferentzia pittin bat ere txikiagotzen.

XIX. mendearen azken aldera, begirale asko hasi zen txandaketen erregela historiko-sozial honi antzematen. Orduan bururatu ziren filosofiek, bada, ez lerro xuxen bat bezala, baina itzul-biraketazko prozesu ziklikoaren modura adierazten zuten historiaren mugimendua. Hauentzat, historiari zikloak berez dagozkion moduan, zikloei berez dagozkie klase-diferentziak barnean: horrela, gizarteko maila-desberdintasunak historiaren berezko elementu eta ezinbesteko lege bezala ageri ziren; historiaren kontrako metafisika edo mito hutsa zela aurkitzen zen diferentziarik gabeko gizartearen amets zaharra.

Egon, lehenago ere egon izan ziren, gizarteko diferentziak berdintzerik ez zegoela, esaten zutenak. Diferentziak beharrezkoak zirela gizartean eta historian. Baina goi-mailako agintari-jendea izaten zen, hori arrazonatzen zuena. Orain, aldiz, anaitasun gizatiar unibertsalaren idealari lotsarik batere gabe eraso zitzaion alde guztietatik, oinarri logiko eta arrazoizkorik ez zuen begitasunari bezala, eta kritikoak ez ziren agintarietakoak, gehienez ere agintea eskuratzea itxaron zezaketen erdi-mailakoak baizik. Lehenago erdi-klaseek berdintasunaren izenean egiten zituzten iraultzak, irabazi eta gero beren tirania ezartzeko bazen ere; orain ordea, alde aurretik proklamatzeko zizuten tirania, utopia eta pentsamendu mitikoa gairatzen duen arrazoimen lehorraren eta errealismoaren izenean, edota goratasun garaiaigoko nortasun berriaren izenean ere.

Orwellek ez du izenik aipatzen. Baina izen batzu (Darwin, Carlyle, etab.; edo Nietzsche, Spengler) neke handirik gabe suposa litezke.

Postsozialismoa

Puntu honetan jauzi bat egin behar da filosofiatik 1984-eko utopiara («1984» ez da aurtan: Orwellek 48an idazten zuen, eta etorkizuneko noizpait, zehaztu gabeko edozein denbora, adierazteko, orainaren ispilu bezala, zifrak atzekoz aurrera itzuli zituen:

48/84). Nobelako utopian, iraultza handiaren ondoko mundua hiru Estatutan bereizirik dago. Hirurak hain berdinak bait dira, bat deskribatzea aski da hirurak deskribatzeko. Nobelan Ozeania deskribatzen zaigu (Ameriketa biak, Atlantikoko uharteak, Irla Britainiarrak barne, Afrikako hego muturra eta Australia: horrek bakarrik erakusten du, Orwell ez dela kritikatzeko ari komunismo soviatarra bakarrik). Hiru Estatuok iraultza ondokoak eta, nola-bait esateko, postsozialistak dira. Ozeaniako pentsamendu ofiziala Ingsoc da (English socialism); Eurasiakoa Neoboltxebismoa; Ekiasiakoa Heriotzaren kultoa. Munduak, bada, aspaldian daraman sozializazio-prozesua burutuz, «kolektibismoan» bukatu duela, imaginatzen du nobelak.

Sozialismoa, esaten zaigu filosofiaren historiartxoan, XIX. mende-hasieretako filosofia bat izan zen, antzinako esklabuen matxinadetatik zetorren hari baten azken puntta, oraindik elementu utopikoz oso kargatua. Baina XX. mende-hasieratik aurrera, korronte hau ere arrazoimen huts-garbiaren eta errealismo zientifikoaren bidetik sartu zen, elementu «humanista» utopiko guztiak beregandik hastantzeko deliberoz, gero eta osokiago, askatasunaren eta berdintasunaren jomuga ahaztu eta helburutzat hartuz gizartearen antolaera perfekto eta guztizko bat, arrazionala eta zientifikoa.

Gero, gainera, 1930 inguruko nahaste-borraste giroan, harremanak eta ohiturak biziki zakartu eta dorpetu ziren gizartean. Ehundaka urte lehenago abandonaturiko modu krudelak eta basakeriak erabiltzen ziren berriro: preso-atxilotze masiboak, inolako epaile-agindurik gabe; gerrako presoan erabilera bortxa-lanetarako esklabo gisa; torturak eta suplizioak, edozein aitortza ateratzeko presoari, zuzen ala oker, eta edonola kondenatzeko gero; justiziamendu publikoak; bahiturien harrapaketak; herri-olde osoen deportazioak... Eta intelektual progresista, argituenek defendatu eta legitimatu egiten zituzten izugarrikeria guzti horiek, «aurrerapen historikoaren prezioa» omen zirelako.

40 eta 50.ak, nobelaren arabera, guztien gerra-urteak izan ziren guztien kontra mundu guztian. Eta gerra-garai nahasi honen bukaera atomikotik irten da 1984-ak deskribatzen duen «postsozialismoa», munduko hiru Estatuetakoko egoera eta ideologia. Hau berau hiru printzipiotan biltzen da: «gerrak bakea esan nahi du», «askatasuna esklaberia da», eta «ezjakintasuna ahalmena da». Bistan dago, karikatuzko formulazio estremoak dela. Baina ikus dezagun apur bat.

Estatuaren hiru printzipioak

Hiru Estatuak beti gerran ari dira elkarrekin, etengabeokan, baina mugatuan (inoiz ez dago jokoan Estatuaren existentzia bera, baina Patagoniako arazotxo larriren bat). Nahita ere, ez elkar desegin eta ez menperatu ahal izateko potentzia militarrek dira hirurak. Hirurek teknologia militar guztiz aurreratua izanik, gerrak ere mugatuak izanik hortakoz, baina etengabeokak, gerraren egiazko garrantzia Estatu barrurantz duen eragin politikoarena da. 1984-ekoa gerra-gizartea da, betiereko gerraren gizartea hain zuzen, horrek esan nahi duen bizitza zibilaren disziplinaketa, propaganda ideologiko, etab. guztiarekin.

«Gerra berdin bakea» denok esperientzia daukagun zerbait da. Barne-problemak ezkutatzeke, edo itoarazteke, Estatuaren errekurtsio zaharra da, konfliktuak biztea beste Estatuaren batekin, edo periferietan sorginak eta deabruak deskubritzea. Jendea orduan botereari atxekitzen zaio kanpoko etsaiaren aurka, barneko problemak ahazten ditu eta gertuago dago aginteak eskatzen dizkion sakrifizioak egiteko: Malvinetako gerrak diktadurarekin berarekin adiskidetu zituen argentinarrek, sinestea zaila egiten zen entusiasmotaraino, etab. (Francoren garaiko Euskal Herriaren unanimitatea gogora liteke). Ongi begiraturik, errekurtsio hau oso zabala eta konplexua da. Ez dago gerra-beharrik, operazio bera erabiltzeko; edo, bestela esan, Estatu modernoek etengabe produzitzen dizute «gerra» hori (juduen, masoien, komunisten aurka), hots, «espiaziozko aker» gaizto eta gaitz guztien errudunaren ardurazko kultibo sistematikoa. Elementu bat gehiago da, agintearen legitimazio-sisteman. Jendetarien barne-kohesioa eta boterearekin identifikazioa indartzen duten medio guztiak, alde batetik; agresio guztien deskarga «errudun guztizkoa»ren aurka bidera dezaketen teknika traskil zein errefinatuenak bestetik. Nahiko adibide da ETA egunotantxe.

Torturak, masakreak, sekuestro legalak (gero bat Auschwitzten eta bestea Panaman agertzeak zein diferentzia egiten dio sekuestroari berari?), gerra zikinak eta asesinatu aginpide altuenetik enkargatuak, burlak eta kalumniak erakundeen eta defentsa gabeko pertsona pribatuen kontra, krimen publikoen ukatzeak eta estaltzeak... Orwellen nobelak, hori dena ez dela batere inmorala, erakusten du. Estatuaren moral bakarra horixe dela eta ez besterik. Ez dira horiek ezbeharrak edo deskuidoak, akzidente iragankorrak, Estatuaren martxa onean, baina argindarra edo goizeroko egunka-

ria bezain Estatu modernoaren osagarri naturalak, eta korrienteak. Inuxente, eskandalizatzen dena.

Erraz ulertuko da, hortik hara, «ezjakintasuna ahalmena da» esaldiaren zentzua: norberak ez pentsatu, ez jakin egin behar du berak ezer, zeren eta bere kasa pentsatuz ez bait luke egia pentsatuko eta egia jakingo. Egia Estatuak daki eta Estatuak pentsatzen du. Gizabakoitza subjektibismoan dabil. Beraz, zenbat ezjakinago norbera, dakienarekin jakinez eta pentsatzen duena Estatuarekin pentsatuz, boterearekin bateginago eta ahaltsuago. Ahalmena kolektibitatearena da. Kolektibitate indartsurik ezin egin daiteke bakoitza bere «subjektibismo indibidual»ean dabilenean mundu guztia. Hori anarkia litzateke.

Askatasuna berdin irrazionala

Askatasuna esklaberia omen delako esaldiak, «freedom is slavery», aparte aipatzea merezi du.

Nobelako iraultza atomikoaren ondoren Ozeanian agintea hartu zutenak burokratak izan ziren, zientifikoak, teknikoak, sindikatuetak funtzionariak, propagandistak, soziologoak, irakasleak, periodistak, politiko profesionalak. Lehenagoko klase agintarien aldean, soldata-kobratzaile izandako jende hau ez zen jabe-gozale, aginte-gura baino. Teknokrata-izpiritu hauek bazekiten, ondasunak eta pribilegioak ongi gordetzeko bide hoberena ondasunen jabe gozalea abolitzea zela, komunitate soziala ondasun ororen jabe bihurtuz. Agintariak haien kargudun eta administratzaile besterik ez ziren izango. Indibidualki, horrela, agintari bakoitza ez zen ezeren jabe; kolektiboki denaren nagusi.

De facto gizarte berriz ere hiru goi, erdi eta behe-mailaz osatzen zen. Baina hiruron arteko betidaniko gatazkak nahasketa besterik ez zuela ekartzen eta, orain, soluzio erabateko bat aurkitu zitzaion, gizartearen egitamu finko eta aldaezin batetan, kolektibismo oligarkikoaren forman. Gizarte osoak interes bat eta bera izan behar zuen, pentsamendu bat eta bera, sentimendu bat eta berbera beti. Estatu osoak organismo banaezin bakarra eratu behar zuen: batzuk buru, besteak oin, esku, beso, bakoitza beti bere leku-lekuan, beti dena koordinaturik eta dena bat. Antolara zientifiko eta ordenu sozial biribil hau bihurtu zen politikaren lehen eta azken helburu. Hori segurtatzea zen agintarien egiteko nagusia.

Beraz, perfekzioa ez zegoen jadanik denen berdintasunean, denak bakoitza bere-bere lekuan egotean baizik, goitik beheraino.

Eta perfekzioa ez zegoen askatasunean ere, baina unanimitatean eta disziplinan *Abereen etxaldea*-ko «disziplina, aberekideok, disziplina. Burdinazko disziplina»). Perfektoa makina da.

Horixe da Orwellen nobelaren muina: Estatu modernoaren gizarte-kontrola. Ez kanpoko mugimenduen bakarrik, baina baita izpirituen ere, barne-barneko pentsamendu eta sentimenduen. Euskal irakurketa batetan, kaiolan gauzkan Estatuaren hainbat gauza ikusten du ispiluan irakurleak. Utopia beltz errealitate bihurtua. «Erdi-Aroko Eliza Katolikoa bera tolerantea zen oraingo aldean», epaitzen du Goldstein-Orwellek.

«Español goibel eta beltzak, gizonak sutan kiskaltzen hain abilak», aipatzen ditu Samjatinek bere *G* nobela utopiko negatiboan. «Gu», hain zuzen, haren Estatuaren ere bere kasa pentsa dezakeen «Ni»rik ez dagoelako. Samjatin errusiar utopikoak eragin handia izan du Orwellen nobelan. Eta errusiarraren bidez, karitatez eta menpekoenganako kupidaz kupidagabeko diktadura ezartzen duen Dostojewskiren Inkisitore Handiarekin topo egiten dugu. Bakarrik, Orwellen nobelan diktadura ez da karitatez egiten, antolaearen perfekzioa bera delako baizik azken helburu eta jomuga. Konstrukzio razional baten helburua perfekzioa eta transparentzia bera da, perfekzioagatik beragatik eta perfekzioaren beraren amorez. Ez haruntzagoko beste helbururen baten zerbitzuan (jende apalentzat hobe dela, edo beste zernahi).

Gizarte perfektuak ez du askatasunik behar. Hobe, gizarte perfektuak askatasuna ez dauka toleratzerik.

Askatasuna inperfekzioa da, irrazionala, aurrikusi ezinezkoa, ustegabekoa, indibiduala, koordinatu gabekoa, zientifikoki programaturiko araubidetik aldentzen dena. Zientifiko eta razionala infalibilitatea da. Razional eta zientifikoan ez dago diferentzia indibidualik: bi gehi bi denentzat lau da. Ez dauka ez izaterik. Razional eta zientifikoan inork ez dauka bestela pentsatzerik, bestelakoa izaterik, nola eta ez den gaisoa behintzat. Bere burua «bestelakoa» sentitzen duena, hots, norbera propio eta gizabanako «berezi» sentitzen dena, pentsamendu edo sentimendu diferentekin, erremedio gabe gaiso bat da, kasu patologiko sozial bat: hagin gaisoa bakarrik sentitzen dugu berezi eta partikular bezala, ez hagin sanoa. Sendatu beharra dago, beraz, gizartearen eta gaisoaren beraren onerako.

Desira indibidualak, fantasiak, askatasuna dira pefekzio eta zorian sozial matematikoki osoaren eragozpen bakarrak, desordenu eta krimen ororen iturburuak. «Askatasuna eta krimena elkarri lotu-loturik daude... hegazkinaren mugimendua abiadarekin loturik dagoen bezalaxe. Giza askatasuna berdin zero balitz, krimenik egiteko posibilitatea ere berdin zero izango litzateke» (Samjatin).

Samjatin «basa-gizon primitiboaren askatasun-egoera negargarriaz» mintzo da, aspaldiko bizimodu gaindituak gogoratuz. «Arrazoimenak garaitu behar du!» hotseginez bukatzen da *Gu*.

Hizkuntzaren kontrola

Inpresio handia egiten duena, Orwellen nobelan, Estatuaren kontrol-bide agerikoak dira (mikrofono ezkutuak, ispiak, poli-ziak, espetxeak, torturak), eta kontrol hori nola sartzen den egun osoaren barreneraino, lo ala esnai egon, lanean ihardun ala maitasuna egin, etxean, kalean, trenean, espektakuloetan. Begi-sare ikusezin batek inguratzen zaitu egun osoan. Airea belarriz beteta dago («Big Brother is watching you»). Holtzak begiak, sasiak belarriak.

Inpresioa, bizitza oso-osoaren eta gizarte guztiaren martxa puntuz-puntu programatuak egiten ditu. Errealitatean ezingo litzatekeen zeharokotasunez, noski. Estatuak esfera «pribatu»rik ez duela ezagutzen, gogoratzeko, ez dago gaizki halere (ohitu egin gara gure telefonoen eta postaren kontroletara): denean eta edozertan hain presente dagoelakoxe kasik erreparaezina bilakatu zai-gun eguneroko Estatuari ohartzeko.

1984 Estatu-botere ahalguztidun, pertsonaren etengabe bor-txatzailearen nobela utopikoa da: gurasoei kendu eta haurrak bere-tzat hezitzen dituen, gazteak bahitu eta bere «soldadu» bihurtzen dituen, adiskideak eta etsaiak berak asmatu eta guri ezartzen, egia eta gezurra, moralitasuna eta krimena berak erabakitzen, langabe-ziaren gainean etsipena eta konformidatea fabrikatzen duen Esta-tuarena. Deskribatuta dagoen moduan, agian ez da guztiz sinetsga-rria, hitzez-hitz hartzekotan. Baina, uda honetantxe, Espainia edo Frantzia bezalako Estatu «demokratiko»en ispilu nahiko garbia gertatzen da.

Dagoen beste mila xehetasun utzita, hizkuntzaren kontrola-rena azpimarra daiteke, beste ezerk bainoago medio honek nahi bait du arimaraino gizona lotu. Ikusi dugu: mementu batetan Esta-tuak erregulatzen du «asesinos» eta «banda» esan dadila, eta bat-

-batean informazio-medio guztiek terminologia berregokitzen dute, ortodoxiaren norgehiagoketa batetan bezala. «Ciertos medios han mostrado, comentatu dute B. Hodge eta R. Fowler-ek *Linguística orwelliana*-n, cómo los periodistas aprenden rápidamente el *ethos* del periódico particular para el que trabajan y su tratamiento estándar de los temas corrientes. Se dan cuenta de qué texto es aceptado sin cambios importantes y cuál es rechazado o alterado hasta hacerlo irreconocible. Un orgullo profesional parecido al que motiva a Winston los lleva a tratar de predecir qué es lo que será aceptado. Las reglas que se ponen en juego no son nunca enunciadas explícitamente, pero son entendidas e internalizadas, y el sistema se hace autorregulador mediante la autocensura anticipatoria». Estatuak ez dauka agindu beharrik, agindu baino lehen obeditu zaionean.

Hizkuntzalari eta filosofoentzat eztabaidagarria dirudiena (beharbada problemaren beste maila batzutan dabiltzalako), politikozentzat garbi dago nonbait: hizkuntzak pentsamendua determinatzen duela. Horregatik politikoei ahalegin handiak egiten dituzte (zenbat Estatu agintekoiago eta handiagoak) hizkuntza erregulatzen. Herri primitiboek ongi zekiten moduan, hitzak bere efikazia duela, bere «magia», errealtatea sortzeko, aldatzeko, ezkutatzeko edo desegiteko, Estatu modernoak ere ongi daki, gizartea kontrolatzeko hizkuntza kontrolatu behar duela.

En nuestros tiempos, idatzi zuen Orwellek saio batetan, el discurso y la escritura políticos son en gran parte la defensa de lo indefendible... Así el lenguaje político tiene que consistir en gran parte en eufemismos, petición de preguntas y pura vaguedad nebulosa. Aldeas indefensas son bombardeadas desde el aire, los habitantes sacados al campo, el ganado ametrallado, las chozas puestas en llamas con balas incendiarias: a esto se le llama pacificación. A millones de campesinos se les roban sus granjas y se los echa a andar por las carreteras con no más que lo que puedan llevar encima: a esto se le llama transferencia de población o rectificación de fronteras... Esta fraseología es necesaria si quiere uno nombrar cosas sin evocar imágenes mentales de ellas.

Bai, irakur itzazue albisteak: polizia, beti, «se vió obligada a intervenir...», «repelió...» (eta «repelitzen» duen guztietan bestea geratzen da beti hilda). Eta bai: bat-batean bandera espainola «la bandera constitucional» bihurtzen da; eta egun hartako diskurtzuan «en este país...», esaten da.

Eta MULC, LOAPA, ZEN, esaten da. Orwellek, nobelaren eranskinean, *Komintern* hitza aztertzen du. Hitz honek «Komu-

nista Internazionale» laburtzen du, eta itxuraz ez du besterik egiten. Baina «Internazional Komunistak», beste gabe, himno bat entzunarazten digu milaka eztarritatik, eta mundu guztian hedatzen den mugimendu baten irudia bizten du gure begien aurrean, barrikadak, bandera gorri itsaso bat, jende-olde zabalen orroa eta beren anaitasuna. Baina hitzei bukaerak moztuz eta berezko esanahirik gabeko hiru silaba elkartzuz (kom-in-tern), dena nukleo irrazional, bizi eta zentzugabeko batetara murrizten dugu, «una palabra que puede pronunciarse casi sin prestarle un pensamiento, mientras que Internacional Comunista es una cláusula sobre la que está uno obligado a detenerse por lo menos momentáneamente». Historia bat, arima bat, bulego bihurtu da.

Orwellen nobelan Estatuak bere Hizkuntz Akademia dauka, hizkuntzaren manipulaziorako, eta azkenean (2050 aldera) Estatuaren interesen araberako hizkuntza berri-berri bat ezartzeko. Hizkuntza guztiz razional bat, balorazio eta sentimenduen konnotazio orotatik zuritua, aritmetikako zifra-mintzairaren arabera (adibideak nobelan bertan ikusi behar). Hizkuntza berri hartan, esplikatzeko du Syme akademikoak, «pentsamendu-krimena literalki ezinezkoa izango da».

Orwellek nobelari eranskin bat gehitu dio, Hizkuntza Berriaren printzipioei buruz hain zuzen. «The purpose of Newspeak, irakurtzen da hor, was not only to provide a medium of expression for the world-view and mental habits proper to the devotees of Ingsoc, but to make all other modes of thought impossible. It was intended that when Newspeak had been adopted once and for all and Oldspeak forgotten, a heretical thought, that is, a thought diverging from the principles of Ingsoc, should be literally unthinkable, at least so far as thought is dependent on words».

Idealismo absolutu bat

Azken finean Estatu modernoaren okerrena ez da kontrola, edo errepresioa, etab., baina bere naturaz beraz gezur erraldoi baten instituzionalizazioa izatea eta besterik ez. Sentimenduaren eta irudimenaren aurka (tradizioa, etab.), Estatu modernoaren arrazoi-menarena omen da. Baina hau (zeinek inkarnatzen du arrazoi-mena?), egia, etika, balioak, zientzia, berak egiten eta desegiten dituen (Estatu-) arrazoiak, arrazoi absolutua, funtsean eta egiaz ez da subjektibismo eta erlatibismo hutsa besterik, bi eta bi bost esan

ahal izaterainoxe. Absurduena ere itxurazko bihurtzeraino alegia, eta beharrezko bihurtzeraino.

Beren hitzetan Estatuok omen diren gizartearen arrazoizko etxea, ez da fikzio baten fikziozko etxea besterik. Berek asmatzen eta armatzen duten fikzio batena (historia berridaztetik hasiz eta hizkuntza berriak asmatzeraino), gero denei inposatzeko. Bergaminek salatzen zuen *impostura/imposición* bat-bikotea. Arrazoizkotasuna, esaten da; botere gorria, behar da ulertu. Baina zeren izenean jazarri *impostura* horri, aldeztetik arrazoimena monopolizatu badizute? Arrazoimenaren izenean behintzat ezingo da jadanik. Samjatinetik fantasiaren izenean, Orwellek maitasunarenean, nobelatu digute beren protagonisten errebolta. Baina biek porrot egingo dute.

«Uste duzu, Winston, galdetzen zaio interrogatorioan Orwellen protagonistari, iraganaldiak zinezko existentziarik ba-duela?... Konkretuki existitzen duela — espazioan?» Epaileak berak ematen dio erantzuna: «Errealitateak pentsamenduan bakarrik existitzen du, beste inon ez («reality exists in the human mind and nowhere else»). Baina ez gizabakoitzaren pentsamenduan, ekiboka bait daiteke, eta nolana ere epe labur baten buruan berak ez bait du gehiago existituko, baizik eta Alderdiaren pentsamenduan bakarrik, hau kolektiboa eta hilezkorra izaki».

Izan ere, nola izan lezake arrazoi, batek bakarrak, milioikaren aurka? Galdera horrek eraman zuen Sokrate heriotzara. Ez, ez dago kolektibitatearena beste egiarik. Eta kolektibitatea gaur Estatu da, Alderdia, Anaia Handia.

«Ez da erraza zentzuduna (arrazoizkoa) izatera iristea», aitortzen du O'Brien epaile-torturatzailerak. Eta torturatzen jarraitzen du.

J. A.

Kulturaren bilakaera Iparraldean

P. Xarritton.

Duela bost urte bi zenbaki berezi eskaini zizkion Iparraldeari JAKIN aldizkari honek: JAKIN, 9 eta 10. zbk. (1979). Bizpalau artikulu ari ziren Iparraldeko literaturaz, pinturaz edo kantugintzaz. Ez ditugu gai horiek berriz ukituko. Dezagun erran bakarrik, eztabaida askoren ondotik sortzera doan Baionako Kultur Etxeak kultur sail horiek oro —eta beste zenbait— behar lituzkeela ederki lagundu.

Baina artikulu horietaz bestalde, bazeuzkan JAKINen 9. zenbakiak orduko euskal irakaskuntzaren eta irrati-telebisten egoeraz zenbait orrialde interesgarri. Horko datuei konparatuz gaurko egoera argitzea dugu hemen xede.

1. Euskal irakaskuntza

1.1. Unibertsitate mailan.

Ez da hemen aldaketa handirik izan, nahiz irakasleen aldetik bi euskaltzale ezagun sartu diren berriki eskaini diren bi aulkietan: Txomin Peillen Paben, Eugène Goyenecheren orde eta Jean Baptiste Orpustan Bordalen Jean Haritschelhar-en lagun.

Baionan halere, Bordaleko Unibertsitatearen babesean, Unibertsitate mailako euskal irakaskuntza hasi ziren, duela hiru urte, antolatzen. 80-100 bat ikasle —berak edozein eskolatakako irakasleak gehienak— jarraiki zaizkio irakaspen horri eta astean 6-7 ordu eginez, 40 bat ikaslek eskuratu dute oraingoz bigarren urteko Unibertsitate-diploma eta 20 batek hirugarren urteko Pariseko ministeritzak onartu ageria: Certificat de culture et langue régionale basque.

Baionako urrats hori zerbait bada. Urrun gaude, ordea, gure ACIEB —Association pour la Création d'un Institut d'Etudes Basques— batasunak amestu eta gure politika-gizonek hitzeman helburuetarik: hots, euskal irakasleen moldatzeko eta birmoldatzeko, eusko-ikerkuntzaren bultzatzeko behar dugun Ikastegi Nagusi berezi hartatik eta harekin doazen lizentzia, maisutza eta beste diploma legezkoetatik.

1.2. Eskoletan

Aitzinamendu gehixeago izan dugu menturaz euskararen alde-tik gure eskoletan, bereziki Frantziak sozialisten gobernu berria ukan duen azken hiru urte honetan. Ez hargatik bigarren mailako eskoletan. Hemen erretoreak izendatu du begirari bat euskal irakaskuntzaz arduratzeko, baina irakasleen kopurua ez da aldatu eta programa berri zehatzik ez da, beraz, nihondik agertu. Lehen bezain gibelatuak gaude gobernuaren nahiz elizaren eskoletan. Erran nahi dugu, ikastegi batetako buruzagiak berak aski gogoko badu euskal irakaskuntza, ikastegi horretan zerbait aurki daiteke: hala nola gobernuaren eskolentzat D. Lohizunen, D. Garazin edo Angelun eta elizaren eskoletan Donapaleun, D. Lohizunen edo Uztaritzen; baina buruzagiak berak euskararik ez badu entzun ere nahi, hala nola Baionako Largenté serora-etxean, orduan deus ez da izanen gurasoen eskabideengatik.

Ikastolen sailean, duela bost urte oraino amets-kontu geneukan bigarren maila ireki izan da 1980an eta urrian aurten, Kanboko ikastolen bigarren mailak 80 bat ikasle biltzen ditu, Iparralde oso-tik, lau gelatan.

Lehen mailako eskoletan eta ama-eskoletan gauzak aldatzen hasi direla irudi luke: ikus bada.

Gobernuaren eskoletan, duela bost urte 10 irakasle ibiltarik 1.550 haur ikusten zituzten ama-eskoletan. Handik hara doi-doa

20 bat irakasle ziren 270 eskoletarik euskara pixka bat beren gostuz eskaintzen zutenak. Besterik ez. Gaur, aldiz, 27 ibiltari baditugu 27 sektoretan lan egiten dutenak, 270 eskoletarik 142tan, 4.200 haur ikusiz. 19.000 ume bait dira denetara, erran dezakegu orain % 22etan garela hemen. Bestalde, iragan urtean, bi gela elebidun —frantsesa eta euskara hein berean jarriz— ireki ditu gobernua Saran eta D. Lohizunen, ikusteko omen zein ondorio dakarketen. Orain jakin behar urrats honen ondotik besterik eginen duenentz frantses gobernua. Uste ez den tokietan ere bait da euskal irakas-kuntzaren eskea gurasoen aldetik, hala nola Baionan Aturriren eskuin-aldean.

Elizaren eskoletan 4 ibiltari bait ziren 1979an 733 haurrentzat eta 34 eskola ukituak bait ziren 64etatik, gaur eskola beretan 8 ibiltari badabilta 1.500 haurrentzat: hau da, denetara diren 6.400 haurretatik % 23. Bestalde «Haziak» deitu elkarte berriak 3 irakasle hartzen ditu bere gain euskara hutsez ari direnak Hendaia, D. Lohizune eta Kanboko elizaren eskoletan. Badakigu ere eskola horietan irakasle askok, bere ber jarraipen bat ematen diola ibiltarien lanari, bereziki Azkainen, Senperen, Kanbon etab. Azkenekoz jakin dugu arduradun berezi bat ukanen dutela aurten elizako eskolek euskal irakaskuntzarentzat. Ez dute, ordea, erdietsi beste bi ibiltari berri izendatzea. Beharrak oraino handi direlarik.

Ikastoletan berriz *Seaska* batasuna, hamar urte lehenago sortuz gero, hau da 1969an, 400 haur hurbil elkarretaratzera, 20 bat ikastoletan, 34 irakaslerekin, heldua zen. Baina ikastola gehienak ama-eskolak ziren. Lehen mailakoak hiru bakarrik ziren.

Geroztik *Seaska*-k, ez badu ere bere sarea hainbat hedatu —Biardarten, Beskoitzen eta Baigorriin ama-eskolak ireki ditu; baina Mugerre eta Bidartekoak berriz hetsi ere, haurrik ez izanez, eta, hortakoz, ama-eskoletako umeen kopurua ez da bost urtez hainbat goratu: 400eko horren inguruan dago—, bere erroak bederen finkatu ditu: Lehen mailako 9 eskola badauzka orain, 3ren orde eta 260 ume maila horretan eskolatzen ditu, Kanbon bigarren mailarentzat antolatu duen ikastetxea aipatu gabe. Irakasleen kopurua, aldiz, igan da 34etatik 74etara. Oroz gainerik *Seaska* borrokatu da frantses gobernuaren aldetik ofizialtasun eta legezko laguntza zerbait erdiesteko: 1983ko urriaren 14ean kontratu behin-behineko bat sinatu zuen horrela Pariseko Hezkuntza ministeritzarekin. Ikasturtea bururatzarekin, badirudi, ondorio onak izan dituela delako kontratuak. Orain ikusi behar bide horretatik aitzina joan nahiko duenentz frantses gobernua eta *Seaska*-k bere aldetik abegi zabalagoa aurkituko duenentz Iparraldeko gurasoen artean

bere ama-eskolen sarea oraindik hedatzeko moduan, gaurko 400 horiek gaindituz.

1.3. Gau-eskoletan

Zinez urrats handia egin da Iparraldean gau-eskolen sailean azken bost urte honetan. Orduz gero dira alabaina elkarretaratu eta egituratu euskara ikasten ari ziren talde gehienak, A.E.K.ren batasunean. Bazter gelditu diren talde bat edo besterengatik, Iparraldeko AEK taldeak oldar ederrean eraman du bere saila: 900 ikasle biltzen ditu bere 90 irakasle eta 5 liberatuen inguruan. Ne-hork uste baino abiadura aberatsagoa eman zion azken aldiko *Korrika*-ri eta udabeteko ikastaldietan 75 ikasle eskolatu ditu, hiru ikastalditan.

2. Euskal komunikabideak

2.1. Idatziak

Komunikabideak aipatzean, prentsa idatzia gogoratzen zaigu lehenik denoi. Prentsa idatziaz, ordea, ez dugu zer erran handirik. Hor dugu beti jaun eta jabe Iparraldean *Sud-Ouest* frantses egunkaria bere 36.000 alerekin egunero. Hegoaldeko haurrideak bezala, euskaldun egunkariaren zain gaude beti. Agian orain arteinoko egunkari «abertzale» berriek, eskuineko ala ezkerrekoek, baino serioago kontutan hartuko gaituztela, gu Iparraldeko «umezurtzok»!

Euskara hutsean ari zaigu, berrogei urte honetan, *Herria* aste-karia, nahiz azken lau urte honetan *Herriz-Herri*-ri eta lehenago-tik *Enbata*-ri uzten dien maiz gai «beroenen» erabiltzea, frantses erdara oparoenean, zorigaitzez! Berdin euskara hutsean ari zaigu, hiru urte honetan, *Maiatz* aldizkaria, baina aldizkari literaturzale hori berriketarien sailean sartu behar dugun ez genekike. Aipatu ditugun astekari «abertzaleek» aldiz, *Herriz-Herri* eta *Enbata*-k, baita *Ager* edo *Abil*-ek ere, lekua xuhur ematen diote euskarari. Baluke oraino zer erran gure Xalbador zenak horrelako «abertzale» erdalzale horietaz!

2.2. Ahozkoak

Ahozko komunikabideetan edo entzun-ikusizkoen munduan izan dugu gure ustez aldaketa handiena, bost urte honetan Iparraldean. Orain arte hain arrotz geneukan mundu hori guk ere euskaldunok menderatzen ahalko dugula sinesten hasi gara.

Alde batetik, alabaina, Lapurdiko itsasertz honetaraino bederen heltzen zaizkigu, Jaizkibel gainetik, bai Euskadi Irratia bai Euskal Telebista eta agian biak indartuz joanen bait dira, bata nahiz bestea, ondoko urteetan Iparralde guztia estaltzen ahalko dute.

Iparraldean berean, bestalde, gobernu sozialistak bere eskuko dauzkan irrati-telebistetan ez badio ere eman gure mintzairari aitzineko gobernuak baino leku hoberik, bere solas eder guztiengatik, legeztatu bederen ditu gobernuaren menean ez diren irrati libreak. Lege berri hori dela eta sortu zaizkigu bada Iparraldean irrati berri asko. Hauetatik batzuk beti bezala baztertzan dute euskara, hala nola Baionako udalaren *Radio Bayonne*-k; beste batzuk aldiz euskara baliatzen dute baina bigarren mailako mintzairan lerroan ezarritik, gaskoina eta portugesa bezala, hala nola *Radio Adour Navarre*-k, goizean ordu batez, eguerdian ordu-erdi batez, eta igandetako mezan euskaraz aritzeko, «Herri-irratia»-ren izen ederraz jabetzen denak; *Xiberoko Botzak* eta *Irulegiko Irratiak*, aldiz, frantsesa baliatuz ere, lehentasuna nahi diote eman ahalaz euskarari. Lan ona egiten dute, nahiz eremu mugatua hartzen duten, beren izenak dioen bezala. FM 93,8 eta 93,2 Mhz-etan ari dira bi posta horiek.

Baina oroz gainetik badugu orain Iparraldean FM 89,5 Mgzetan Milafrangatik ari zaiguna, eta beti euskaraz, *Gure Irratia*. Ahal bezala bizi izan da orain arte. Teknika aldetik eskas handiak ukan ditu. Oraino ere Baigura-mendi gainean bere haga ezin finkatuz eta bere mintzalekua Baionan jarri nahiz dabil. Bere langileen artean desberdintasun handiegiak nabari dira ofizioaren aldetik. Hartze zituen laguntza guztiak ez ditu menturaz erdietsi, euskaraz baizik ez zuelako ari nahi; baina orain arte iraun du eta hastape-neko xedeari ez dio uko egin. Emeki-emeki Iparraldeko bazter orotan sartuko da eta aurkitu dituen trabak gaintitzearekin, euskararen alde daraman lan ederrarentzat euskaltzale guztien eskerra hartze izanen du. Agian bai! Orduan egiaztatuko da gaur hemendigo: azken bost urte honetako gertakari nagusia Iparraldeko kultur alorrean euskarazko gure irratia sortzea izan dela.

P. X.

Entretien d'un philosophe: Diderot (1713-1784)

Joxe A. Otaegi

Rue Saint-Honoré. Les Halles inguruan ostrak afaldu, zoragarria da batzutan mundua, makina bat euskaldunek eramango zuen sorpresa, etxe baten horman «Hemen hil zen Krisostomo Arriaga» deskubritzeko begien aurre-aurrean. Hemen hil zen, beraz. Joan Krisostomo. Haize izpirik ez dago Parisen. Argi epel, hori bat.

Harat-honat pasian jarraitu dugu, hainbat kaleren inportantzia historikora lerratzen zaigu axolagabeko solasaldia. Historia handia eta historia txikia, honelakoxe kaleetan egin da. «Eta jendeak ez du jakin ere egingo!». Esate baterako, Entziklopedia jaio ere kale honetantxe jaio zen. Madame Geoffrin-en saloietan.

Ilustrazioaren krema eta florea biltzen omen zuen Madame Geoffrin-en «royaume de Saint-Honoré»k. Hala deitzen zioten. Marivaux, Marmontel, Grimm, Helvetius, batez ere d'Alembert. Batez ereago Diderot, esan beharko dugu aurten. Kale honetantxe abiatu zuten denen artean Entziklopedia. Madamek izpiritua eta subentzioa ematen zuen, gozotasuna. Lana: Voltaire, Montesquieu, Fontenelle, Buffonek beren lankidetzaz agindu zuten; seguru, Rousseau ere etorriko zela; d'Alembert buru-belarri lanean sartua zebilen. Diderot zen proiektu guztiaren zuzendaria.

«Ba, hain zuzen aurten da berrehun urte Diderot hil zela», esan du norbaitek, Peñafloida, Bergarako Erret Mintegia eta ez dakit zer gehiago aipatu ondoren. «Heriotza xelege bat, ia komikoa». *Le premier pas vers la philosophie, c'est l'incrédulité*, esan zuen hil

baino lehentxeago. Gero hil, ateista bezala hil zen, noski. Baina suhiak 1.500 liberako hileta solemnea agintzen zuela eta, Saint-Rocheko bikarioa prest egon zen Diderot bere elizan hobiratzeke, azkeneko mementuan konbertitu egin omen zela esanez. «Ateista hutsa bera, eta sakramentu guztiekin lurperatu zuten».

Eztabaidatxo bat sortu da segituan, ETAko batzurekin azken denboran erabili diren hobiratze-moduengatik. Denok ados ginen, edozein kasutan ere hildakoaren borondateari errespetoa zor zaiola. Ekibokatu izan balitz ere, berdin da. Diferentziak borondate horren formazioan zeuden. Norbere gustua, ala kolektibitatearen mentalitatea eta hobiratze ritualak hobetsi behar ote liratekeen. «Kontua ez da sinestea ala ez sinestea. Kontua heriotzaren sentido soziala da, bizitzearrena bezalaxe. Herriaren izenean borrokan bizi eta gero, ezin eroriko gara indibidualismoan justu hiltzeko mementuan. Bere bizitza herriaren instrumentu bezala justifikatu duenak, ez dauka heriotzan instrumentu berdina ez izaterik, bere gogo partikularra egiteko». Gehienera, halere, ridikuloa iruditzen zaie, sinesgabea izan eta gero Elizako zeremonia artean hobiratzea. «Horregatixe, hain zuzen; heriotzarena ezin izan daitekeelako bizitzarenaz beste sentido bat». Ez dut uste inori asko inporta zitzaionik.

«Dena dela, nik neuk Dideroten kasua ez dut hain komikoa ikusten, berrasi du norbaitek haria. Idatzirik erantzuna zion berak Mariskalesari: «hiltzeko puntuan bazeunde, Elizaren zeremonietara makurtuko zinateke? —Horixe egingo nukeela!».

—Absurdua da!

—Ez, ze ikusi egin behar bait da sinesgabe edo ateista izatea ere zer den kasu bakoitzean. Erabat arrazoizkoa eta elementala iruditzen zaigu, zer sinesten du kristau horrek, galdetzea; zer sinesten du mohametano horrek, antzinako euskaldun hark. Eta berdin-berdin galdetu beharra dago: zer da sinesten ez duena ez-kristau horrek, ez-mohametano horrek?

—Eza eza duk eta kito, ez zegok beste misteriorik.

—Dagoen misterioa pertsona bakoitzaren egintza kontziente guztiena duk eta ez duk gutxi. Egunero ikusten duk, sinesten dutenen kasuak denak desberdinak direla. Ernesto Cardenal eta Heinrich Böll edozeinek zekik ez direla Toledoko Artxapezpikua. Ez sinestea, ordea, beti gauza bera eta berdina balitz bezala hartzen diagu. Eta ez. Pertsonak bezalaxe, mila modutako sineste eta ez sinesteak egon behar diate, sineste eta ez sineste inteligenteak behintzat. Utzikeriaz, edo alferkeriaz eta nagikeriaz, edo tradizio hu-

tsez, modaz, konbentzio eta erosotasun sozialez egitekotan, seguruenik berdintsuak dituk sineste guztiak eta ez sineste guztiak. Baina orduan sinetsi ala ez sinetsi ere berdintsu izango huke.

—Ez dela berdin, alegia, Marxen ez sinestea eta Dideroten ez sinestea.

—«Zu al zara ezertan sinesten ez omen duena?», galdetu zioan Dideroti Mariskalesak.

—Bai.

—Baina zure moraltasuna sinestun batena da...

«Eta zergatik ez?» —«Zein motibo dauka sinesgabeak zintzoa izateko?». Gaiztakeriak hil ondoren zigorrik ez badu, ez egiteko arrazoirik ez dagoela, pentsatzen zian, jende askok orain ere bezala. Eta Diderotek: jaiotzatiko neure plegua, hezkuntza, nahi duzuna, eta gero, azken batean, neure konbikzio arrazoizkoa, «qu'à tout prendre, il vaut mieux, pour son bonheur dans ce monde, être un honnête homme qu'un coquin». Horixe da dena, Madame la Maréchale, eta besterik ez dago.

—Hori morala duk, ez erlijioa, eta moral deskarnatu bat, gainera. Ze, jende askori erlijioak ematen dion indar morala begien bistan bait dago, hamar ume izan zituzten geure ametatik hasi eta Nikaraguaraino. Heuk esan duk, eta orain erlijioa eta morala banatu egin nahi dituk.

—Ez dizkiat nik banatzen. Baina banatuta daudenean banatuta zeudek eta esango didak nola egoten diren jende gehienarengan. Egon dauden bezalaxe hartu behar dituk, horixe duk kontua. Barentzak erlijioak ez dik ezer esan nahi; besteari lagundu egiten zioke bere moraltasunean, hirugarrenari enbarazo. «Il en est de la religion comme du mariage, esan behar. Le mariage, qui fait le malheur de tant d'autres, a fait votre bonheur et celui de M. le Maréchal. La religion, qui a fait, qui fait et qui fera tant des méchants, vous a rendue meilleure encore; vous faites bien de la garder».

—Oso tolerantea.

—Oso ilustratua eta galantea batez ere. Pertsona interesgarria ematen dik Mariskalesa horrek. Azkenean Münster-en bizi eta hil omen huen gainera.

Obligaziozkoa zen denok barre egitea. Kuriosoa da, nolana ere, Dideroten adiskiderik onenak beti alemanak izan omen zirela, Grimm eta d'Holbach bereziki. Goethek «egiazko aleman»tzat jotzen du, Schiller-ek imitatu egiten du, eta itzuli; Hegelen Fenome-

nologian Dideroten influentzia nabarmenak omen daude, eta Markek bere autore kuttunena aitortzen du.

Kontua ez da nik ala zuk erlijioa eta morala banatzea, edo ez banatzea. Kontua da pertsona bakoitzarengan nola ematen den. Gizarte bakoitzean zer gertatzen den. Konkretuki ematen den moduan zer eragiten duen. Zer balio duen barruti bakoitzean. Politikan, adibidez. Edo negozioetan. Hau da, erlijioak moralitasunari ezer gehitzen al dion, eta non, eta nola. Administrari katoliko deboto batek, aitortu eta arima festarako prestatu, eta agian pixka bat gutxiago lapurtzea Bazko bezperan biharamunean baino, oso posible da. Zertxobait da, erlijioaren alde on hori. Baina une berean erlijioak eragiten dituen ezinikusiak eta gerrak eta kiskalpenak eta Inkisizioak ere zertxobait baino gehiago dira, erlijioaren emaitzak bait dira horiek ere. Eta Diderotentzat bederen ez du balio, horiek «abusadioak» eta ondorio okerrak direla esateak: munduko gauzarik inportanteena Jainkoa deklaratzeko, eta une berean Jainkoa ulertezinezkoa deklaratzeko, gizonen arteko akordioa ezinezkoa deklaratzeko da, hain zuzen punturik inportanteenean. Gero ondorio «okerrek» zuzen-zuzen eta aisa segitzen dute.

Ez du balio, kristautasuna Jainkoak errebelatua dela esateak ere, eta ez dela beste edozein erlijio bezalako, eta bera dela egiazko moralitasuna, denok obeditu beharrezkoa. Sinesten dutenak eta sinesten ez dutenak daude. Eta, lehenengo, kristautasuna erlijio errebelatua bada, eta sinesmena Jainkoaren argia eta grazia baldin bada, berak doan emana, sinestea ez dago gure esku, eta sinesten ez duena, Jainkoak argirik eman ez diolako da. «Mais, est-ce que celui qui fit les sots les punira pour avoir été sots?».

Sinestu, ez sinestu, errebelazio eta grazia kontua baldin bada, gizonak ez daki ezer Jainkoa zer dabilen eta hobe du, hori dena isilik dagoenari utzi eta, bera ere isildu. Jainkorik ez baldin badago, ez da ezer pasa; eta baldin badago, Diderotek espero du, bere kontzientziaren arabera xalo eta zintzo jokatu duena, Jainkoak ez dezakeela zigor eterno batekin kastiga, bere uste sinesgabeetan ekitokatu izan balitz ere. Igoal hanka sartu du, bai, baina «si ce n'est pas une vertu que d'avoir de l'esprit, ce n'est pas un crime que d'en manquer». Sinesgabeak ere badauka bere uste ona eta bere esperantzak edo desesperantzak edukitzea, eta bere morala, Jainkoarekin kontaktu gabe.

—Horrek denak Matusalem baino testuinguru zaharraoetara garamatzak, motel! Diderotek sinesgabearen munduan ibiltzeko eskubideak defendatzen dizkik. Haren denboran mundu guztiak

sinestuna izan beharra zeukaan, igandero mezatara joan beharra, Estatuak hori dena exijitzen ziolako, ez Elizak bakarrik. Baina kontu zaharrak dituk horiek.

—Bai eta ez. Nik ez diat esan nahi, lehenago sinesgabeen aurka intolerantea izan zen bezala, orain intoleranteak sinestunekin izan behar dugula. Baina zer egin behar da, erlijioa gizartean kaltegarria baldin bada: toleratu eta beste gabe utzi?

—Ez duk, bada, heuk esan, «comme du mariage» dela? Ba-zuentzat ona eta besteentzat txarra.

—Baina hori maila pertsonalean esaten dik, eta pertsonekin bazekeigu tolerantea izan behar dela. Baina, eta zer gizartean? Balio al dik gizartea hobetzeko? Beno, nik ez diat zalantzarik egiten, gizatalde bat edo elkarte bat hobetzeko balio duela. Erlijio guztietan ikusten duk, fedeak sekulako pertsonalitate apartak eta elkarte txalogarriak inspiratu dituela, gaisoak zaintzeko, pobreei laguntzeko, artea egiteko ere. Non zeudek, ordea, erlijioak hobetu dituen Estatu, polizia, nazioa, Parlamentua, Armada, merkataritza, produktio industrialak? Intolerantzia, erlijio-gerrak, Inkisizioa, etab., aldiz, hortxe zeudek. Eta horiek ez zegok toleratzerik.

Dideroten kapitulu karakteristiko bat daukagu hemen. Aitortu beharra daukat neuk ere, aspaldian kezkatzen nauela, oraindik ez dudala oso garbi ikusten. Diderotek ez du inoiz ukatu (erlijio-ara-zoekiko aburuetan zalantza-balantza handiak izan zituen bere bizitzan zehar), erlijioak norbaiti pertsonalki edo talde mugatu, konkretuari pribatuki mesede egin diezaiekeenik. Baina, oro har, bizitza publikoan eta sozialean erlijioari ez dio ikusten deus positiborik. «Dans aucun siècle et chez aucune nation, les opinions religieuses n'ont servi de base aux mœurs nationales», esaten du. Oso poliki kontrastatzen ditu grekoen eta erromatarren jainkoak («la canaille la plus dissolue») eta herrion moral zindoa («les plus honnêtes gens de la terre»). Kristautasunarekin gauzak alderantziz aurkitzen ditu: erlijio sublime bat kristautasuna bera, baina «est-ce qu'il y a des chrétiens? Je n'en ai jamais vu».

Zuzen uler bedi: hori ez da kristauen kritika bat, kristautasunarena baino. Zeren eta, esango luke Diderotek, Parisen bat-batean hogeit mila kristau egiaz kristau bihurtuko balira, Mendiko Sermoiaren arabera, ez gizarterik eta zibilizatorik eta ez ezer izango bait litzateke posible eta denak ero-etxeetan sartu beharko lirateke.

Adibidea etxean daukagu. Pertsonalki eta pribatuki bai, zuri eta neri balio diezaguke eta beste jende askori, geure jokabide par-

tikularretarako; baina zer balio du kristautasunak Euskadi askatzeko, esate baterako? Ez ote da enbarazo hutsa, Mirandek zioen moduan? Nola azkartu industria, bizkortu zientziak, eragin progreso historikoari ebangelioaren izenean? Nola aska, edo nola altxa herri bat, klase zapaldu eta zupatu bat, «dohatsu *zarete* pau-break, dohatsu *zarete* orain gosse zairetenok, dohatsu *zarete* orain nigarrez zaudetenok» horiekin, edo beste exigentzia haiekin, «onhets itzazue zuen etsaiak: ungi egiezue gaitzesten zaituztenei; othoitz egizue oldartzen zaizkizuenakgatik; mathela batean ioiten auenari, para iezok berzea ere: eta eure mantoa edekitzen drauanari, iakka ere ez tiezoala debeta»? 1965erako argi eta garbi planteatua zeukan Txillardegik problema hori, *Kristautasuna eta mundutar garaitzapena* saioan.

Diderotena, jarrera hauxe da:

C.—... Liburu inspiratueta bi moral dago: bata arrunta eta nazio denetan, kultu guztietan berdina, eta bete ere gutxi-gorabehera egiten dena; bestea, nazio bakoitzaren eta sinesten den kultu bakoitzaren propioa, tenploetan predikatzen dena, predikatu, etxeetan ohoratzen dena, ohoratu, eta bete, batere betetzen ez dena.

La Maréchale.— Eta nondik dator bitxikeria hori?

C.— Ezin-ezinezkoa izatek herri bat azpiratzea, pertsona melankoliko batzuri baino ez dagokien, eta beren plegu tristearen araberaz asmatu duten araudi bati. Konstituzio monastikoekin gertatzen dena gertatzen da erlijioarekin: denborarekin denak lazotu egiten direla. Bere legera biltzen gaituen naturaren bultzada etengabekoari ezin eutsi dioten eldarnioak dira. Egizu, bada, gizabakoi-tzaren ona hain onura orokorrari loturik egotea, hiritar batek ia ezin izateraino gizaritari kalte egin, bere buruari ere kalte egin gabe; asegura iezaiozu onbideari saria, okerrari zigorra aseguratu diozun moduan; inolako kultu-diferentziarik gabe, edonolako girotan egon, merezimendua izan dadila, Estatuko kargurik altuenera eramaten duena; eta ez konta jende gaiztoen multzo txikitxo batekin baino, natura perbertso batek, ezerk erremediatu ezinda, biziora makurtzen dituenen multzotxo alegia. Andre Mariskalesa, tentazioa gertuegi dago eta ifernua urrunegi; ez dago zer alferrik itxaron, haurrei baino sinesterazterik ez dagoen hainbat eritzi bitxiren sistema batetatik: krimenera bultzatzen duena, gainera, espiazioaren erraztasunarekin; gizon kide bati egindako irainagatik barkapena eskatzera Jainkoarengana bidaltzen duena, eta, egiteko natural eta moralen ordenua, obligazio kimeriko batzuren ordenuari azpiratuz, doilortzen duena.

Igoal egunen batean etorriko naiz, Dideroti buruz luzekiago mintzatzera (ez da segurua: egunak bihar ere 24 ordu besterik ez du izango). *Le Neveu de Rameau*, *La Religieuse*, *Jacques le Fata-*

liste, irakurgai tentagarriak dira. Dena dela, orain, hurrengorako luzatu gabe, *Entretien d'un philosophe avec la Maréchale de ****-ko naturaren kontzeptu hori osatu nahi nuke piska bat, XVIII. mendearen oso propioa eta funtsezkoa delako. *Voyage de Bougainville*-tik arituko naiz. Rousseau gogoratzen du biziki (baina azkenean haserretu egin ziren biok).

Nahi duzu jakin ia gure miseria guztiaren historia laburra? Hona hemen. Behin batean bazen gizaki bat, gizaki naturala: gizaki honen barruan gizaki artifizial bat sartu dute gero; eta bizialdi guztia irauten duen gerra zibila sortu da leize-zuloan. Batean gizaki naturala da bortitzena; hurrengoan gizaki moral eta artifizialak zangoperatzen du; batean zein bestean, munstro gaisoa beti astindua, kateatua, tormentatua, bidean jausia; etengabe auhenka, beti zorigaitzokoa, duela behin loriaren entusiasmo faltsu batek transportatzen eta mozkortzen, edota ahalke faltsu batek makur-apaltzen duela eta abailtzen.

Horra gizadi zibilizatuaren zorigaitza. Naturaren inperioa ezin desegin daiteke gizonaren baitan. Edozein modutako trabak eta eragozpenak, aginduak eta zigorrak oposa dakizkioke («ez duzu ezagutuko zeure emaztea besterik», etab.); dena alferrik izango da. Horixe gertatzen da, hain zuzen: zenbat eta naturaren kontrarioa-goak aginduak, hainbat eta gutxiago betetzen dira, hainbat gogoragoak dago jarri beharra zigorrak, hainbat eta basaki zanpatzailleago gizartea...

Si vous vous proposez d'en être le tyran, civilisez-le [gizon naturala]; empoisonnez-le de votre mieux d'une morale contraire à la nature; faites-lui des entraves de toute espèce; embarrassez ses mouvements de mille obstacles; attachez-lui des fantômes qui l'enfraient; éternisez la guerre dans la caverne, et que l'homme naturel y soit toujours enchaîné sous les pieds de l'homme moral. Le voulez-vous heureux et libre? ne vous mêlez pas de ses affaires: assez d'incidents imprévus le conduiront à la lumière et à la dépravation; et demeurez à jamais convaincu que ce n'est pas pour vous, mais pour eux, que ces sages législateurs vous ont pétri et maniéré comme vous l'êtes. J'en appelle à toutes les institutions politiques, civiles et religieuses: examinez-les profondément; et je me trompe fort, ou vous y verrez l'espèce humaine pliée de siècle en siècle au joug qu'une poignée de fripons se promettait de lui imposer. Méfiez-vous de celui qui veut mettre de l'ordre. Ordonner, c'est toujours se rendre le maître des autres en les gênant.

Eta Rousseau aipatu dugunez, (haren tema nagusiak bistan daude pasarteotan), gogora dezagun, hura ere Saint-Honoré kale honetantxe egon zela bizilagun, Ignazio Maria Altunaren etxean

bizi izan zenean. «La bruyante rue Saint-Honoré, esaten du Rousseauk *Aitorkizunetan*. Ezaguna da, genevetarra eta gure azkoitiar ilustratua («vertueux Altuna») beti sesioan ibiltzen zirela elkarrekin, denari eta edozeri buruz etengabeko eztabaidetan. Eta halere Rousseauk inoiz izan zuen adiskide minena izan omen zen Altuna hori. Baina ez dut orain kaleon historia gehiagorekin distraitu nahi.

Altuna, dena dela, ez zen euskaldun ilustratu bakarra. Euskal Herrian mugimendu ilustratu bizkorra egon zen XVIII. mendean, Frantziako influentziaren pean: Azkoitiako Zaldunxoak, etab. Dideroten *Entziklopediak* berak, Bergaran bakarrik, 11 harpidedun omen zituen. Baina ilustratuok Elizarekin eta giroarekin elkar-jo zuten. Lur jo zuteñ, egi esateko. Alferrik harrotzen gara Peñaflo-rida eta beste argizale handiez, Euskal Herriak sozialki ez zuen Ilustraziorik izan. Eta, lehenago, erlijio-gerrarik ez zuen izan, eta erlijio-askatasunaren eta tolerantziaren fenomenoza ere ezin izan zuen ezagutu, ondorioz. Erlijio-gerrak XIX. mendean ezagutu ditugu guk, sentimendu erromantiko sutsuen aroan, ez humanismoaren eta arrazionalismoaren garai zorrotzetan.

Ilustrazioa ez da erlijioaren kritika bakarrik. Gizarte batek bere barren gutzia kritikoki berraztertzea da, antolaera sozial eta ekonomikoetatik arteraino, pedagogiareino, erlijioraino. Baina ikusi dira, ikusi, Ilustrazioaren amorru berezia eta ondorio iraultzaileak lurralde tkatolikoetan, eraultza erlijiosoa ezagutu zutenetan baino askoz kiskalgarriagoak, ez bait da zaila asmatzea zergatik. Eta ez da zaila asmatzea, zergatik Euskal Herrian gaur egungo eztanda moral eta intelektualak hainbeste biolentzia sozial erakusten duen (ezin duen ez erakutsi). Historiak, naturak bezalatsu, ez bait du saltorik ematen, esan ohi denez, galdutako denbora lasterka bakarrik erre-kuperatzen da. Problema, ordea, ez dira zakarkeria gutxi-asko itsusi batzu, arloaren gogoetari behin eta berriro eman ezin diogun sakontasunaren falta baizik, geure presaren presaz beharbada.

Izan ere, azkeneko ehun urte honetan erlijioa eta politika nahas-turik dabilzkigu. Askatasun-borroka batetan gabilta eta (gizona bere osoan askatu nahi bada behintzat, bere gizartean alegia eta bere baitan) problemak ez zaizkigu planteatzen liburuetan eztabaidatzeko, praxi pertsonalean eta sozialean erabakitzeko baizik. Hon-ek, halere, ez luke gogoeta sakon bat eskusatu behar. Biolentzia eta moralasuna, edo ebangelioa, biolentziaren kondena ebangeli-koren bat erortzen denean (inoiz ez, omen, «politikoa») bihurtzen zaizkigu problema eta solasgai. Hildako Eтарren baten hiletak eramaten gaitu, ez beti, Elizaren eginkizunaz pentsatzera, edo ebange-lioak euskal borrokarekin zer ikusi behar duen galdetzera... Ezta-baida-puntu konkretu, mugatuak etengabe pizten zaizkigu. Problema bere osoan eta sustraietatik hartu eta miatu, Ilustrazioa galdua errekupeperatzekotan egin beharko litzatekeen moduan, ez

heredatu bakarrik, ez dugu inoiz egiten. Eta ez gehiegi arrazonatu nahiago duen sinesteko nahiz ez sinesteko jarrera intimoetara irris-tatzen da isil-isilik jende gehiena, arazo pribatu hutsa balitz bezala Euskal Herrian, eta historian, erlijioa.

XVI. eta XVII. mendeetan Euskal Herriari kristautasunak balio izan zion: zeinek esaten du XX. mendean ere balio behar dionik? Kristautasunak asko balio izan dio hainbat amari eta aitari: balio al dio semeari, ETAn? HBan, EEan? Eta zeintzu izango lirateke arrazoiak, ez diola edo ezin diola balio erantzuteko?... Apenas dira, aitortzen dut, afalondo baterako edo kalean pasian konpontzeko gaiak. Ez dira artikulatu-mutur honetan garbitzekoak ere. Diderotekin ari ginen. Eta ez dakit haren planteamoldeak eta soluzioak oso gogo-beteegarriak ote diren. Printzipiozko arazo bezala bai, arakatu ditu gaiok Diderotek, baina hark ere gehienbat soluzio pertsonal bezala erabaki ditu, gure modura, tolerantziaren eta askatasunaren izenean. Bakarrik, orduan adore pertsonal eta intelektual handia behar zela soluzio horretarako, eta orain komodoena horixe dela. Jarrai dezagun.

Ez dago, beraz, erlijioaren arazoa isolatuta planteatzerik. Gizaratearen antolaera gutzia planteatu behar da (ikusten da, Marxek nondik daukan, erlijioaren kritikari ekonomia politikoarenak segitu behar diolako). Gizonaren egiazko natura «korrumpitzen», edo behaztopatzen eta kateatzen duen gutzia. Gizona «askatzea» da kontua.

B.— Pasa ezazu historia, mendeena eta nazioena, antzinako nahiz modernoena, eta gizonak hiru kodigori azpiratuta aurkituko dituzi, naturaren kodigoari, kodigo zibilari eta kodigo erlijiosoari, eta elkarrekin bat inoiz etorri ez diren hiru kodigo hauetakoren bat haustera behartuta txandaka-txandaka; eta hortik sortu da (...) ez gizonik egon, ez hiritarrik, ez erlijiosorik inon egotea.

A.— Zuk, zalantza gabe, morala gizonen artean dirauten harreman eternoetan oinarrituz gero, apika lege erlijiosoak sobera legokeela, ondorioztatuko zenuke; eta lege zibilik egoteekotan, naturaren legearen aitorza besterik ez lukeela izan behar.

B.— Hori, gizon prestuak egin ordez, gaizkinak biderkatu nahi ez bada behintzat.

A.— Edo, hirurak gorde behar direla eritziko balitz, azkeneko biek lehenengoaren kalko garbi hutsak izan beharko lukete, eta besterik ez, gure bihotz-barrenetan zizelatua hura bait daramagu, eta bortitzena ere bera izango bait da beti.

B.— Hori ez da zehatz-mehatz horrelaxe. Jaiotzakoan guk, ekarri, besterik ez dakargu, beste izaki batzuekiko antza baizik organizazioan, premia berberak, atsegin berdinetarako isuria eta oi-

naze berdinen higuin komuna: horra zerk duen zertzen gizona zer den, eta zerk oinarritu behar duen hari dagokion moralak.

«Beno, esan nuen orduan: guzti honekin nik heriotzaren kontu hartara etorri nahi nuen. Diderotena nik neuk maila pertsonalean ez dudala komikoa ikusten. Bai sinestea eta bai ez sinestea behar bezala erlatibatu direnean, bere logika du Dideroti gertatu zitzaionak, edo ez du inportantziarik. Alegia, ez zuen absolutizatzen bere ez-sinestea, XIX. mendeko batzuk egingo duten eran. Horrek humanoago bihurtzen du. Ahuleziaraino humano nahi baduzue, baina ahulezia gabeko humanitaterik ez dago; ala?».

—Bost axola Dideroten ahulezia pertsonalak orain, berrehun urtetara.

—Ez zekiat zer esan. Azkenean gizon bat bere doktrinak baino gehiago bere jarrerak duk seguru asko. Eta Dideroten kasuan behintzat, hark pentsatu ere halaxe pentsatzen zian. Inportantzia gizonaren berezko naturak baldin bazeukak, erlijioa gorabehera berdintsu duk.

«Azken finean, esan zioan Mariskalesak, le plus court est de se conduire comme si le vieillard existait».

C.— Même quand on n'y croit pas.

La Maréchale.— Et quand on y croirait, de ne pas compter sur sa bonté.

C.— Si ce n'est pas le plus poli, c'est du moins le plus sûr.

Haren heriotzako berrehun urtegarren honetan, hainbat gauza legoke aipagarriago, Dideroten omenez. Ez dakit hau dena nola biztu den orain berriro nere buruan. Haize-izpirik ez zebilen, gu Proventzatik Langres-era heldu ginen udaberri hartan, Maite eta biok (Diderotek beti sorterriko haizeak gogoratzen bait ditu). Baina udaberri epel, hori bat zen. Eta nolakoxe sorpresa izan zen guretzat, ustekabean «Hemen jaio zen Diderot» deskubritzea ate baten gainean. Aitzakia horrekin, irakurtzen hasi ginen, denbora pasa. Eta behingoan ohartu genuen, Dideroten idazkietan erreprezio moralak eta erlijiosoak duten inportantzia. Langres zaharrea, Herriko Enparantzatik Porte de Navarre-ra paseatzen imaginatzen dut orain «Filosofoa» (horrela deitzen zioten), Marneko landa berde, gozoak begiratzera herriko ttonktor inguruetan. «Nous parlerons, esanez bere buruari, contre les lois insensées jusqu'à ce qu'on les réforme; et, en attendant, nous nous y soumettrons. Celui qui, de son autorité privée, enfreint une mauvaise loi, autorise tout autre à enfreindre les bonnes. Il y a moins d'inconvénients à être

fou avec des fous, qu'à être sage tout seul. Disons-nous à nous-mêmes, crions incessamment qu'on a attaché la honte, le châtement et l'ignominie sont les plus grands de tous les maux». Haize berri fresko bat zen pentsamenduan.

J.A.O.

Kataluniako Parlamentuaren 7/1983 Legea, Hizkuntz Normalizazioaz

Miquel Strubell i Trueta

Ez du inork zalantzarik egingo, Penintsula Iberiarreko gaztelaniaz beste hizkuntzetako herri guztiak (portugesak salbu, noski) desafio ikaragarri baten aurrean daudenaz: gaztelaniaren hegemoni politika garaitzeko apustuaren aurrean, alegia. Estatu osoan, populazioaren ehuneko handi baten kultur berezitasunik nabari eta oinarritzkoenenganako mespretxu erabatekoz, hainbat mendez gero ezarri eta sustatu den politika dugu hori.

Politika honek, batetik, ondare kultural kolektiboa arras pobretu du; eta, bestetik, ez-gaztelauentzako justizia bilatzen duten errebindikazio-mugimenduak sorrerazi ditu.

Komunitate desberdinok maila askotako ahaleginak ari dira egiten beren kultura propioa aberasteko, eta horietako batetaz ihardun nahi nuke hemen: marko juridikoaz. Zehazkiago, ofizialtasun bikoitza ezartzen duen Konstituzioaren eta katalana Kataluniako hizkuntza propio aitortzen duen Estatutuaren babesean, hizkuntz normalizazioaren lege bat idatzi eta onartu duen lehen komunitate katalandunari dagokion marko juridikoaz.

1983ko apirilaren 23an argitara zen 7/1983 Legearen atarikoak xeheki deskribatzen ditu hizkuntza katalanaren egungo eskasi egoeraren kausak:

Lehenik, katalanaren duela bi mende t'erdiko ofizialtasunaren galera dago, Oin Berriko Dekretuak zirela medio, gaztelania ezarri bait zuten hizkuntza ofizial bakartzat; XX. mende betean, katalan hizkuntza eta kulturaren aurka 1939tik aurrera abiarazitako debeku eta pertsekuzioekin indartuko zen neurri hau.

Bigarren, XIX. mendearen erdialdera obligaziozko irakaskuntza ezartzeak katalana Kataluniako eskoletatik urruntzea ekarri zuen, horietan, 1978a arteko alditxo batzu salbu, gaztelania eta gaztelaniaz bakarrik irakatsi bait zen aginduz.

Hirugarren, pertsona gehienbat gaztelanidun ugariren Katalunian kokatzea, Kataluniak egitura sozio-ekonomiko, urbanistikoa, eskolar eta bestelakorik ezin eskaini ziezaiekeelarik gertatu da urte askotan zehar: Generalitateak aitortzen eta errespetatzen dizkien beren kultur identitate propioetatik egin ahalko zuketean, horien bitartez, inkorporazio eta aportazio osoa gizarte katalanarentzat.

Eta, azkenik, gaztelaniazko masa-komunikabide modernoan agerpenak, horietan bere paper erabakitzailegatik telebista aipatu behar bait da, katalana arlo publikotik ia erabat ezabatzen lagundu du.

Beste faktore bat aipa genezake oraindik, 1939an hasitako errepresioaren eta katalana arlo publikoetatik urte askotan baztertzearen ondorioa berau: ia sektore guztietan oso zabaldua dagoen inertzia, funtzio linguistikoa guztietarako erabat gai den hizkuntza baten erabilera-normalizazioa oztopatzen duena. Horregatik, normalizazio-prozesuaren helburu oinarrizkoenatarik izan behar du inertzia hau garaitzeak, herriaren kontzientziazio sakon baten bitartez.

Nabarmena da katalanak errepresio bortitza jasan duena. Giro sozio-politikoak ametitu duenean, haren erabilerak izan duen hedadurari zor zaio hori, horrek inola justifikatzen ez badu ere. Ez dugu ahaztu behar katalanak ordeztu zuela latina administrazio-hizkuntza bezala XIV. eta XV. mendeetan, eta garai horretako literatura-produkzioak heldutasun handiko kultura baten berri eman digula. Arriskutsua da beti ere, geldiro gertatutako aldaketa sozio-kulturalen datak finkatzea; baina, irakurlea gutxi gorabehera kontura dadin, esan dezakegu, Kataluniako biztanleria (eta honetan sartzen ditut Valentziakoa eta Balear Irletakoa), oro har, elebarkarra izan zela XVIII. mendea aski aurreratu arte, eta gaztelaniaren ezagutza generalizatua ez zela lortu (eta partzialki, gainera) XIX. mendearen azkenalderarte, eta mende honetan Balear Irletan.

1939az geroko errepresioak eragin handiagoa izan zuen Katalunian, katalanaren erabilera-normalizazioa eginagoa bait zegoen arlo publiko askotan; hauen artean aipatzekoak dira:

1. Irakaskuntz zentruak (Universitat Autònoma de Barcelona barne dela, non, data hura baino lehen, irakasle askok katalanez ematen bait zituen bere eskolak).

2. Administrazioa: korporazio lokalek eta, noski, Mankomunitateak eta 1931z geroztik, Generalitate errepublikanoak katalanez egiten zituzten beren dokumentu guztiak.

3. Komunikabideak: katalanezko hogeitamar egunkari baino gehiago zeuden 36ko gerraren aurreko urteetan, eta katalana zen irratian nagusi.

4. Nabarmentzekoa da, baita, Kataluniara 20. urteetan iritsitako lehen inmigranteen (batez ere aragoar, murtziar eta galiziarren) hizkuntz eta kultur integrazioaren maila altua.

«Eskasi egoera» batean intziditu nahi du, beraz, hizkuntz normalizazioaren legeak, gizarte kataluaniarrean.

Legearen edukina

Legeak atariko eta bost titulu ditu. Lehenik, Legearen helburuak ezartzen ditu «Títol Preliminar»ek, lauok:

- a. Hiritar guztiek katalana erabil dezaten babestu eta sustatzea.
- b. Arlo publiko guztietan eraginkor egitea katalanaren erabilera.
- c. Komunikabide sozial guztietan normalizatzea katalanaren erabilera.
- d. Katalanaren ezagutzaren hedapena segurtatzea.

Artikulatuak argi uzten du biztanleriaren eskubidea katalana ezagutu eta erabiltzeko; pentsamendu- zein nahi-agerpenek ezin dezaketela, Katalunian, inolako diskriminaziorik sor katalanez egiten badira, eta hizkuntza ofizial bataren nahiz bestearen erabilera ezin dezakeela pertsona-diskriminaziorik sor; horrek ez du esan nahi, jakina, hiritarren ezagutza linguistikoak kontutan hartzerik ez dagoenik Administrazioako eta beste enpleguetako postu hutsak betetzerakoan.

Behar den ahalmen juridiko osoaz jokatzeko gai egiten du Atariko tituluak Gobernu katalana, Estatutuan eta Legean aitorturiko hiritarren eskubideak eraginkor bihurtzeko beharrezkoak izan

daitezen akzio politiko, administratibo edo judizialak gauzatzeko. Akzio judizialen aipamen honek eragin du, hain zuzen, Gobernu zentralaren bi konstituziokontrakotasun-inpugnazioetarik bat, oraindik ebazteko dagoena.

Títol I: De l'ús oficial: Generalitatearen, lurralde-administrazio kataluniarraren, administrazio lokalaren eta Generalitatearen menpe dauden korporazio publiko guztien hizkuntza propioa dela katalana xedatzen da.

Halaber, katalana eta gaztelania Katalunian hizkuntza ofizialak izateari edukina ematearren, xedatzen da, Parlamentuaren Legeak, Generalitatearen eta Kataluniako udaletxeen aginduzko xedapen eta ebazpen ofizialak Generalitateko Egunkari Ofizialean bi edizioetan argitaratuko direla, katalanez eta gaztelaniaz. Katalana Generalitateko (eta honen parte da Parlamentua) hizkuntza propioa izateak justifikatzen du, zalantzazko interpretazioen kasuan, Lege baten katalanezko testua kontsideratzea baliozkotzat. Haatik, puntu konkretu honek eragin du Gobernu zentralak aurkezturiko beste konstituziokontrakotasun-inpugnazioa.

Hala eska dezaten hiritarrek Generalitatearen eta Udaletxeen ihardun administratiboen dokumentazioaren gaztelaniazko itzulpena eskuratzeko duten eskubidea zaintzen da. Beste xedapenen artean nabarmentzea komeni da, Kataluniako toponimoek forma ofizial bakartzat katalanezkoa izango dutela erabakitzen duena eta eite publikoko enpresetako enplegatuek jendea katalanez atenditzeko beharrezkoak diren ezagutzak izan beharko dituztela erabakitzen duena.

Títol II: De l'ensenyament: bi hizkuntza ofizialak ikastearen beharrezkotasuna bermatzen du hezkuntz maila guztietan, eta agintzen, katalana, ikasketa-hizkuntza propioa denez Katalunian, gero eta gehiago erabiliko dela behikulo bezala beren lehen ikasketak gaztelaniaz egin dituztenek katalana menderatu ahala. Goi-mailako ikasketetako ikasle eta irakasleen eskubidea birresten da katalanez zein gaztelaniaz mintzatzeko. Bai ikasleek eta bai irakasleek bi hizkuntzak ulertzea segurtatzeko kurtsoak eskaini behar dituzte Unibertsitateek. Azkenik, irakasle guztiek bi hizkuntzak ezagutu beharra daukate beren irakaslanaren eskakizunen araber, eta irakasle-eskolek titulu berri guztiek bi hizkuntzak menderatzea garantizatuko dute, haiek irakaskuntzara sartzeko baldintza beharrezko izango delarik hau.

Títol III: Dels mitjans de comunicació: Generalitateak katalanezko teatroa, zinema, aldizkako prentsa eta produkzio editoriala

indartuko duela erabakitzen da, eta katalanaren erabilera normalizatuko duela konpetentzia edo gestio autonomikoko komunikabide sozialetan, kasu bakoitzeko hartzaileen katalan-ezagutza hobetuz joan dadin.

Títol IV: De l'impuls institucional: artikulua-sail bat du, katalanaren irakaskuntza Generalitateko eta Kataluniako Udaletxeetako funtzionarioei garantizatzeke eta dokumentuen itzulpen ofizialaz arduratzeko dagoen Generalitatearen organoa deskribatzen duena. Generalitateko Gobernuak eta Udaletxeek eragingo dute katalanaren normalizazioa merkataritz ekintzetan, publizitatekoetan, elkarteenean, kirolezkoetan eta bestetan. Gobernuak jarraitu egin beharko du biztanleriaren kontzientziazio-lana hizkuntz normalizazioari dagozkionetan.

Títol V: De la normalització de l'ús de l'aranès: Pirinio kataluniarreko eta Garona ibaiaren sorburu den Aran-go bost mila biztanleek aranera dute beren hizkuntza propioa, okzitanieraren aldaera berau. Generalitateak lortu du, horretarako sortu espezialista-batzorde baten bitartez, behin-behineko arau ortografiko batzu elaboratzea, horiei esker Legearen aginduak bete ahal izango dituelarik, hots: araneraren irakaskuntza eta erabilera garantizatzea haraneko eskoletan eta komunikabideetan.

Estatuaren Administrazio periferikoaren Kataluniako esparruetan katalanaren erabilera normalizatzeke beharrezkoak diren gestioez dihardute xedapen gehigarriek.

Azkenik, agintzen da, bi urteko epe gehienekoan, katalanaren erabilerak normala izan beharko duela Generalitatean, administrazio lokalean eta Generalitatearen menpe dauden beste erakunde publikoetan.

Legearen zehazpena

Legea indarrean egon den lehen urtean, hainbat erabaki hartu da, hura aplikatzeko, Dekretu eta Agindu lerrunearekin. Lehenik, Departament d'Ensenyament-en 362/83 Dekretua dago, 1983ko abuztuaren 30ekoa, eta irailaren 8ko Agindua, Kataluniako hezkuntz zentruetako hizkuntz normalizazioa arautzen duena. Normatiba honen apartatu batzuren aurka errekurtsioa egin zuen Gobernu Zentralak, eta gero erretiratu, bi administrazioetako eran-

tzule gorenen arteko elkarrizketen ondoren. Gero, Hizkuntz Politikaren Zuzendaritza Orokorraren egitekoa berretzen duen Dekretua aipa daiteke: Generalitatearen beraren normalizazio-prozesua eragitea eta gidatzea da egiteko hori (397/83 Dekretua, irailaren 8koa). Hirugarren, irailaren 8ko 396/83 Dekretuak «Comissió per a la Normalització Lingüística de la Generalitat» sortu du: Departamentu bakoitzeko Zuzendari Orokor mailako ordezkariak osatzen dute eta Hizkuntz Normalizazioaren Legea bete-razteko eginkizuna du, Generalitatearen administrazio-esparruan. Horretarako, Departamentuetako maila apalagoko eta, batzutan, Zuzendari Orokor mailako ordezkarien bilera teknikoak egiten dira. Asmoa zera da: ordezkariok, bakoitzari dagokion arloan, hizkuntz normalizazioaz arduratuko diren hizkuntzalariak izatea, Hizkuntz Politikaren Zuzendaritza Orokorraren koordinazio-pean.

Aipatzekoa da, halaber, Merkatalgo eta Turismo Departamentuaren 389/83 Dekretua, irailaren 25ekoa: askatasun osoa ematen du, Katalunian komertzializatzen diren kontsumo-produktuen etiketatua bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egiteko, gaztelania ezartzen zuten hainbat Gobernu Zentralen xedapen-sail luzearen eite diskriminatzaileari aurre eginez. Dekretu horren kontra ere (bere motibazioan ez du esplizitoki aipatzen Hizkuntz Normalizazioaren Legea) errekurritu egin du Gobernu Zentralak, eta Auzitegi konstituzionalaren epaiaren zain dago.

Hizkuntz politiken arteko liskarra

Aipatu lege-xedapenei Gobernu Zentralak egin inpu gnazioak ez dira, hala ere, Kataluniako Generalitatearen hizkuntz politikak dituen arazo legal bakarrak.

Horrela, adibidez, errekurtsuok egiten dira oraindik Kataluniako zenbait erakunde publikotarako oposizioetan katalana kontutan izatearen kontra. Jakina, ez da Katalunian hizkuntz normaltasunik lortuko bi hizkuntza ofizialetako bat, katalana, ezagutzen ez duen edo postua lortu bezain laster ikasi behar duen funtzionalgo batekin.

Begi-bistan dago, Gobernu Zentralak ez duela planteatu hizkuntz politika demokratikorik eta, ondorioz, lehenagoko politika bera mantentzen duela hein handi batean: Administrazio periferi-

koaren ia publizitate-kanpaina guztiak eta ia inprimaki guztiak gaztelaniaz bakarrik egiten dira; funtzionalgoaren parte handi batek, segurtasun-indarren eta Justizi Administrazioako kideak barne, ez du inolako birtziklajerik egin eta, katalanaren ezjakintasuna alegatuz, hiritarrei gaztelania inposatzen die; bere kompetenziakoak dituen arloetan erabat inhibitzen da Gobernu Zentrala, hala nola Iberia, Renfe edo Telefonikan (azken hau katalana sartuz doa bere ihardunean, Generalitateak egin gestioei esker); eta Gobernu Zentralak kudeaturiko komunikabideetan desoreka ikaragarria mantentzen du katalanaren eta gaztelaniaren artean (RNEren bost emisoretatik batek bakarrik ematen du katalanez, oso urria da oraindik katalanezko programen presentzia TVEn, etab.).

Zerrenda hau gehiago ez litzatzearen, gertakari benetan harri-garri, zeharo azientifiko eta, zenbaitentzat, lotsagarri bat aipatuko genuke: hizkuntz eta literatur agregatu eta katedratikoen oposizio eta trasladoak, institutu-mailakoak adibidez, bide desberdinetatik dabilta Katalunian eta Komunitate Valentziarrean, bi hizkuntza desberdin balituzte bezala. Honela, valentziar asko, katalan-irakasle izanik, ezin daitezke beren herrira traslada, berriro oposizioak eginez ez bada. Antzeko zerbait gertatuko balitz gaztelaniari dagokionean («extremeño»-oposizioak edo «andalus»-oposizioak, kasurako), pentsa zer-nolako saltsa sortuko litzatekeen irakaskuntzaren maila guztietan: aisa sumatzekoa da profesionalen haserre.

Gertakariok arazo larria agertzen digute herri iberikoen elkarbizitzarako: hizkuntz politika bat baino gehiago dagoela Katalunian (eta beste komunitate ez-gaztelanidunetako bakoitzean). Normalizazioaren alde diharduten administrazioentzat higapen izugarria dakar honek. Nekez justifika daitekeen eragozpena da ikuspegi konstituzionaletik, eta are nekezago soziolinguistikotik.

Legearen balioztapena

Legeak, oro har, aurrerapauso nabarmena egin du hizkuntzen berdintasunerantz, Kataluniako esparruan. Gobernu Zentralak ere zeregin handia du prozesu honetan, eta zentzu honetako jarrera espero izatekoa da, berdintasunen batera iristea hurbilago egon dadin: adibidez, Gorteen Ganbaretan hizkuntza ofizial guztiak libreki erabiltzea; Estatuko kapitalean eta beste hirietan galegozko, katalanezko eta euskarazko eskola publikoak sortu ahal izatea; hizkuntzok erabat inkorporatzea eginkizun publizitario eta, oro

har, publikoetan: Iberia, Renfe, Seat bezalako enpresetan, Tabacalera eta Campsa bezalako monopolioetan, eta ministraritzetan beretan.

Hala ere, lege hau indarrean sartzearekin abiarazi den hizkuntz berdintasunerantzko urrats apal honek erreakziorik sortu bide du esparru ugartan gaztelaniaren nagusigo-egoera defendatu nahi duten pertsonengan; eta, agian, legea talde parlamentari guztiak onartua izateari zor zaio Legeak gaurdaino ezadostasun inportanterik ez sortu izana Katalunia-barnean.

Kataluniako Hizkuntz Normalizazioaren Legea da lerrune honetako lehen xedapena Kataluniaren historian. Bi aurrekasu baka-rik ditu, eta lege-tasunik gabeak: 1931 eta 1977ko elebitasun-dekretu (gaizki) deituak, katalana heziketa-zentruetako ikasketa-planetan obligazioz sartu zutenak. Informabideen arabera, aurrekasu legislatiborik ez egote honek eragin zuen talde parlamentari batek, sozialistak, zalantzak izatea hizkuntzaren gaiak legislatzearen komenentziaz. Zergatik legistatu orain, lehen aldiz, II. Errepublikakoan adibidez, Generalitateak egin ez zuenean?

Erantzuna, hizkuntza katalanaren bi uneon arteko historian bila daiteke. Katalana, gerra-ondoko urteetan, hain gogor erreprimitu eta hain erabat baztertu ondoren bizitza publikotik, inmigrazioa kultur eta hizkuntz integrazioarako benetako ahalbiderik gabe aurkitu zen, lehenago genioenez. Inmigrazioak, gainera, gizarte kataluniarreko hainbat sektore giltzarri neurri handitan afektatu zituen: honela, epaile eta magistratu gutxi dira kataluniarrek, funtzionari publiko gutxi, eskola publikoetako maisurik gehienak ere ez dira kataluniar. Honi gehitzen badiogu Administrazio publikoan katalana erabiltzeko praktikarik eza (II. Errepublikakoan ez bezala, aurretik Mankomunitateko eta Udaletxerik gehienetako katalanaren erabilera hedatua bait zituen honek), oraingo egoera ordukoa baino askoz larriagoa dela ikusiko dugu berehala.

Legea, hortakoz, Kataluniako parlamentarien deklarazio bat da, katalanaren egoera soziolinguistikoaren larritasunaz.

Legearen helburu soziolinguistikoak

Honela aurkezturik, helburu pedagogiko zabala du Legeak. Besteren artean, eta arrazoizko epe batean, katalana ohizko erabilerako hizkuntza propioa izango duten Administrazio eta hez-

kuntz sistema eskaini nahi dizkio Kataluniako populazioari, askoz errazago balia dadin bere eskubide linguistikoaz.

Nolanahi ere den, legeak ez ditu hiritarrak beren eskubideez baliatzera *behartzen*, izan ere konstituzionalki ez bait dago lurralde-printzipioaren onarpenik eta bi hizkuntza ofizialek elkarbizi behar bait dute Katalunian. Horregatik, Administrazioak behartza mugatzen da eta hiritarren eskubide linguistikoak zeintzu diren erabakitza.

Muga hauen barruan, argi dago katalanaren errebindikazioak, Legearen bidez behikulatuak, zentzu nabarmenki nazionala duela. Gertatzez, berreskurapen politikoaren gaurko prozesuaren bizkarrezurra da errebindikazio hau eta hori azpimarratzen du Lege honek talde parlamentari guztien baiezkotua botua lortu izanak.

Bada Legeak gizarte kataluniarra hizkuntz normaltasunera azkarrago iristea eragin zezakeela diotenik. Baina talde parlamentarietatik hurbil dagoen soziolinguista entzutetsu zenbaitek (hala nola, Partit Socialista Unificat de Catalunya-ko Francesc Vallverdú-k) uste dute, lege-sail bateko lehena baino ez dela oraingo hau, gizarte kataluniarreko gero eta sektore gehiagotan eragingo duten legeetako bat, lege bakoitzaren helburu berriak gizarteak berak asumitzen dituen neurrian. Hau litzateke, adibidez, Québec-eko legegileak egindako bidea.

Dena dela, katalanaren eta gaztelaniaren ofizialtasun bikoitz honek nabarmenki trabatu du normalizazio-prozesua, batez ere Administrazioak bere administratuekin dituen harremanen mailan. Erraza dirudi honelako lege-egoera bat irudikatzeak: lurralde-printzipioan oinarriturik, ofizialtasun bakarra katalanari aitortuko liokeena, baina Katalunian bizi den populazio ez-katalandunari garantiak eskainiko lizkiokeena. Ez da hain erraza, ordea, egoera hori posible egingo lukeen marko juridikoa, Konstituzio espainola, aldatzea. Muga bat du, horregatik, Kataluniako legegileak: adibidez, Belgikan, Québec-en edo Suizan daukatena guztiz azpikoa.

Euskadi eta Katalunia: desberdintasunak eta antzak

Euskal irakurleak, lege hau Euskadikoarekin erkatu nahiko du. Puntu asko dituzte, izan ere, amankomunean Euskadiko eta Kataluniako Hizkuntz Normalizazio Legeek, batez ere hiritarren esku-

bideei dagokienean Administrazioekiko beren harremanetarako. Haatik, desberdintasun zenbait ere aipa daiteke. Adibidez, Lege kataluniarrean ez dago tratamendu geografiko berezirik batere: ez dago zona linguistikorik. Arlo honetan aipatu behar den puntu bakararra Kataluniako bigarren hizkuntza propioari, aranerari, emandako tratamendu berezia da. Hiritarren eskubideak, aldiz, bi hizkuntza ofizialekiko, berdinak dira Printzerriko lurralde osoan.

Baina praktikan dira nabarmenak bi kasuen arteko diferentziak: katalanaren erabilera generalizatua administrazio-idazkietan gertakari bat da; eta, katalana erabiltzeko zailtasunen bat sortzen denean, hiritarrak egunkarietara jotzen du berehala arazoa salatzera. Katalanezko irakaskuntza gero eta eskola gehiagotara hedatuz doa, eta prozesu honen eragile nagusia ez dago inondik ere zentru pribatuen esku: Gironako zentru publiko gehienak, kasurako, katalanizazio-fase aurreratu batean daude. Bartzelonako «industri gerriko»an gertatzen da geldien eta zailen katalanizazioa, irakaslegoan ez-katalandunak gehiengo izanki (ikasleen gurasoen gehiengo ez bezalakoa, ordea).

Inolako zalantzarik gabe, euskal eta kataluniar kasuen berdintasunik handiena errepresio- eta marginazio-mendeak dira. Kezkagarriak dira oraingo Estatuak lehengoaren ezarpen linguistikoe-tako batzu defendatzen jarraitzen duela adierazten duten seinaleak: adibidez, oraingo nahiz trasladatutako funtzionarioei edo periferi mailako funtzionari-gaiei katalan-gaitasunaren birtziklaje- edo konprobazio-eskakizunik ez egitea.

Amaitzeko

Mendetan zehar zapuztu den hizkuntza baten erabilera sustatu eta babesteak diskriminazioarekin duen zerikusia, jubilatuei pensioak emateak duena adinakoa da, edo baliapide ekonomiko urriko hiritarrak inpuetoetatik libratzeak bestekoa, edo hiri handietako bazter-auzoetan eta aldirietan eskolak jasotzeak adinakoa. Normalizazioa burutzeko eginahal guztiak diren-direnean onar daitezten saiatu beharra dago, eta ez dago inondik ere ametitzerik, herri askotako milioika pertsonak hitzegiten duen eta bere etorkizuna erabat segurtatua duen hizkuntza baten kontrako atentatu eta mehatxu bezala aurkeztea ahaleginok.

Euskaratzailea: Jose Antonio Aduriz

M. S. T.

Zein hizkuntzatan eman iker-lanak?

Euskaraz mundura?

Martxel Aizpurua

Sarrera

Sei urte igaro dira *Jakin* aldazkarian *Zientzi euskara* izeneko artikulua argitara nuenetik. Duela gutxi, lagun batekin hari buruz, edo behintzat gai horri buruz, aritu nintzen. Elkarrizketa horren ondoren, nere orduko artikulua berrirakurri dut eta «Euskaldunok ikerketa mailako lanen argitalpenean zein hizkuntza erabili behar dugun» gaiari buruz burutik pasa zaizkidan ideiak agertu nahi nituzke.

Nere lantxo hartan (*Jakin*-3, 1977) nioena, hau zen labur amanda:

- Iker-lanak ingelesez, edo alor bakoitzean hedadurarik zabalena duen hizkuntzan, argitara behar genituzke.
- Laburpen zabal batzu eman euskaraz, lan bakoitzaren ondoren. Zabal esatean, hamarretik bat bezala esan nahi da.
- Argitaratzeaz aparte, eskatzen nuen: ikerketa izan dadila Euskal Herrian, Euskal Herriaz, Euskaldunok eta Euskaraz egina. Ondorioz, Tesi, Tesina, Tratatu, maila guztietako dibulgazioa etab. ere euskaraz gitea proposatzen zen.

Egoera

Sei urteren ondoren, hirugarren puntuko zenbait alor, zorioenez, geureganatzen ari garela uste dut, eta txalogarria deritzot jendeak egin duen ahaleginari.

Hala ere, iker-lanei buruz eta *Biologia*-ri mugatzen natzaiolarik, iker-lan gutxi ikusten dut euskaraz idatzia; erdaraz ari dira gehienak. Beraz, ez du gaurkotasunik galdu bigarren puntuan eskatzen zenak, hots: iker-lanak erdaraz argitaratzen direnean, hamarretik bat edo litzatekeen laburpena euskaraz emateak.

Euskararen tokia

Ikertzaileek ez dute denbora gehiegirik izaten irakurtzeko, beti ezinean dabilta, euskaldunak ere bai. Artikulu osoa irakurri beharraren orde, laburpen luze bat eskaintzen bazaie (euskaraz), euskaldun irakurlea primatzen ari gara, euskarari balioa ematen, praktikotasun errealean bat, alegia.

Erdaraz argitaratzen ari diren euskaldunei, eta euskararekin fidelotasuna gordetzen dutenei, gutxienez bide honi eusteko eskatuko genieke orain ere.

Ingelesa euskararen zerbitzuan?

Ingelesez edo argitaratu behar genituzkeela nioen iker-lanak 1977ko nere lantxo hartan. Hori eskatzean buruan nuen beste ideia hau emango dut orain: «ez argitara *Espainieraz* Hego-Euskal Herrian, ez *Frantsesez* Iparraldean».

Euskal Herrian iker-lanak hizkuntza horietan argitaratzeko arrazoi bakarra, beste hizkuntzarik ez jakitearena litzateke. Errealitate hori dela ukazina da, askotan. Bi hizkuntza horiekiko gure atxekimenduan gure muga dago: ez dugula zabalagoa den hizkuntzarik ondo idazteko moduan menderatzen. Muga hau gainditzea pentsatuz gero, bideak urratu beharko dira, ikertzaile euskaldunei lanak ingelesez ipintzeko erraztasunak emanez.

Ingelesez argitaratzea jende askoren ametsa izan daiteke, bai euskaraz bai erdaraz ari direnena. *Zein abantaila letorkioke, ordea, euskarari ingelesez argitaratzetik?*

Zorrotza galdera! Soziolinguistikan ari direnek ere balukete

hemen zer esanik, nik diodana egia den ala ez eztabaidatzeko bederen.

Lehenik eta hasteko, argi dago, bada, ez diola inori kalterik egiten ingelesez argitaratzeak, ez ikertzaile euskaldunari, ez erdal-dunari.

Hemen, planteatzen dena da: batetik, zeinek egiten dio kalte handiagoa euskarari: espainieraz edo frantsesez argitaratzeak, ala ingelesez egiteak? eta bestetik, onik egiten al dio euskarari ingelesez argitaratzeak? Azkenean, bi galderak bat bera dira, baina bi aldetatik begiratu.

Ingelesez argitaratzean (benetan hizkuntza hori da gaurko ikerketa-hizkuntza), Espainierak eta Frantsesak gure artean dituzten *Ohore, Aintza, Ospe eta Ahalguztiduntasuna* eztabaidaturik geratuko lirateke.

Ez da gauza berria euskarak zertarako balio duen galdera. Baina jende gutxik eztabaidatu du espainierak edo frantsesak zertarako balio duten. Gure lehiakide diren bi hizkuntzei oinarria kendu behar zaie ahal denean, ez gezurraz baliatuz, baizik eta alor bakoitzean gertatzen denaren berri emanez. Eta, egiatan, ikerketa-mailan ez dira ezer asko bi hizkuntzok ingelesaren ondoan.

Ikerketa-mailako artikulua hauek alor bereko ikertzaileei zuzendutako lanak izaten dira, eta ez jende arruntak ulertzekoak; baina lan hauek *Espainieraz* (Hegoaldean) edo *Frantsesez* (Iparraldean) egiten direla ikustean, lehendik euskarak ezertarako balio ez duelako konplexua indarturik geratzen dela argi ikusten dut nik.

Eta euskaraz argitaratuz gero?

Hona hirugarren proposamen bat, nik orduko artikuluan albo batera uzten nuena: «Dugun eskubidearen arazoan sartzen ez naitzelarik, nongo ikertzailek irakurri behar ditu euskaraz idatzitako lanak,» idatzi nuen.

Esan beharrik ez dago, euskaldunon esku dagoela hori ere: guk euskaraz argitaratu nahi badugu, bego!, ez dago eragozpenik. Baina, beldur naiz ez ote garen bazterturik geratuko, espainieraz soilik e.b. argitaratzen dituztenak bezala. Gurea baino hizkuntza indartsuagoek ez dute tokirik iker-plaza honetan. Ez lukeela hala izan behar? Agian ez. Baina ikerketa, beste gauza asko bezala, *lehiaketa* huts eta gogor bat da gaur egun: puntan egon behar duzu zeure eremua zaindu nahi baduzu, atzeratua geratu nahi ez ba-

duzu; denek beren *izena*-ri eutsi nahi diote, nork zer aurren argitaratzen duen korrika batean dabilta; ezer berririk duzunean, korrika eta presaka argitaratu nahi duzu, eta, hilabete batzutan itxaron behar baduzu, lana entregatu duzuneako data ipintzea eskatuko duzu. Hitz batean, borroka gogor bat da iker-mundua.

Dudarik gabe dakit zein hizkuntzatan argitaratu behar den Euskal Herriko irakurleari begira idazten den guztia; baina kanpora begira idazten denak baldintza hau bete beharko du: Laburpen bat ipini beharko du ingelesez lanaren hasieran edo bukaeran.

Horri esker agertu ahal izango da aldizkari internazionalerako aipamenetan; bestela, ez dute inon aipatuko.

Laburpen honek beharko lukeen tratamendua ondo estudiatu beharko litzateke, bost lerro baino gehiagokoa izan dadin eta lanaren benetako laburpena izan dadin. Aurreko puntuan, ingelesezko artikuluan hamarretik bat euskaraz eskatzen nuen bezala, hemen, artikulua euskaraz idatziz gero, ingelesari beste hainbeste eman beharko litzaiokeela uste dut.

Aukera gogorra iruditzen zait euskaraz argitaratzeko bide hau. 1977ko artikuluan «euskaraz ala ingelesez» labur zitekeen aukera proposatzen nuen. Agian, hobe zatekeen «euskararen eta ingelesaren arteko oreka» proposatzea.

Hala ere, euskaraz argitaratzeko eskaera honi lotzen zaion jendea ondo hartua izan arren, jokabide hau oraingo egoeraren alternatiba bezala aurkezteak erresistentzia handiagoak sortuko dituela iruditzen zait gure ikertzaileen artean. Jendeak, gure nahia bestelakoa bada ere, hedadurarik handieneko hizkuntzara joko duela uste dut, eta joera hori bideratzeari errazago deritzot ingelesez argitaratzera bultzatuz jendea. Eta gero, ingelesez eta euskaraz argitaratzen ohituko denean jendea, zein zati hizkuntza batean eman eta zein bestean erabakitzea, errazago litzateke mementu bakoitzean zer egin jakiteko.

Iker-lan osoa ingelesez argitaratu eta laburpen luze bat euskaraz gehitzearen aldeko joerak baluke beste formula posible bat: *aldizkari banatan argitaratzea bata eta bestea*.

Denok dakigu zeinen gaizki ibiltzen diren iker-aldizkariak heltzen zaizkien lan guztiak argitaratzeko. Denbora luzea itxaron behar izaten dute lanok; ikertzaileek, berriz, aipatutako lehiaketa dela eta, interesik handiena izan ohi dute lehenbailehen argitaratzeko: interes izugarria izaten dute beren alorreko aurkikuntza berrien propietatea izateko, lehenengoak izan direla adierazteko.

Horregatik, aldizkari askotan lana jaso zeneko data ematen dute, lan hartan doan azken berria noizkoa den adierazteko.

Aldizkarietako itxaron-beharrak, ordea, gaitz unibertsala dirudi, eta ez da erraz konpontzekoa. Horregatik, ez litzateke batere txarra izango argitaratzeko bide bizkor bat eskaintzea idazle euskaldunari; eta bide hau hileroko aldizkotasuna edo lukeen aldizkari bat izatea da. Euskal aldizkarietan badugu jadanik bat, gai teknikoak lantzen dituena: *Elhuyar*, alegia. Beste berri bat ere sor daiteke, baina hobe iruditzen zait lehendik duguna indartzea.

Erakunde publikoek parte hartu beharko lukete zuzenean proiektu honetan eta laguntza ekonomikoak behintzat eskaini.

Hitz gutxitan, hau litzateke bidea: Bakoitzak ingelesez idatziko luke bere iker-lana, eta berak nahi duen tokian argitaratuko. Ingelesezko lan horren bukaeran, bi lerrotan adieraziko lioke irakurle euskaldunari non eta noiz argitara den euskarazko laburpen zabal hura. Bestalde, maiztasun handiko aldizkari euskaldun batean argitaratuko lirateke laburpen zabal horiek, euskaraz idatziak. Euskarazko laburpen hauekin ingelesezko laburpentxo batek joan beharko luke, jadanik *Elhuyar*-en edo *Munibe*-n, esate baterako, egiten duten bezala.

Honekin zer lortuko litzatekeen? Batetik, euskarak funtzio praktikoa izatea, ikertzaile euskaldunek gure Herrian egiten diren ikerketen berri berehala jakinez, eta, bestetik, ikertzaileen artean ere euskararenganako interesa sortzea; interesa eta beharra.

Bukatzeko

Hau da nire eritzia, eta nere orduko proposamenaren azpian zeuden ideiak eman ditut hemen. Orain mundu horretan lanean ari direnen eritzia falta da, eritzia eta eguneroko praktika. Bide bat zein bestea, euskara indartzeko helburuarekin egina bada, onargarria izango da beti.

M.A.

Euskalerriko Atlas Etno-Linguistikoa

Txillardegia

Fermin Leizaolaren «koordinazio»pean, eta Arantzadi Zientzi-Elkartearen babesean, *Euskalerriko Atlas Etno-Linguistikoa* (EAEL) kalera da.

Liburu tekniko bat argitara da, beraz; eta, uste izan zitekeenez, isiltasun osoan atera.

Ez, horixe! Liburu mardul honek, harrabots apur bat atera du gure euskal mundu txiki honetan. Kritika zorrotz pare bat gutxienez irakurri ahal izan dugu. Nola hori?

Azalpen hori bilatzen saiatzeko JAKINEk niri galdeginik, hona hemen gogoeta batzu.

EAEL delakoa, liburu mardula

Honetatik hasi behar, agian. Tamaina handiko seirehun eta piku orrialdez osatua (hirurehun bat mapa ezkerretan, eta beste hainbeste inkesta-orri eskuinetan), Euskal Herriko bi alderdietan urte batzutan zehar bildutako erantzunez oratua, ehun bat lagun-tzaileren kilometro eta lanordu askoren bitartez burutua, EAEL hau (egia esan, bestalde, «lehenengo zatia» baizik ez) liburu mardula da. Egileek eta Arantzadi-Elkartek «zerbait» eskaini nahi izan digute. Lortu al dute?

Hauxe da norbaitek errotik ukatu duena.

Eta xuxen erantzun ahal izateko, bereizkuntza eta zehazketa batzu egin beharko ditugu.

Euskalkien inguruko lilurak

Orain dela ehun bat urte Europan barrena Geolinguistika egi-ten hasi zenean (garai hartakoxea da Bonaparte ere), hauxe izan zen sorpresarik handiena: liburuetan aipatzen ziren «dialekto» famatuak, huts-hutsik eta osorik, «nahasketa»rik gabe alegia, ez zirela inon mintzatzen. Inkesten arabera, edozein lekutako hizkerak zeukan beti halako «muga-kutsua»; alboko dialektoek puntu honetan edo hartan beti «kutsatu» izan balituzte bezala.

Ondoko urteetan, indartu edo gotortu besterik ez zen egin inpresio hura. Bi dialekto auzoen arteko muga, atzeratu edo aurreratu egiten zen muga teorikotik, eta fenomenoaren arabera. Lerro beraren gainetik pasa behar omen zuten isoglosak, «paralelo» agertzen ziren, nolabait esateko, lurralde-zerrenda zabaltxotan barrena; edota, oraindik larriago: elkar gurutzatzen zuten!

Dialektoak, horretara, oso erlatibo bihurtzen ziren hizkuntzariaren artean; eta gaur, gai hauetaz arduratzen direnen giroan, sorpresarik ez dago: gauza ezaguna da dialektoak, huts-hutsik eta inolako «kutsadura»rik gabe, ez direla inon mintzatzen.

Euskal Herrian, ordea, eta herri mailan batez ere, Batuaren inguruan sortutako ikamiketan ongi agertu denez, euskalkien absolututasunean sinesten bide du askok. Hautakizuna honetara bildu nahi dute batzuk: «Bizkaiera ala Batua»; bizkaiera gauza bakuna eta gututz garbiki zedarritua balitz bezala.

EAELaren kontrako kritika batzuk, ene ustez, ustekeria horietan bide dute oinarria. Eskualde batetan (are hiztun berberaren idiolekto berean ere) egon ohi den plurimorfismoa ahantzirik, osoki erantzun bakar eta bakunak espero dituzte.

Urola garaian, ordea, «naidet» eta «gurot» formak batera eta leku beretan entzuteak, ez du, nahitaez, inkestaren desegokitasuna salatzen; Lapurdiko baxenabarreraz «aita(r)ekin» eta «aita(r)ekilan» formak are pertsona berberaren hizkeran jasotzeak ezer harri-garririk erakutsiko ez lukeen bezala. Bimorfismoa nabarmen dagoen eskualde horietan, erantzuna estatistikoki eman daiteke

gehienez, forma honen edo haren alde; baina ez borobilki eta ximpleki.

Bitasun batzu atlas batetan agertzeak, besterik gabe bederen, ez du bildumaren balioa ezeztatzen.

Hutsune bikoitz nagusia

Arazoa, gure ustez, bestelakoa da.

Orain arte «Wörter un Sachen» (Hitzak eta Gauzak) deritzon joeraren ildotik burutu izan diren Atlasetan, hitzen balio semantiko ahalik ongienik zehaztekotan, marrazkiak eta fotoak ehunka erantsi izan zaizkio hiztegiari; «hitza» eta «gauza»ren arteko lotura ahalik eta zehazkienik azaltzeko. Ipar Italiako hizkuntza erromanikoei buruzko AIS Atlasa, adibidez, erruz dago fotoz eta argibide grafikoz horniturik. Horren urrutira gabe, eta Atlasetik at, hor dugu A. Lhanderen hiztegia, marrazki argitzailez oraturik.

EAEL honetan, berriz, nahiz «Etno» izan eta Etnografi nahia hor egon, fotorik edo marrazkirik batere ez dago; azalpen edo iruzkin semantikorik ere ez; eta berorien ordeztarburuan datorren erdal itzulpen soil hirukoitzak (frantsesez, ingelesez eta gaztelaniaz), itzulpenaren arazo semantikoak argitu beharrean, askotan ilundu ere egiten duela esan daiteke. Frantsesezko «bois» eta «foyer», adibidez, bisemikoak dira; eta nahasketa ekar dezakete. Alde honetatik, beraz, urrun gelditu da EAEL hau etnografiaren alorrean espero zitekeen zehaztasunetik.

Hots, orain Hizkuntzalaritza hertsia alderditik begiraturik ere (eta hor dago /L/ letra, «linguistiko»), besterik ere eska zitekeen. Transkribaketa fonetikoetan ez batasunik dago, eta ez zehaztasunik. Bestetarik badakigunez (baina ez EAELaren oharretan argiturik), «besoa» transkribaketak, *hiru* silabatako forma bat adierazten du Leitzan; baina *bitako* bat Artzibarren. Nola suma hori? EAEL honetan sekuentzia berbera irakurtzeak, desbideraketara eraman dezake irakurlea; eta arazo linguistiko garrantzitsu bat (diptongo goranzko *vs.* hiato) iluntzera edo ezkutatzera.

Funtsezko kritika, gure ustez, hemen egin behar da. EAEL hau, hortaz, «Etno» eta «Linguistiko»ren erdian gelditu da; eta aldeztu aurretik gauza batzu ez jakitekotan, lehendik genituen arazoak are nahasi ere egin ditzake, zoritxarrez. Sentidu honetan zuzendaritzaren hutsunea salatu behar da. Hona eta hara datu bila mugitu diren biltzaileek, lan gaitza egin dute, lan baliagarria ere bai

askotan, gehienetan agian hein batez; baina jorraketa-lana falta dela bide, lortu den datu-pilo hori, egokiro erabiliko bada, iralki egin behar da aurrenik. Ebangelioan bezala, «hiraka eta garia» be-reiziz.

Hitzaurrea idatzi duen taldeak ongi daki hau; eta Hizkuntzalaritzaren aldetik dauden hutsuneak ia-ia ilaran aitortzen ditu. Aitorpen honek, ordea, erabat linguistikoa, egileen asmo ezkutua agererrazten du; etnografiaren aldetik dagoen zehaztasunik eza aipatu ere ez bait du egiten.

Kritikarik gehienak, horretara, hizkuntzaren inguruan ari den jendearengandik etorri dira. Eta ez da harritzekoa: Euskaltzaindiak batez ere alor honetan gaur egun eta aspaldisko honetan («Erizkizundi Irukoitza» ez da atzokoa) egin duen lana ezagutuz gero.

Datu-bildumaren orekarik eza

Dagoeneko azaldutako alderdi ahulez gain, beste hau ere badago: are azterketa arin baten ondoren ere ikus daitekeenez, 80 herritan jasotako erantzun sailek ez dutela fidagarritasun berbera. Pertsonen izen-deiturak aipatzeraino joatea gogorregia litzateke, eta ez dugu hori egingo. Baina puntu batzuetan jasotako datuek barne-trinkotasuna eta oreka baldin badute ere, beste batzuez ezin daiteke gauza bera esan.

Elgoibarren, adibidez, *su* dugu (146) (=zu); baina 149.ean «zuek» dator. Zein da zuzena? Bitasun zentzugabe honek zalantza egitera bultzatu gaitu. Hots, berehala azkartu da gugan zalantza-izpi hori. Zer izan ote daiteke *badixe* (25) (= badoa)? Elgoibarren inguru guztian *badoa*, *badoia*, *badijua*; eta antzekoak irakur daitezkeelarik.

Nola uler daiteke, bide beretik, Ondarroan «zeu» entzutea, bizkarkariaz, beraz; eta Markinan aldiz «seu», apikariaz? Nola, bestalde, Arrasateko «xei» ezagunaren orde, «sei» agertzea (160)? Artean, eta Azpeitirako, «sei» espero genuen puntuan, «xei» proposatzen zaigularik?

Amenduzeko erantzun batzuren aurrean plegu bereko kezka sortzen zaigu. Nola liteke *argisaitia* (117), Urketan bertan *argizaita* aurkitu ondoren? (eta orain dela mendebeteko Atlasean, Bourciez-enean, *argizaitia* ere, /z/ letraz, agertzen delarik). Hots, Amenduze horretan berean dauzkagu beste bitxikeria batzu:

ereka, 120 (*erreka* Euskal Herri osoan); *hauxa*, 125 (*hautsa*, inguruan); *xabara*, 48 (*xabarra*, nonbait); *puzia*, 69 (= *putzia*, *putzu*); etab. Non zegoen Zuzendaria horietan ezer bitxirik ez sumatzeko?

Beste puntu batzutan bildutako materialeak (Bermeo, Saldias, Goizueta, Usi, Lekarotz, Uztarroze, Santa-Grazi, etab.), alderdi ahulak izanik ere, bestelako segurtasun-itxura du. Hau egia da. Baina Atlas-era jotzen duenak ez dauka herriz herri kritika-lan horretan sartu beharrik. Ondo jaioa legoke! Jorraketa eta galbahe-lan hori Zuzendariak egin behar zuen, baina ez du egin. Eta orain, beren horretan, inkestaren emaitzak ez dira gonbaragarriak. Aita Plazido Muxikaren Hiztegia agertu zenean bezala gaude: lan gaitza egin da, parte bat, parte handi bat agian, baliagarria da; baina kritika-lan hertsí hori egin gabe, ideia faltsuak zabal ditzake EAELak.

Kate baten esteka-indarra katenbegirik ahulenak markatzen duen bezala, EAEL honetan ere lankiderik ahulenek edo zabarrenek markatzen dute, beren inkesta-lana ongi eta zehazki burutu zuten lankideen ekarpena zalantza-giroan utziz.

Hori bakarrik ez. Inkesta-gile batzuren inkestan barrena, desberdintasun nabarmenak ageri dira.

Saldiasko biltzaileak, adibidez, zehazki emana du azentu diakritikoa lehenengo parte osoan. Baina aurrerago, kitto; bapatean bertako hizkerak bere azentua galdu balu bezala (81. inguruan). Azkeneko orrialdeetan, dena dela, zenbakariekin bateratsu, berriro ere dator azentu diakritikoa. Zergatik aldaketa horiek? Oso tamalgarria da hutsune hori. Saldiasko azentua gipuzkeraren antzekoa dela ageri da. Hiru silabatako unitateetan, (+1, -1) azentuketa sumatzen zen prototonoetan, hitz markatuetan alegia: *sémeá*, *pútzua*, *fériá*; eta (+2) markagabeetan: *sudúr*, *illéa*, *mingáña*, *biótza*. Etendura hori dela eta, hipotesia ahulago gelditu da.

Ohar bertsua egin dakiok Santa-Graziko inkestari: bapatean desagertu egiten dela azentu diakritikoa, eta gero tarteka-marteka berriro agertzen. Horretara, *bégi*, *behárr*, *súdúr*, *ábo* azentudunen ondoren, *erle*, *ainharba*, *küküso*, *zorri*, *zelü* azentugabeak ditugu. Aditzen azentuaren transkribaketa, bestalde, normalean zuzena izanik ere: *záten dü*, 20; *hártzen dü*, 23; *zín da*, 26; *sártzen da*, 27; *ikhustén dü*, 17; *entzütén dü*, 18; *senditzén dü*, 19; *elkhitzén dü*, 28; *igáiten da*, 29; *eráikitzen dü*, 60 (Oloroe ondoan orain dela 25 bat urte Zuberoara lehenengo aldiz joan nintzenez bezala, baserritar batek bota zidan *aiziák hunkitzén dü* urrun hura zuzena zen bezala), hutsak bide diren ale batzu ere badira: *edáten dü*, 21 (?); *gaintitzen dü*, 61 (?); *edatén dü* eta *gaintitzen dü* espero direlarik.

Singularra eta mugagabea

Bikote hau ongi bereiztea oso inportantea izanik, harrigarria da EAELak honi buruz erakusten duen axolagabekeria. Batez ere /a/ren eransketaz, bai azentuaren posizioan, bai bokalen beren irekiduran ere, euskalki batzutan dituen ondorioengatik. Adibidez: zergatik *borthá*, 68; eta ez *bórtha*? Zergatik, alderantziz, *sóka*, 127? Zergatik, beste alde batetik, mugagabean Santa-Grazin, eta singularrean Larrañen? Hau dela eta, sekulako diferentziak gertatzen dira Basabürüko bi herrien artean (daudenak baino handiagoak). Gogoan har, esate baterako, Santa-Graziko *érhi* eta Larrañeko *ehia* (hemen /r/a idatzi ez delako).

Sasi-diferentzia bera, bide beretik, Legazpitik Oñatira: *ate/atia; erri/errixa; arto/artua; erle/erlia*, etab. Desberdintasunak badaude; baina ez horiek.

Tamalgarría da, bide beretik, Usi-n bildutako bikotean (*itxa, itxe*, 65), elkarren kidetzat aurkeztuetan, desberdintasunaren karkoa ez aipatzea: lehenengoa singularra bait da; bigarrena, berriz, mugagabea delarik. *Iruñea*-ren polemikan luzerako dugu...

Beste sail batetan orain, aditzarenean, bi formen artean dagoen semantika-ñabardura ahantzi bide zaio inkestagileari: *juhan da, juan da*, 25 (Donamartiri). Lehenengoa, ordea, ohizkoa, gure *joaten*-en kidea da; bigarrena, aldiz, partizipioa delarik. Bi esaldiok, hitz batez, desberdinak dira Baxenabarren adieraren aldetik.

Diptongoak eta silaba-kopurua

Gauza ezaguna denez, Mendebaldeko euskalkiek (oro har, jakina) ez dute goranzko diptongorik onartzen; baina Ekialdekoek bai.

Hitz batez, eta *erlea* unitatea aipatu berri dugunez, *hiru* silaba dagozkio Mendebaldean: *er.le.a*; eta bi bakarrik Ekialdean; *er.lea*. EAELak ez du honetaz ezer bereizten (nahiz Hitzaurrean hutsune hau badagoela aitortu). Bide beretik: zenbat silaba du *biarria* hitzak? Guk *lau* esango genuke; baina hego-nafarreraz mintzo den euskaldun batek *bi*. Arazo bera beste hamaika kasutan: *eskua, agoa, besoa, olloa, begia, biotza, semea*... Zenbat silaba? Ezin jakin.

Antzeko kezka bokal geminatuei buruz. Markinako bokal bi-koitzak sinesgarri bazaizkigu ere, zehazkiago joatea oso garrantzi-

tsua zen; aspaldiko bokalismoa zertan zetzan, Prai Bartolomeri esker, ongisko bait dakigu.

Luzaiden bildu bide den *luhur* hori, 106, oso interesgarria da: aski dugu Mogelen *luurra* gogoan hartzea.

Oso interesgarria, era berean, *biotz/bižotz* eskualdeketa (9) sumatzen dena: berriro ere /h/ zaharraren aztarnak hor daude, garbi, gaurko bizkaieraz.

Azken ohar bat diptongoei buruz. Irakurleak grafiak ongi ulertuko dituela pentsa badaiteke ere, zergatik onartu da azentuketa eragaberik diptongo beheranzko garbietan? Adibidez: *aíztek* eta *aítzek* (Bermeo), bigarrena batez ere sinetsi ezina; *haúr bat*, Santa-Grazin; *zühaiñ*, 73, Santa-Grazi; *arraúltze*, 243. Otoi!

Oro har, azenturik ez

Azentuaren arazoa bidenabar ukitu badugu ere, gauza bat esan behar da: oso inkestagile gutxi saiatu dela azentua markatzen: K. Artola, Txepetx, Kortazar, M. J. Azurmendi... Hots, oso inportantea zen hau; eta oso gauza erraza ere bai Ekialdeko euskaltietan. Zergatik ez da egin?

Zenbait bikotetan (gutxiegitan, zoritxarrez) berehala sumatzen da Mendebalde/Ekialde isoglosa nagusiaren lerrogunea: *atáriye* (Urrizola), vs. *ataríe* (Gartzaron), (68). Mugarri batzu jartzeko adina bai, dena dela.

Sandhi fenomenoak

Oro har, eta salbuespenak salbuespen, ez dira sandhiak kontutan hartu. Transkribaketan grafia, horretara, esaldietan eta aditz konposatuetan batez ere, oso konbentzionala da; eta ahoskera herrikoitik oso urrun.

Sandhia transkribatu denean, bestalde, erregulartasunik gabe egin da; eta EAELaren bidez handitu ere egin daiteke nahasketa. 24. orrialdean, adibidez (está de pie, il est debout), sandhirik ez dagoela dirudi. Lauretan bakarrik agertzen da: *sútuni tao* (Mungia); *sutunitao* (Zeberio); *sutunitau* (Gernika), eta *xúti tao* (Usi). Eta sandhi-erdi bat Hernanin: *zutik to*. Nekez sinets daiteke hori. Gernikan *sutunitau* eta Zornotzan *sutunik dau* ote?

Hots, balio urria dute transkribaketa konbentzional horiek.

Herri xehearen «gaizki esanak»

Hauxe izaten da inkesta-mota honetan inkestagilea behin eta berriz mehatxatzen duen arriskua: «gaizki» esandakoak «hobeki» transkribatu nahia. Eta hauxe da Junes Cazenave xahakotar euskaltzale gartsuari (eta beste alor askotan oso fidatzekoari) mugagabe honetan gertatu zaiona: «j'ai vu six hommes sur le chemin», 240. Xahakotarraren erantzuna: *sei gizon ikhúsi düütüt bidían*. Ez bait dut aisa sinetsiko: Zuberoko beste bost herrietan singularreran dator aditza: *düt* (2), *diat* (1) eta *dit* (2). Haritxelharrek argiro frogatu duenez, berdín gertatu zitzaion Larrasketari ere (hura ere apezá, eta euskalari zorrotz eta segurua alor askotan) Etxahun zaharraren bertsoen transkribaketan. Huts bera egin zuen. Eta orain dela 25 bat urte bai, Donostian, Euskaltzaindiko bazkari batetan Eppherre kalonjeari galdera bera egiten niolarik (bera Altzürükütarra, eta euskalari argitua mila alorretan) gaizki erantzun zidan *bi librü eosi tüüt*. Nahiz, segidan, barkatzeko eskatu, eta *eosi düüt* zuzendu. Hiru apaiz jakintsu nahasi puntu berean! Aski eta erraza bait da galdera hori bera Urdatsen berriro herri xeheari egitea...

Zuzendariaren ahuleziak nabarmen

Lehenago ere esana izan da: inkesta hau behar bezala aurrera eramán ahal izateko, bi baldintza bete behar zituen Zuzendariak, ene ustez: 1/ euskara, ahalean bere euskalki guztietan barrena, ongi menderatzea; 2/ nolabait bederen, hizkuntzalaria izatea.

Baina projektu honen Zuzendariak euskaraz hitz egiten ere ez daki; eta hizkuntzalaria ere ez da.

Besterik gertatzea, beraz, miraria litzateke.

Zuzendariak Iraberriko inkesta (Artzibarren) burutu zuen bere buruz; eta datu horien azterketan sendotzen da gure susmoa. Hona ohar bakar batzu:

a) *ausa*, 125. Afrikaziorik gabe ote? Oso harrigarria, benetan; gainerako leku guztietan (*h*)*autsa* bait dator, harmoniarik gabe edo harmoniaz. (Interesgarria, bestalde, *errautsa* leku batetan bakarrik

etortzea, Allin; zenbait gramatikatan proposatu izan den *hauts/errants* bikote teorikoaren aurka).

b) *koldea*, 139. Beti entzun eta irakurri izan dugu *goldea*, *oze-naz*; eta horrelaxe entzun dute denek Euskal Herrian zehar, Zuzendariak ezik.

c) *putsua*, 69. Normala *putzu* da (*butzu* ere bai, agian); baina /tz/-z beti. (Mezkiritzen bildu den *putsua* ere oso dudazkoa da). Beste leku guztietan, dena dela, /tz/ dator.

d) *inkestagileak oso nekez* segitzen zuen informantearen hizketa. Aditzetan ageri da hau garbikienik. Adibidez: zazpi aditz forma 17tik 23ra: zazpiotan galde-ikurra (konprenitu ez, beraz). Hurrengo aditz-saila: 26, 27, 28, 29, 30, 31 eta 32. Berriro ere: denetan galde ikurra. Inkestagileen artean beste inori ez zitzaion horrelakorik gertatu. Zuzendaria besteak baino gorrago...

Inkesta hauek egiteko eta zuzentzeko (honetarako bai, dirudienez; honetarako gutxienez) euskara menderatzea beharrezkoa da. Ezetz pentsa dezake norbaitek, Gilliéron-en aurreritzi xaharkituei jarraituz. Gure ustez *hizkuntzalari euskaldun bat* hautatu behar zen Atlas-lan hau ongi bideratzeko eta bukatzeko. Arantzadi Elkarteak ez zuen hau sinetsi; eta ondorioak hor daude.

Mintza bedi gure ordez A. Lerond dialektologilaria: «Il faut d'abord être accepté par la communauté dont on désire étudier le patois. Le fait d'employer soi-même le parler local aplanit la plupart des obstacles que comporte cette étape préliminaire. Au début de nos enquêtes, quand nous disions nos premières paroles en français, nous avons observé chez les habitants de l'Ardenne malmédienne *une surprise et une gêne* qui furent assez longues à se dissiper; ce mouvement de retrait n'apparaissait en aucune manière lorsque nous utilisions le wallon pour aborder les indigènes».

Eta Marcellesik ere bide beretik: «C'est la pratique d'abord qui a montré l'inadéquation en dialectologie des principes du père de l'Atlas Linguistique de la France. On a vite constaté la difficulté qu'il y a à identifier de manière précise les éléments d'une langue qu'on ne connaît pas, ou pas bien... Les enquêteurs compliquent inutilement les faits dès qu'ils s'éloignent de la région qu'ils connaissent le mieux... C'est la linguistique moderne, générativiste notamment, qui a permis à la dialectologie d'affirmer avec force l'importance, notamment en syntaxe, de la connaissance native de la langue».

Garaia da hau guztia kontutan hartzeko.

Hortaz?

EAEL honetan datu-pila dago, lan gaitza egin da; eta, berriro ere, datu horien jorraketa kritiko bat egin ondoren, altxor baliagarria izan daiteke. Hutsuneak garbi azaldurik ere, zentzuz mapak eta datuak erabiliz gero, lagungarri gerta daiteke.

Uste dugu, zinez, hauxe dela losentxa nahirik gabe, baina herriarik gabe ere, EAEL honetaz esan daitekeena.

Tx.

Jaso ditugu

DUOANDIKOETXEA, Jabier (Elhuyar Zientzi-Taldea): **Euler**, Elkar, Donostia, 1984, 90 or. 19,5x14,5 cm.

Matematikari honen biografia, eragina, ekarpenak, metodoa. K. Santamariaren aitzin solasa.

ELHUYAR Informatika-Taldea: **Informatika, L.H. 1-2**, Elkar, Donostia, 1984, 210 or. 24x17 cm.

Informatikaren oinarriko kontzeptuak; konputagailuen egitura, sistemak, programazioa, erabilerak.

ELHUYAR Marrazketa-Taldea: **Marrazketa Teknikoa, UBI I**, Elkar, Donostia, 1984, 372 or. 29,5x21 cm.

Marrazketa geometrikoa, Errepresentazio-sistemak, Formen analisia, UBIko programa ofizialaren arabera.

ELHUYAR Taldea: «**Zenbat ate, hainbat maratila**», Elkar/AEK, Donostia, 1984, 136 or. 17x11,5 cm.

Gai tekniko eta zientifikoak, dibulgaziozko irakurgaitan: bideoa, mikroskopia, ordenadoreak, energia berriak, etab.

ELHUYAR Ekonomi taldea: **Merkatal kalkulua, L.H. 1.2**, Elkar, Donostia, 1984, 270 or. 24x17 cm.

Oinarriko kontzeptuak: Salerosketak, Inportazio-esportazioak, Interesak, etab.; Taulak, adibide ebatiak eta ariketa proposatuak.

ELHUYAR Teknologia Taldea: **Teknologia elektrikoak, L.H. 1-1**, Elkar, Donostia, 1984, 378 or. 24x17 cm.

Programa ofizialeko ikasgaiak: Mekanika, Fisika elektrikoak, Material elektrikoak, Argiteria, Instalazioak, Harilak, Elektronika.

ELHUYAR Ekonomi taldea: **Merkatal kalkulua, L.H. 1.2, Elkar**, Donostia, 1984, 270 or. 24x17 cm.

Oinarriko kontzeptuak: Salerosketak, Inportazio-esportazioak, Interesak, etab.; Taulak, adibide ebatiak eta ariketa proposatuak.

Itzulpen-teoria eta praktikaren irakaskuntza Euskal Herrian

Xabier Mendiguren

Sarrera

Itzulpena eta itzultzaileak ia gizartea bezain zaharrak badira ere, itzulpen-teoria eta itzultzailearen prestakuntza sistematikoa edota berauei buruzko gure ezagupena berriagoa dela aitortu behar da. Azken mendeak arte eta bereziki gurea den XX. mende honetarako, itzulpenak egiteko intuizioaz edo senaz gehiago baliatu dela itzultzailea esan dezakegu.

J. Leizarragaren itzulpenetatik hasi eta azken idazle modernoen itzulpenetara bitartean euskaratu diren hainbeste libururen itzultzaileei bagagozkie ere, gauzak ildo beretsuetatik ibili dira.

Itzultzaile-Eskola sortu aurretik 1980an prestatu genuen dossier-urreprojektuan euskal itzultzaileei beren ekintzari buruzko inkesta bat zuzentzea komenigarria zela ikusirik, egindako galderen arabera honako erantzuna jaso zen. Berrogeitamar itzultzailek emandako erantzunek ziotenez, %86,6k prestakuntza erabat personal edo autodidakta izan zuten. %13,3 bakarrik ziren ikastaldiren batez nolabait baliatu zirela aitortzen zutenak. Geroago azalduko dugunez, aurreko lau urtetan zehar Arrasaten eta Uztaritzen ospaturiko ikastaldiaz ari ziren seguraski. Bide honetatik norbaiten laguntzaz abiatua zela esaten zuenen bat ere bazen. Beraz, ez

da harritzekoa itzulpen-teoriazko ezagupen gutxi edo ia batere ez zutela esaten dutenak %86 izatea, eta denek prestakuntza sistematikoa eta formal baten balioa aho batez aitortzea.

Hiru urte geroagoko ikuspegitik begiraturaz, garbi ikusten da euskal itzultzaileak hutsune honetaz zeukan kontzientzia, Itzultzaile-Eskolak antolatu dituen ikastaldiek izan duten arrakasta lekuko onena delarik.

Itzultzaileen prestakuntzarako ikastaldiak (1976-1980)

Joan den hamarkadaren azken partean itzulpengintzara horizio teoriko batekin hurbildu behararen premia areagotzen hasi zen, eta ondorioz sortu zen sentiberatasunaren fruitu izan ziren epe honetan antolaturiko bost ikastaldiak, hau da, Arrasate, Uztaritze, Arantzazu, Santutxu eta Iruñean eskaini zirenak.

Arrasaten eta Uztaritzeko UEUn, 1976an, eta Santutxun 1978-79an antolatu ziren ikastaldiak irakasle-talde berak antolatuak zirelarik, programa eta ezaugarri berdintsuen jabe ziren. Hiru sail nagusi bereizi ziren:

- a) Itzulpenari buruzko ikuspegi orokorra eta literatur testuen itzulpena.
- b) Testu didaktikoen itzulpena.
- c) Testu teknikoen itzulpena.

Ikastaldi hauetan garrantzi handia ematen zitzaion euskararen morfosintaxia sakontzeari eta oinarrizko ezagupen lexikal eta estilistikoekiko sentiberatasuna lantzeari. Ariketa praktikoa ugari egiten zen teoriaren argigarri eta euskal itzultzaile ezagunen testuak aztertu eta kritikatu ere egiten ziren. Agian, oraindik ez zen itzulpen-teoria ezagunen aipamen handiegirik egiten.

1977an, Eliza Ebanjelikoak Biblia euskara batura itzultzeko asmoa agertu eta katolikoz eta ebanjelikoz osaturiko itzultzaile-talde bat eratu bezain laster, urte honetako irailaren 12tik 17rako astean zehar Itzulpen-Tèoriari buruzko ikastaldi bat antolatu zuen Arantzazun. Ikastaldi teoriko-praktikoa honetan, alde batetik Itzulpenaren Teoria modu sistematikoz eman zen, Bibliaren itzulpenean aurkitzen diren zailtasunak bereziki kontuan harturik eta Tubingako Unibertsitateko Hans Peter Rùger izan zen irakasle na-

gusia; eta Mendoza jaunak, Bibliaren espainolezko itzulpenen arduradunak, *Bibliaren Itzulpen herritarrak* gaia azaldu zuen.

Rüger jaunaren azalpen teorikoak Nida-Taber autore amerikarren teoria transformazionalaren berri ematera mugatu ziren gehienbat, eta praktika gutzia Bibliako pasarteak aztertuz eta itzuliz burutu zen.

Iruñean, 1980ko Udako Euskal Unibertsitatean antolatu zen ikastaldia, itzulpenaren alorrean UZEIren eta sortzear zegoen Itzultzaile-Eskolaren esperientzia eta ezagupenen ondorioz antolatu zen, eta helburu hirukoitza izan zuen:

- a) *Itzulpen-munduari buruzko informazio orokor bat eskaintzea* (Historia, bibliografia, itzulpen-mota desberdinak, etab.)
- b) *Euskal Itzultzaileen kontzientzia profesionala sortzea.*
- c) *Jardunaldi praktikokoak burutzea* (testu itzulien konparaketa eta kritika).

Itzultzaile-Eskolaren Projektua

Euskaltzaindia aspaldidanik jabeturik zegoen itzulpenaren kalitatea zaintzeak eta hobetzeak euskararen etorkizunerako duen garrantziaz; eta 1979aren azken aldera, Juan San Martin jagon-sailburuaren eskari bat jaso genuen, Itzultzaile-Eskola sortzeko aurreproktua presta genezala erregutuz.

1980ko martxoan Euskaltzaindiaren eskuetan jarri genuen dossier-aurreproktuak, *Itzulpenaren Mundua eta Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Eskola* izenekoak, hiru atal nagusi zituen:

- a) Itzulpena munduan
- b) Itzulpena Euskal Herrian
- c) Gure Itzulpen-Eskolaren Zuinak edo ezaugarriak

Lehen bi ataletan bildu eta egindako gogoeten ondorioz eta European eta Amerikan zehar jasotako datuen arabera, Itzulpen-Eskolaren eginkizuna batez ere interpretaritzarako jendea prestatzea izan ohi da, zeren *conference eta sworn interpreters* direlakoan eskaria harrigarriro ugaldtu bait da azken urteotan munduan.

Euskararen egungo egoeran, berriz, gizarte elebidun desorekatuan euskararen erabilpena diglosikoa gertatzen den une honetan, interpretariena baino aurreragoko eginbeharrak daude, hots, zientzi sail eta alor desberdinetako hizkuntza aurretiaz finkatzea, hizkuntza teknikoak berea duen zehaztasun eta monosemia lortzeko; beraz, idatzizko itzulpen-trebakuntzaren fasea alde aurretik erre beharra dago.

Honela zioen UZEIk egindako *Euskara Administrazio Publikoan (Proiektua eta Aurrekontua)* lanaren 63 orrialdeak:

«... Euskaltzaindia Itzultzaile-Eskola bat martxan jartzekotan dela aipatu behar da. Eskola honek emango lituzke *itzulpen arruntetarako ikastaroak*; eta horien ondoren —eta ez lehenago— egin beharko lirateke, UZEIn nahiz egokia den tokitan, Administrazio-itzulpenetarako ikastaro berezituak. Hau da, ikastaro berezitueta ezin liteke etor, alde aurretik Itzultzaile-Eskola hortatik pasa gabe».

Beraz, hasteko eta lehen helburu gisa, Itzultzaile-Eskolaren jardun-eremua *itzulpen arrunterako*, hau da, itzulpen espezializatuak aurreuposatuko lukeen kultura orokorraren mailako itzultzaile-prestakuntzara mugatu zen, eta, neurri batean, literatur itzulpen erraz samarrak egiteko prestakuntzara.

Honela, bada, EIOPE edo Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Eskolaren helburu nagusia hau izan da: euskara eta gaztelaniazko hizkuntz ezagupenak eta literatur historiak eta autoreen obrak aztertuz eta sakonduz, testu pragmatiko eta literario orokorrak idatziz, bi zentzutan itzultzeko gaitasuna ikasleei eskuratzea, ezagupen teorikoz hornituz eta ariketa praktikoak burutuz.

1980 urtearen urrian ireki zituen bere atea Itzultzaile-Eskolak, Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak behin-behingo Arbideko Dorrean utzi zizkion geletan. Lehen ikasle-taldea 30 pertsonatakoa zen eta lau irakasleren gain zegoen ikasgaiak ematea. Honako hauek ziren ikasturtean zehar landuriko gaiak:

- Euskara eta Euskal Literatura
- Gaztelania eta Erdal Literatura
- Linguistika Orokorrerako Sarrera
- Estilistika
- Itzulpenaren teoria eta praktika

— Euskal Itzulpenaren historia eta testuen azterketa metodologia.

Lehen promozio honen prestakuntzarako bi ikasturte programatu ziren eta lehen urtearen ondoren ikaslegoaren banaketa bat egin zen, bakoitzak erakusten zuen gaitasun-mailaren arabera; eta bigarren urtean itzulpen-praktika soila egitera mugatu ziren bi taldeok, lehendabiziko urtean azterturiko teoriako ezagupenen ildotik. Bi urtetako lan honen ebaluazioa eginik, gutxienezko gaitasun-mailara iritsi zirenei agiri bat eskuratu zien Eskolak, bere garaian Euskal Jaurlaritzak sortuko duen Diplomaz baliokidetu den agiria.

Lehen promozio honetako ikaslekoa aski heterogenoa gertatu zen bai adinez, jatorriz eta aurre-prestakuntza mailaz, nahiz eta sarrerako baldintza gisa denei Euskaltzaindiaren D titulua (oraingo EGA) eta C.O.U. ikasketak-maila eskatu. Bestalde, irakaslegoarentzat ere urte esperimentalak gertatu zen, zeren gurean ez bait zegoen era honetako irakaskuntzak beharrezkoak dituen baldintzak eta teknikak aurrikus zitzakeen beste esperientziarik, hasieran aipatu ditugun ikastaldi laburren jarraibideaz aparte.

Lehen promozio honen prestakuntzak derrigor izan zituen mugatasun eta hutsuneak, ikasle-irakasleen arteko harreman estu eta lankidekorari esker gaingitu ziren neurri handi batean, denek kontzientzia argia bait zuten beren pausoen aitzindari-balioaz.

Balantzea positiboa izanik, bigarren promozio bati begira zenbait aldakuntza egin beharra nabarmendu zen; eta, batez ere, hirugarren urte batera ikasketak hedatu beharra, bi urte gutxiegitzat jo bait ziren, ikaslea beharrezko azpiegitura linguistikoz hornitzeko.

Bigarren Promozioaren Programa (1981-84)

Aurreko urtean bildutako esperientziaren gainean, eta nabarmendu ziren hutsuneak bete nahirik, ikasturte berrirako Eskolaren statusa sendotzea eta haren ekintza hedatzea eta sakontzea erabaki zen.

Eskolak nahitaezkoa zuen egoitza iraunkorra eta Eusko Jaurla-

ritzaren aurrean egindako gestioei esker, Martuteneko Lanbide Hezkuntzako Ikastetxean lortu zuen kokalekua.

Aldi berean, oraingoz Eskolaren irakaskuntza unibertsitate-mailan jartzeak zituen zailtasunak kontuan harturik, FP2ren marko barruan legezko nortasuna bilatzeari ekin zitzaion; eta 82-83 ikasturtean lortu da tramitazio guztia burutzea eta «aratu gabeko irakas zentru» gisa Eskola onartua izatea.

Edukin akademikoari dagokionez, gero eta ikasle tipikoagoa etorriko zela aurrikusiz —eta halaxe gertatu da—, azpiegitura linguistikoaren ahultasuna errebortxatu beharrak eraginik, bi urtekoa izan ordez hirukoa izatea erabaki zen prestakuntz epea. Honela, bada, hobeki dosifikatu ahal izan dira hiru urtetan zehar, hasieran bi urtetan bakarrik ikasten ziren ezagupen teoriko-praktikoak.

Gaztelania eta euskaraz gainera, hirugarren hizkuntza baten irakaskuntza ezartzea ere beharrezkotzat jo zen eta horrela sartu zen ingelesa hiru ikasturteetarako. Ingelesaren ezagupen-maila egokia zutenentzat, zuzenean ingelesetik euskarara itzulpenak burutzeko mintegi bat antolatzen.

Ikasgai desberdinen programei zegokienez, lehen urteko behin-behinekotasuna gaindituz, edukinak hobeki egituratu eta dosifikatu ziren maila guztietan. Ahalegin honen fruitu dira 83-84 ikasturterako argitaratuko ziren hiru liburukak:

- *Itzulpen-teoriazko ezagupenak*
- *Itzulgaiak: testu pragmatiko eta literarioak*
- *Estilistika konparaturako zenbait elementu*

Oro har, azken bi ikasturteek izaera akademiko trinkoagoa izan dute, bai klaseetako jardunean, bai urtean zehar burutu diren lan eta azterketetan; honetarako, garrantzizkoa izan da piskanaka ugalduz doan Eskolako Liburutegiaren laguntza, eta irakaslegoaren gero eta dedikazio osoagoa, gaurkoz duen aitzinkontu muga-tuak eskaintzen dituen ahalbideen barruan.

Azken bi urte hauen barruan Itzultzaile-Eskolak burutu dituen ekintzen artean, aipamen berezia merezi dute Birtziklaketa-Ikastaldiek.

Eguneroko ikasketa formalak burutzeko aukerarik ez zuten itzultzaile profesional eta irakasle askok eskatzen zituzten beren lanarekin uztargarriak izan zitezkeen ikasketa batzu; eta Eskolak,

garrantzi handikoa zerizkion eskari honi erantzun nahirik, 82ko lehen hiruhilekoan, batekoz beste 50 bat ordutako iraupena zuten jardunaldi teoriko-praktikoak antolatu ditu, UZEIrekin lankidetzan. Ikastaldi hauek itzulpen teknikoari eta literarioari buruzkoak izan dira eta dagoeneko 150 partaide izan dituzte. Oraindainokoa izan duten arrakasta ikusirik, etorkizun garrantzitsua izan dezaketela uste dugu, eta hiru mailatan programatuko dira beraietako ikasketak, Eusko Jaurlaritzak aurten sortuko duen IGA (Itzultzaile-Gaitasun Agiria) eskuratzeko baliagarriak izateko eran.

Bestalde, Itzultzaile-Eskolak parez-pare antolatu du ingelese-tik euskararako itzulpen-mintegi bat ere, eta bi urtetan parte hartu du Hezkuntza Sailak, bere eskumenean dauden irakasleentzako antolatzen dituen Birprestakuntzako Ikastaldietan.

IGA: Itzultzaile-Gaitasun Agiria

Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuaren eskabidez, bere gain hartu du Itzultzaile-Eskolak etorkizunean Itzultzaile-Gaitasun Agiria izenpean ezagutuko den Diplomarako Programa eta Azterketa-edukinen aurreprojetua prestatzea ere.

Oraindik azken erabakiak hartzeko badaude ere, badirudi agiri hau *curriculum vitae* bat aurkeztuz, Eskolako ikasketa arautuak burutuz edota horretarako azterketa berezia gaindituz eskuratu ahal izango dela.

Agiri honek garrantzi soziala izan dezan, zenbait lan-postutan beronen jabetza puntuztatu egingo litzateke eta etorkizunean udal-itzultzaile eta itzultzaile zinegina izateko derrigor eskatuko.

IGA Agiria lortzeko azterketa, lau edukin-mota hauen arabera burutuko litzateke.

I. Ezagupen-Saila

- Itzulpenaren Teoria
- Itzulpenaren historia

II. Trebetasun-Saila

- Itzulgaien azterketa eta itzulpena
- Testu itzulien kritika

Eusko Jaurlaritzaren *Aldizkari Nagusian*-n argitaratuko da bere garaian IGA delakoa zer den, eta berau eskuratzeko gainditu beharko den azterketa-programa edota bete beharko diren baldintzak.

IEren etorkizuna

Itzultzailearen Prestakuntzak badu bere historia eta esperientzia munduan zehar, hain luzea ez bada ere. Hor dugu lekukotzat C.I.U.T.I. antolamendua eta beronen partaide diren Ginebra, Georgetown, Heidelberg, Kopenhagen, Mainz, Mons, Montréal, Paris etabarreko eskola sonatuak.

Lehenago ere aipatu dugunez, gure egoera berezia den heinean, ezina da epe labur eta erdikora nazioartean dauden ereduak besterik gabe kopiatu eta Itzultzaile-Eskola bat antolatzea; baina arrazoi aski argi eta sendoak ageri dira Itzultzaile-Eskolari status unibertsitarioa emateko.

- a) Itzultzaileak testu pragmatikoak nahiz literarioak itzuli behar dituelarik, aldian-aldiko gaien ezagupen sakona derrigorrezkoa du.
- b) Linguistikak eta itzulpen-teoriak eskaintzen dion tresneriaz ongi jabeturik egon behar du itzultzaileak nola teoriarik hala praktikan.
- c) Euskararen kasuan, berriz, oraindik beste hizkuntzen homologazio-maila lortu ez delarik, itzultzaileak erizpide linguistikoko are helduagoak eta eginagoak behar dituela dirudi, itzulpenak hizkuntz normalizapenean duen eragin bereziarengatik.

Agian, gure kasuan, «Linguistika Aplikatuzko Itzulpeneko Institutu» (LAI) baten forma hartu beharko luke Itzultzaile-Eskolak eta harreman estuak mantenduko lituzke dagozkion fakultateekin.

Aipaturiko Institutu honek bi sail nagusi izango lituzke: ikerketakoa eta irakaskuntzakoa. Bai ikerketa eta irakaskuntza lau atalatan banatuko lirarteke:

- Itzulpen administratibo-juridikoa
- Itzulpen periodistikoa
- Itzulpen tekniko-didaktikoa
- Itzulpen literarioa

Atal bakoitza, zuzenki dagokion Unibertsitateko Fakultatean garatzen ari den euskaragintza eta normalizapen-azpiegiturari loturik legoke:

- Zuzenbide-Fakultatea, Administrazio Lokaleko Institutua, etabarrekin.
- Informazio Zientzietako Fakultatea eta komunikabideekin.
- Fakultate tekniko eta Textugintza-taldeekin (UZEI, etab.).
- Euskal Filologia eta Letretako Fakultateekin, eta Euskaltzaindiarekin.

Aipaturiko Fakultate eta Erakundeetan burutzen den hizkuntz normalizapen eta ikerketa-lanaren ispilua zehatz izan behar luke Institutu-Eskolak.

Ikerketa

Aipaturiko lau sailetan beharrezko den hizkuntz normalizapen-prozesua koordinatu eta eragingo luke Institutuak, jadanik dauden proiektuak bideratuz eta berriak abiaraziz. Bere helburuak betetzeko beharrezko testu eta argitalpenak aterako lituzke.

Irakaskuntza

Itzulpenarako Institutuak bi prestakuntz mota eskainiko lituzke:

- Itzultzailearen *Oinarrizko Prestakuntzazkoa*
 - *Espezializaziozkoa*, aipaturiko lau atalen arabera
- Itzultzaile hauen prestakuntzak ez luke irakaskuntza formal-

ren jiterik izango, baizik eta ikastaldi malgu batzuren bitartez eskuratuko lituzke ikasleak ezagupen teorikoak; eta epe jakin baten buruan egiten dituen ariketa praktikoen kontrol eta koordinazio-saioen bitartez lortuko litzateke prestakuntza teoriko-praktikoen oreka.

Institutuak beti mantenduko luke itzultzaile hauekiko harreman eta lotura, baina, agian, bi urtetako iraupena aski izango luke prestakuntz epeak: bata oinarrizkoari dagokiona eta espezializaziozkoari bestea.

Pertsonala

Institutua bi eratako ikertzaile eta irakaslez baliatuko litzateke:

- Institutuaren plantila iraunkorra osatuko luketenez
- Fakultate eta Erakunde desberdinetan aipaturiko gaiak euskaraz lantzen eta ematen ari direnez.

Azken gogoeta gisa

Edozein Eskolak gutxienez bi baldintza bete behar ditu bere eginkizuna burutzeko: a) Eredu eta lan-tresna batzu eskaini; b) Gizarte-premiei erantzuteko tresna horiek gaitzen ahalegindu.

Gure kasuan, oraindik finkatze-lanean pauso garrantzitsuak eman beharrean gaude, oraindainokoa emandakoez aurrera, batez ere sintaxi eta lexikoaren mailan, alderdirik nabarmenenak baizik ez aipatzearren. Ereduaren lausotasun honek muga ezagunak ezartzen dizkio hizkuntzaren eta itzulpenaren didaktikari. Ildo honetatik uste baino lan luzeagoa burutu beharrean gaude oraindik.

Bigarren baldintzari dagokionean, berriz, Eskolak adi egon behar du eta malgutasun handienarekin jokatu, etengabe aldatzen ari den egoera sozio-kulturalaren arabera sortzen diren eta sortuko diren eskariei erantzuna emateko. Dauden premiei erantzuna eman

ezezik, premiak «aurkitu», «erakutsi» eta «aurrikusi» ere egin behar ditu, koantitatiboki ezezik koalitatiboki ere.

Gure ustez, Itzultzaile-Eskola ezin daiteke muga teknika-sorta soil bat eskaintzera. Itzultzaile-Eskolak bere gain hartu behar du orain arteko itzulpengintza mendez-mende aztertzea eta ikuspegi historikoaren argitan kokatzea, linguistika kontrastiboa eta estilistika konparatuaren lanabesez baliatuz.

Honezaz gainera, euskararen finkatze eta normalizatzeko bidetik egiten diren ahalegin guztien gain-gainean egon behar du, baita sorkuntza literarioaren alorrean agertzen diren baliabideei adi ere. Zer esanik ez, hiztegi espezializatuen mailan ematen diren pausoak ere orpoz-orpo jarraitu behar dituela.

Baina hizkuntzaren bilakabideari hurbiletik loturik dauden alderdi hauei ezezik, Eskolak kontu berezia egin behar dio lanean ari diren itzultzaileen kontzientzi hartzeari eta birprestakuntzari, eta oro har, gizarte-mailan itzulpenaren kalitatearekiko kezka eta sentiberatasuna sortzeari, eta, azken finean, kontzientzia profesionala indartzeari.

Eta aipatu dugun guzti hau, nazioarte-mailan itzulpen-teoria eta -praktikari dagokionez ematen diren urrats guztiak jarraitzeari uko egin gabe.

Ikus daitekeenez, Itzultzaile-Eskolak bere egitekoa behar bezala bete nahi badu, erabat irekia egon behar du, erro guztiak euskaragintzaren biziguneetan dituelarik, alde batetik, eta munduan zehar, traduktologiaren alorrean atergabe egiten diren aurkikundeetara begiak adi dituela, bestetik. Lan eskerga eta zaila, baliabide ugari eskatzen dituena, baina, euskarak eta euskal kulturak bere harremanak heldutasunean burutuko baditu, utziezinezko lana. Oraindainokoan eman ditugun urratsek pauso hutsik gabe zuzenduko ahal gaituzte helburu garrantzitsu honen atzetik.

X. M.

Euskaltzaindiaren X. Biltzarra Iruñean

Pello Salaburu

Orain duela ehun urte eman zuen argitara A. Campionek bere gramatika famatua, Bonapartek aldez aurretik bildu eta metatu (hitz egokiagorik ez bait dut aurkitzen) zituen material guzti haiek nolabait ere ordenatu nahian edo. Neurri handi batean Campionen lana bestearenetan oinarritzen da. Esan dezadan, bide batez, material horietako anitzek hantxe segitzen duela, Diputazioetako artxiboetan metatua, biltzaileek utzi zuten bezalatsu.

Nahiz eta Campionen gramatikaren atal batzuk zenbait urte lehenago ikusi zuten argia, 1884ean hasi zen gramatikaren argitaratze sistematikoa eta horixe nahi izan du Euskaltzaindiak ospatu, hori dela eta, Biltzar nagusi bat Iruñeko hirian eginez.

Biltzar honen gai nagusia gramatika izan da. Jakina denez, Euskaltzaindiak eman ditu bere garaian ortografia, deklinabidea eta aditz laguntzaileari dagozkien arauak, esan nahi bait da, euskara idatzirako arauak. Gramatika-kontuetan, ordea, edo, hobeki esanda, sintaxi-kontuetan, Euskaltzaindiak ez du gehiegi esan orain arte eta jendeak eskatzen duen gramatika arauemaile horren (usarioaren gramatikaren) hutsa ikusi ondoren, lan horri ekin zion orain dela urte batzuk. Lan horren ondorioa aurkeztu da, hain zuzen ere, Iruñean.

Biltzarra

Alde batera utzirik Biltzarraren inguruan hain ederki antolatu diren festa-giroko egintzak (kontzertuak, antzerkiak, txangoak, etab.), Biltzarrak berak bi parte izan ditu: goizeko ekitaldian Euskaltzaindiak Gramatika Batzordearen bidez egin duen lana aurkeztu eta eztabaidatzeko aukera izan da. Arratsaldeetan, berriz, euskal gramatikarekin erlaziona daitezkeen txostenak irakurri dira, denetarik egon denean azken hauen artean. Jakina: gramatika hitza oso zabala da (batzuen ustez, sintaxia bakarrik; beste batzuk ez dugu uste horretara muga daitekeenik eta soinu-egitura eta hiztegia ere sartzen ditugu hor) eta txostenak alde aurretik igorriak eta Gramatika Batzordeak aztertu ondoren aukeratuak izan baziren ere, oso gai desberdinak ukitu dituztela esan behar da. Biltzarraren lehenbiziko egunean Granja-k eta Pagolak egin zituzten hitzaldiak kontutan hartu gabe (Campionen gramatikari buruz bata, Nafarroako hizkuntz politikaren gainean besteak), gainerakoetan bertoko eta kanpoko jendearen mintzaldiak entzun ditugu. Beñat Oyharçabal, G. Rebuschi eta R. Trask sintaxiaz mintzatu ziren, teori mailan oso argigarri izan daitezkeen ohar interesgarriak eginez. A. López García Valentziatik etorri zitzaigun euskararen aztertzeko modelu teoriko berria proposatuz (teoria berria ala aldaki notazional hutsa?). Gunter Brettschneider euskal kasuei buruz mintzatu zen; aipatzekoa beronen ahalegina, zeren ustekabeen hil bait zitzaion aita eta biharamonean etorri bait zen Iruñeraino Alemaniatic. Suzuko Ainhoa Tamura ordena erabakitzeko faktoreak zehazten saiatu zen. Egon ziren, bai, beste zenbait mintzaldi ere morfosintaxiaren inguruan: N. Sturua, Mitxelena, A. Irigoyen, Iturrioz, Yuri Zytsar, Pikabea, etab. horien artean. Eguzkitzak eta Txanturia-k, azkenez —geroago aipatuko dut Adurizek eman zuena—, aditz modalak aztertu zituzten. Patxi Oroz-ek ere Biltzarrean aurkeztu zuen prestatzen ari den liburu polit baten berria: G. Arestiren «Nire aitaren etxea defendituko dut» olerki ezaguna 200 bat hizkuntzatara itzulia.

Esan bezala, hauek izan ziren arratsaldeetan aurkezturiko txostenak, goizeko lanaren osagarri modukoak edo.

Txosten nagusia

Gramatika Batzordeak egin lana hiru zatitan dago banaturik: Perpausaren Egitura, Izen Sintagmaren Egitura eta Deklinabidea-

-Adberbioak-Interjekzioak. Atal bakoitza, noski, dagozkion kapituluetan zatitzen da eta, horrela, 473 orrialde guzti horiek 9 kapitulu osatzen dituzte (2, 4 eta 3, atal bakoitzaren arabera).

Esan ohi da problema baten erantzuna aurkitzeko, problema hori behar bezala planteatzea baino bide egokiagorik ez dagoela. Txosten honek, «gramatika» honek, ez du soluziobiderik ematen askotan, baina problemak behar den moduan bideratzen saiatzen da. Hori dela eta, hurrengora egin daitezkeen azterketak kontutan harturik, eskema garbiak paratzen saiatu da. Ez da, ez, gramatika hau euskal gramatika osoa. Lehenengo eta behin, muga argia ezarri zioten egileek alde zuzenetik: perpaus bakuna bakarrik aztertuko da. Hala ere, perpaus bakunaren hainbat eta hainbat gauza aztertzeke geratu da: ezer gutxi esaten da hitzen hurrenkeraz edo galdegaiaz, adibide nabarmen batzuk besterik ez aipatzearren. Honek ez dio, haatik, meriturik kentzen lanari, eta esan daiteke euskararen fenomeno anitz ere anitz ez direla inoiz ere landuak izan gramatika honetan agertzen den xehetasunaz.

Horrela, esate baterako, bigarren atalean *izena*, *izenordainak*, *determinatzaileak* eta *adjetiboa* lantzen dira. Izenaren barnean izen arruntak eta bereziak (arazoa ez da ematen duen bezain erraza, behar den moduan formalizatzeko), izen zenbakarriak eta izen zenbakaitzak. Izen zenbakaitzen artean, bestalde, izen neurgarriak eta neurgaitzak bereizten dira (horrela, «*etxe*», adibidez, izen arrunt eta zenbakarria da; «*irin*», izen arrunt eta zenbakaitza baina neurgarria —kiloka neur bait dezakegu— eta «*su*», berriz, izen arrunta eta zenbakaitza baina neurgaitza).

Determinatzaileak, bere aldetik, hiru sailetan agertzen dira: mugatzaileak (artikulua: «*gizon-a*» eta erakusleak: «*gizon hau*»), zenbatzaileak («*andre bat*», «*liburu bi*», «*gauza asko*») eta, beste izen egokiagorik aurkitzen ez den bitartean, nolakotzaileak ere («*zernahi gauza*»). Ikus daitekeenez, gramatika hau saiatzen da ordena zerbait ezartzen gure artean erabili izan dugun terminologiaren gainetik eta arreta handia jarri du horretan. Konturatzekoa da, baita ere, ez dela batere erraza terminologia guzti hau erdaratzea eta, hortaz, parekotasunak ere ez ditugu aise aurkituko. Hala ere, deklinabideari eskainitako partean ez da terminologia berritu, eta bide klasikoari eutsi zaio, hoberik ere noizbait aurkituko delakoan.

Adjetiboen artean izenondoak («*etxe zuria*», «*begi beltzak*») eta izenlagunak («*andrearen sudurra*», «*herriko jaiak*») bereizten dira, denak ditugularik, esan bezala, adjetibo. Bide honi jarraitzen

zaio hirugarren atalean ere, adberbioak sailkatzen direnean. Adberbioen artean daude aditzondoak («*gaur*») eta aditzlagunak («*haurrarekin*»). Ikusten da izenondo eta aditzondoek ez dutela azpikategoria hori markatzeko inolako atzizki berezirik erabiltzen. Aditzlagun eta izenlagunen seinale da, berriz, atzizkiren bat hartzea.

Terminologia guzti hau, jakina, behin-behinekoa da eta denborak eta euskarari buruz egin ditzakegun azterketek esanen digute egokia denentz. Horrenbestez, gramatika honetan esaten direnak ez dira erabaki ofizialak, ezta gutxiagorik ere. Irakurleak kontutan hartu behar du hori. Bestaldetik, gramatika hau saiatzten da hizketaren aberastasun guztiak biltzen eta gauzak ilun daudenean zerbait argitzen edo, erabakiak hartzeko orduan, bere hartan uzten. Adibidez, nola idatzi beharko litzateke: «Herri Batasunean» ala «Herri Batasuna-n»? «Arrano Beltza-tik nator» ala «Arrano Beltzetik nator»? «Astelehen arte», «Astelehena arte» ala «Astelehenera arte»? «ikusi nuen egun arte» ala «ikusi nuen eguna arte»? Ez da batere erraza guzti horien artean hautatzea, denetan bai bait dira alde nahiz kontrako arrazoiak. Beste maila askotan ere antzera gertatzen da: «azken egun arte» ala «azken eguneraino» edo biak? «Donostiako autobusa» ala «Donostiarako autobusa» (biek esanahi bera dutelarik, noski)?; zein dugu «bat» zenbatzailearen deklinabidea?; edota «batzu(k)» zenbatzailearena? Galdera horien erantzunak ere noizbait eman beharko dira, baina ezin gara bitarte horretan dogmakerietan erori.

Hala eta guztiz, galderen parean proposatzen dira erabaki zehatzak ere (Euskaltzaindiak iadanik hartutakoak kasu zenbaitetan): ea gure idazleek ikasten duten behingoan «Iruñea» hitzaren deklinazioa («Iruñeko», «Iruñetik», baina «Iruñean»).

Nire ustez, bada, gramatika honen erakarpena hizkuntzaren deskripzioan kokatzen da. Alde horretatik nahikoa gramatika tradizionala dela aitortu daiteke, baina honelakoak ere behar baino beharrezkoak ditugu gure artean. Are gehiago, erdararen (eta ez erdaren) influentzia bera ere gero eta handiagoa bait da. Burutik pasatu ere eginen ez litzaizkigukeen gauzak esaten dira barra-barra eta, anitzetan, idatzi ere. Gramatika honek ematen digu egun arte egin den deskripziorik zehatzena (euskararen maila askotan) eta kontu anitz erabaki gabe uzten baldin baditu ere, egin dakizkiokeen eta ongi etorriak izanen diren oharrak bilduta, bere horretan argitaratzeko asmoak daude. Eta lehenbailehen argitaratzeko, gainera, gure artean dagoen premia ikusirik. Premia honen seinale izan daiteke H.I.Z.P.A.L.ekoek (Aduriz-en eskutik)

Biltzarrean berean aurkeztu zuten txostena, txosten horretan zerrendatzen bait dira, neurri batean, gramatika egileek izan dituzten zalantza berberak. Argituko ahal ditu noizbait Euskaltzaindiak zalantza guzti horiek.

Talde-lana

Gramatika hau ez du lagun batek bakarrik egin. Orain arte idatzi diren gramatikak, normalean, esku baten lanak izan ohi dira. Nahiz eta kasu askotan arrunt zehatzak ziren, baten lana izan ziren neurri berean izugarrizko joera zuten egilea kezka zezaketen arazoetan geratzeko. Onenean ere, oso zail izanen zaio egileari bere euskalkiaren mugak haustea.

Gramatika Batzordeak egin duen lana talde bati zor zaio eta horixe da, hain zuzen, azpimarratu beharko litzatekeen ezaugarria: eztabaida asko izan badugu gure artean, denoi aberasgarri gertatu baldin bazaigu lan honetan parte hartzea, horrexegatik izan da. Lan hau hamahiru lagun artean dago egina, hamahiru eta euskalki gehienetakoak gainera. Bestalde, fenomeno guztiak ahalik eta modurik zabalenean tratatzen saiatu ginen. Taldearen buru P. Lafitte izan da. Besteak: J. Haritschelhar (buruorde), P. Goenaga (idazkari), M.P. Lasarte (idazkariorde), P. Altuna, L. Akesolo (ez da Gramatika Batzordekoa), M. Azkarate, A. King (ez da GBkoa); J.M. Larrarte (ez da GBkoa), J.A. Mujika, B. Oyharçabal (ez da GBkoa), K. Rotaetxe eta P. Salaburu. Ikusten denez, ez da bakarrik hamahiru lagun eta euskalki diferenteetakoak izatea: nor, eta Euskerazaintzako («Erri Akademiako») burua bera ere hor geneukan gure artean. Honek erakusten du ongi aski gure helbururik handiena euskararen gramatikaren aberastasun guztiak biltzea izan dela.

Lan hau ez da nekerik, izerdirik eta, batez ere, eztabaida luze gaberik burutu. Haritschelhar jaunak zioen azken egunean 13 ginela denetara, apostoluak ere hamahiru ziren bezala. Eta apostoluen artean ba omen zegoen egon traidore bat, hilehoria. Euskaltzain hark zioenez, gure artean ere egon zitekeen bat eta inor egotekotan bera omen. Baina kontua da Haritschelhar-en hilea kolore barikoa dela. Badirudi, beraz, arazo hau argitu beharra dagokeela. Eta hori egiten den bitartean, eman ditzadan beste datu batzuk ere.

Txosten nagusia egitea hiru urte luze kostatu da, agian gehiago. Txostenaren parteak hiru aldiz izan dira banan banan eta lerroz

lerro idatziak, berridatziak eta eztabaidatuak gure artean. Ehundaka fitxa egin ditugu autoreak eta aztertuz, argia eskatu dugu, laguntza ere eskatu dugu (ez beti hartu) eta azkenean material guzti hori Altuna eta Salabururen artean moldatu zen estiloak batuz eta alde z aurretik egin lana pittin bat txukunduz. Talde honek jasoko ditu orain oharrak eta argitaratzeari ekinen dio segidan.

Aurrera begira

Ez dago zalantzarik azken urte hauetan euskarari buruz egiten diren ikerlanek beste neurria hartu dutela: orain arte Euskaltzaindia baldin bazen lan hauek bere soinean hartzen zituen erakunde bakarra (edo ia ia bakarra), gaur ez da hori suertatzen eta Unibertsitatea ere hor dago eta erne egon beharko dugu han sor daitezkeen lanen zain. Euskaltzaindiak bere aldetik segituko du eta, hein batean bederen, lan guzti horiek hezurtu beharko ditu. Hor daude Atlas Linguistikoa lantzen ari direnak (urte luzeetarako proiektua), hor dago Hiztegi Batzordea eta hortxe, nola ez, Gramatika Batzordea ere. Jende berbera aurkitzen da anitzetan talde hauetakoren batean eta Unibertsitatean: harreman horiek, jakina, bultzatu egin behar dira. Denborak esanen digu, baina baliteke Unibertsitatearen lana izan daitekeela teoria bultzatzea eta euskarak eskaintzen dizkigun datuek nola argi, alda edo faltsa dezaketen hizkuntz teoria zehaztea. Baina kontu hauetan ere estu-estu gaude loturik: gramatika deskribatzaile egokiak behar bait ditugu. Badirudi gauza asko dagoela egiteke eta horiek geuk egin beharko ditugu, kanpoan egin daitekeenaren zain egon gabe. Guk egiten ez baditugu, ez pentsa beste inork egingen dituenik. Berriki Euskal Herriko Unibertsitatean «Honoris Causa Doktore» izendatua izan den W.A. Douglass irakasle iparramerikarrak ongi aski zioenez: «Guk egin ditzakegun lanak zuenen oihartzuna besterik ezin dira izan».

Gramatika Batzordeak lanean segitzeko asmoak ditu eta laguntza guztiak eskas direla onartzeko prest dago: pentsa dezagun perpaus bakuna biribiltzea eta mendeko perpausen azterketa geratzen direla oraingoz osatu gabe. Ea gramatikari gehiago hurbiltzen zaigun. Bai bait da, beraz, egiteko lana. Hala ere, neurri batean behinik behin, aurrerapausu handia eman dela esan daiteke. Eta hori pozgarria da.

P. S.

Hizkuntza minorizatuen Soziologi Batzarrea

Joan Mari Torrealdai

Urri honen hasieran, «Hizkuntza Minorizatuen Soziologi Batzarrea» eginez, 150 pertsonatik gora bildu zen bost egunez Getxoko Faduran. Horietako gehienak euskaldunak, baina baita katalan dexente eta gailego batzu ere.

1983an Iruñean egindako bileratik 15 hilabetetara ospatu da Batzarre hau —egunez egun hamabost hilabete. Lehen bilera hartan bertan sortu zen Kongresuaren asmoa. Geroko bileretan, bai Lleidan eta bai Santiagon, gorputz hartuz joan da asmo hori. Egia esan, antolaketa bere osoan eta programa zati handi batean euskal taldearen bizkar joan da. Gurean, bi taldek bat egin dute horretarako: SEE edo Soziologoek Euskal Elkarteak eta Iruñean sorturiko soziolinguistika-taldeak. Batzarrea egin ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako zenbait Sailen diru-laguntza izan dute.

Hizkuntza minorizatu baten normaltzearen bila, era honetara antolatu zen Batzarrea: egun bakoitzak bere gai-eremua zuen, eta gai nagusi horren emankizun teorikoa espezialista batek egin ohi zuen, bi hitzaldiren bidez. Hitzaldi ardatz hauen inguruan, mahaiak antolatu ziren eta horietan ikerketen, azterketen eta lekukotasunen berri eman ohi zen. 50 bat txosten eta komunikazio azaldu ziren denetara, batzu onak eta eskas samarrak beste batzu. Katala-

nek, gailegoek eta euskaldunek elkarrekin hartu behar zuten parte mahai bakoitzean, baina *de facto* euskaldunen eskuhartzearen nagusitasuna nabarmena gertatu zen; eta ez, noski, antolatzaileek horrelakorik bilatu zutelako.

Zertan esanik ez da, Batzarreko vedettak hitzaldi nagusiak izan zirela. Berauen interesa ere ez dago zertan azpimarra. Aski dugu horretarako gai-alorren tituluak eta hizlarien izenak aipatzea: Hizkuntz ordezkatzearen prozesu historikoa (L. Aracil), Gutxiatasun egoeren analisi eta diagnostikoa (R. Jaulin); Hizkuntza gutxiengotuen prozesua (J. Cobarrubias); Hizkuntz plangintza eta arauztapena (Txepetx); Hizkuntz plangintza eta gizarte-erabilpena (W. Mackey). Hitzaldi guzti hauen balioa ere ez zen maila berekoa izan. Txepetx eta Mackey izan nituen nik neuk gustokoenak. Nire eta guztion ustez txarrena, benetan txarra, R. Jaulin etnologo frantsesa.

Lanak oro gutxi barru argitara emango direlakoan gaude. Orduan izango dugu horien goi-behea eta balioa neurtzeko aukerarik. Goiz da, beraz, gaur, bai lanen berri zehatz emateko eta bai Kongresu honen emaitzak aztertzeko. Altuenean ere urgentziatzko balantzeren bat egiterik egon daiteke, eta hori berori ere oso probisionalki. Baldintza hauekin abiatzen naiz neu ere lerro gutxi hauek idaztera.

Badirudi zenbaiten espektatibak ez zirela asebate Batzarre honetan. Nobedade eta zer ikasi gutxi aurkitu bide zuen zenbait euskaldunek. Nik neuk, Kongresu batek zer eman dezakeen eza-guturik, eta gure honetan denetik egon zela aurretiaz aitorturik, besterik uste dut. Bai teori mailan, bai metodologi mailan, bai ikerketa mailan, eta bai proposamen mailan egon da zer ikasirik, geroa, lanen argitalpenean ikusi ahal izango denez.

Beste batzuk ez zuten gustokoa izan Batzarrearen eraketa bera: hitz gehiegi eta elkarrizketa gutxiegi. Nire ustez ere, Kongresu «klasikoegi» bilakatu zen. Nahiz eta antolatzaileek «mahai paraleloak» antolatzeko eskaintza egin, apenas egin zen horrelakorik, agian programa ofizialak lan-dinamika azkarra sortzen zuelako. Uste eta nahi baino elkarrizketa, eztabaida, eritzien eta informazioen trukaketa gutxiago izan zen Batzarre honetan. Areagotu egin zuen joera hau katalan talde baten jarrera automarginatzaileak.

Batzarre-eredu honen ondorioz eta giro horren erruz, behar bezala burutu gabe gelditu zela Kongresua esango nuke, bi puntutan bereziki: bateko, ez bait zen deus egin nazioen arteko elkar-lana eta plataforma amankomunatu eratzeko. Eta besteko, gano-

razko ondorioerik ez bait zen landu Batzarrea ixteko. Batzarreak ez ditu ondorioetan jaso bost egunez mila modutara errepikatu diren arazoak ere, hala nola, lurraldetasunaren printzipioa, elebitasun-ereduaren elebakartasun-ideologia, euskararen gizarte-erabilkizunaren garrantzia, hizkuntz plangintzaren premia, urgentzia eta ahalbidea. Batzarrea duintasunez burutzeko aukera galdu da, ez bait da zer esanik falta Iruñeko Agiriaren bide beretik. (Agiri hau JAKIN 29an aurki dezake irakurleak).

Aipatu hauek dira nire ustez kritikarako eta autokritikarako arazo nagusiak. Hauen ondoan txikikeriak iruditzen zaizkit erro-daje-faltak, zenbaiten protagonismo-nahikeriak, beste zenbaiten mesfidantzak eta batzuren interesek sortu zituzten tirabirak eta esamesak.

Nire ustetan Kongresu honen balioa ez da Faduran eta gero egingo den argitalpenean agortzen. Ezta gutxiagorik ere. Testu-inguru kulturalen kokaturik du honek lehen mailako balioa. Ez da ahaztu behar hizkuntza minorizatuen lehen batzarrea dela, alegia, soziolinguistikako lehen kongresua. Soziolinguistikaren plazaratzea esan nahi du honek. Soziolinguistikaren plazaratzea eta elkarre soziologiko baten eskutik gertatzea, hori denori oso interesgarria eta esanguratsua iruditzen zait, euskalgintzaren ohizko bideak kontutan harturik. Ez ote da hor kontzientzi hartze berri baten eta mugimendu sozial indartsu baten adierazpena ikusi behar?

Aspaldi ematen du, baina lau urte bakarrik da Soziolinguistikako Kongresu baten eraketa publikoki eskatu zela. Euskaltzaindiari egin zitzaion eskaria orduan. Eta ahots bakarti batzuren oihua zen, ez askoz gehiago. Harez gero erruz aldatu da euskalgintza. Talde eta pertsona anitz dabil egun lanean soziolinguistikaren ikuspegi-tik eta honen eremuan.

Lehen eskaritik lau urtetara Kongresu hori egin egin da. Beste-rik gabe. Eta ez zaio oraingoan Euskaltzaindiari eskatu hori antolatzea. Zer esan nahi duen honek? Gero eta gehiago direla, zorionez, euskaraz arduratzen diren erakundeak, elkarteak, taldeak. Lantaldeak ugalduz, haziz, dibertsifikatuz eta espezialduz doaz euskararen premien arabera. Pozgarria da hori. Gaur egun, nahita ere, euskararen monopoliorik ez du inork. Ezin daiteke egon euskararen premien orohartzailerik. Lehen esandakora nator: ekarpen konkretuen gainerik, soziolinguistikako Kongresu honen garrantzia eboluzio honen barruan balioztatu behar da.

Izan ere, gurean, euskararenganako ardura Filologiak bideratu

du nagusiki, zientzia bezala. Soziolinguistikarekin alor eta bide berriak irekitzen dira, bestelako hurbilketa, perspektiba eta sentsibilitatea seinalatzen bait ditu Soziolinguistikak. Ez daude elkarren kontra, eta ez dira alternatiboak. Elkar osatuz egin beharko lukete aurrera. Baina bi alditan daude, zeren eta Filologiak status soziokulturala ongi finkatua duen bitartean, horrelakorik lortzeke bait dago Soziolinguistika. Onarpen eta estatutu horiek lehenbailehen bereganatzea, euskararen mesedetan litzateke, beste abantaila askoren artean sasoa bait da hizkuntzari buruzko diskurtsua aldatzeko, aberasteko, dibertsifikatzeko.

Fadurako Kongresuak zerbait baino gehiago erakutsi du: badela jenderik, lanik, ikerketarik, jakintzarik, gogorik eta premiarik eta premiaren kontzientziarik Euskal Herrian joera soziolinguistiko bultzatzeko. Geroari buruz, beraz, zer? Zein da Kongresu honen segida? Beste Kongresu bat ote? Katalan eta gailegoekin plataforma bateratu bat bultzatzea ote? Bata eta bestea ongi daude. Baina bien aurretik geurea antolatzeraz joko nuke nik. Esan nahi bait da, euskaldunok geure artean bildu, geure premiak —teorikoak eta pragmatikoak— ongi ezagutu, euskal kulturaren baitan soziolinguistikarentzat status intelektual bat erdietsi, eta —azkenik, edo aurrenik— elkarre bat eratu behar dugula lehenik. Gero geroak. Eta esan bezala, gerokoen artean geldituko lirateke, niretzat, Kongresuak eta beste hizkuntz komunitateekiko plataformak.

J. M. T.

JAKIN

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk. - Donostia-13
Tel. (943) 271713